ASTELEHENEKO
# Goienkaria

2010eko urriaren 4a > Astelehena > VI. urtea > 270. zenbakia > 1,10 euro

www.goiena.net TOKIKOM



"Egunero buruari galdetu behar diogu zer nahi dugun, gure beharrak asetzeko"

**Silvia Camio**
Psikologoa > 08

**G2a** Frantziskoarren liburuak, oso merke salgai > 29

**POLITIKA**
Hiru atxilotu, terrorismoari gorazarrea egotzita > 06

**ARRASATE**
2010-2011ko zergak ez izoztea eskatuko du Udaleko Ogasunak > 14

**OÑATI**
Atzeko kalea oinezkoentzat egokituko dute 2011n > 18



**HERRI EGUNA** Oñatiko San Migeletako egun handienetako bat da herria tradizioz jantzten duena. JOSETXO ARANTZABAL



**MARITXU KAJOI** Dotoretasuna eta parranda ederto uztartzen duen jaia. J.A.

**JAIAK** > MARITXU KAJOI ETA HERRI EGUNA

# Udari eta jaiei agur esateko, azken topa

**MARITXU KAJOI** Ibarreko jai bitxia eta aldi berean glamourosoena ospatu zuten egubakoitzean Arrasaten

**HERRI EGUNA** Oñatiko Sanmigelak urteko ardatza dira oñatiarrendako eta bisitari askorentzat ere jai oso garrantzitsuak dira > 12-13

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 03-07
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-27
**Kultura** > 30-31
**Sailkatuak** > 32-33
**Telebista-Irratia** > 34
**Berri-zakua** > 35-36
**Argazki Lehiaketa** > 37-38






Abantailaz betetako kluba!

Goiena kluba

# Atera etekina txartelari!




## Abantailak

- Goienkaria astelehenetan eta ostiraletan etxeko postontzian jasotzea
- Goienak antolatutako ekitaldi eta ikastaroetan prezio berezia
- Goienak kaleratzen dituen produktuetan prezio berezia: DVD kopiak, CDak, kamisetak, Goienkaria-ko Sailkatuak, eskelak, ekitaldietarako sarrerak... eta orain, opari eta deskontu paregabeak lortu ditugu zuretzat

**Eta gainera, Goiena Klubeko zozketetan parte hartzeko aukera izango duzu.**

## Deskontu bereziak

LILURA EDERTZE INSTITUTUA

**BERGARA (Bazkidearentzat eta lagunarentzat)**
- Laser depilazioa: hanka osoa + izterrondoa **-%15** + opari besapekoak (axilak).
- **-%20** elikagai-intolerantzia proban.
- **-%10** mikropigmentazioan: begietan, ezpainetan edo bekainetan.
- **-%10** fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.

RENAULT AUTOBERRI

**ARRASATE/AZPEITIA/ELGOIBAR/IRUN/TOLOSA**
- **-%5** konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.
- **-%25** saltzen ditugun pneumatikoetan, urte osoan.
- Ordezkapeneko autoa 20 euro.
- Erosketetaren momentuan, goian aipatutako deskontua baino handiagoa badago, bezeroari deskontu handiena eskainiko diogu.

IKER SUKALDEAK

**ARRASATE/OÑATI**
- Sukalde osoa erosita, etxetresna elektriko bat opari.

Barceló BIDAIAK

**BERGARA/ARRASATE**
- **-%5** pakete konbinatuetan 600 eurotik gorako erosketagatik (eskaintza berezietan izan ezik).

ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE (MECA) AVIA

**ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE (MECA)**
**ARRASATE**
- **-%2** gasolindegian erregaia erosita.
- **-%2** dendako produktuetan.

MONDRAGON LINGUA

**ARRASATE /OÑATI (18 urtetik gorakoentzako bazkideentzat)**
- **-%15** ingeleseko eta euskarazko ikastaroetan, SISTEMA KONBINATUAN. Ikasturte osoan.
- **-%15** aurrez aurreko eskoletan.

naren FISIOTERAPIA ZENTROA

**ARETXABALETA**
- **-%15** zerbitzu guztietan.

CLINICA DENTAL BERGARA

**CLINICA DENTAL BERGARA**
**BERGARA (Bazkidearentzat eta familiako batentzat)**
- **-%10** zerbitzu guztietan
- **-%15** inplanteetan.
- 120 eurotik gorako tratamenduetan garbiketa doan.

TXURI-URDIN Donostia

**DONOSTIA**
- Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan, ez bada jaiegun, jaiegun bezpera, zubia edo oporraldia.
- **-%20** larunbatetan eta igandeetan, ez bada zubia edo oporraldia.
- **-%10** zubi eta oporraldietan.

AQUARIUM DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

**DONOSTIA**
- Bi erosi bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).

LARRAÑAGA AUTOESKOLA

**BERGARA**
- **-%15** inskripzioa ordaintzean.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

**DONOSTIA**
- Bi erosi eta bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).

**Enpresendako: Zure enpresa Goiena Klubean eskaini nahi baduzu jarri gurekin harremanetan.**

**Telefonoa: 943 25 05 05 | Posta-e: *kluba@goiena.com***

**KIROLA** > BAILARAKO UDALETAKO ESKAINTZA

# Sasoian egoteko gimnasia eta aerobika baino askoz gehiago

**BILAKAERA** Asko aldatu da azken urteotan Debagoieneko kiroldegietako eskaintza; hiruzpalau jarduera izatetik, Bergaran, esaterako, 41 dituzte aurten

**ARETO BIZIKLETA** Erabiltzaileek gehien eskatzen duten jarduera areto bizikleta edo spinning delakoa da; pilatesak ere oso harrera ona du

**HERRITARRAK, GAKOA** Kirol eskaintza gertatu aurretik, herritarren iritzia jasotzen dute kirol zerbitzuek; bestelako udal zerbitzuetara ere jotzen dute

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Kirol eskaintza gero eta aberatsagoa da gure herrietan. Hasiera batean, sasoian egoteko gimnasia, aerobika eta halako bizpahiru jarduera eskaintzen baziren ere, gaur egun denetarik praktikatzeko aukera dago. Horren harira, Arrasateko teknikari Iratxe Aranburuk aipatu du Arrasaten jarduera leunak, biziak, uretakoak, dantzagarriak eta material ezberdinak erabiltzen dituen kirol jarduerak daudela; uretakoak kontuan izan barik, 18 mota eskaintzen dituzte egun.

Bergaran kopuru hori, lehorretan, 41 jardueratara igotzen da. Hango teknikari Unai Asurmendik azaldu digu hiru multzotan banatuta dutela eskaintza: batetik, umeei begirakoa da; igeriketarekin lotutakoak dira erakargarrienak. Asurmendiren arabera: "2006a ezkero garatzen joan gara arlo hori; 100 bat umerekin hasi ginen eta aurten 250 ditugu matrikulatuta, 4 eta 12 urte bitartekoak". Bestetik, jarduera generikoen atala dago; hala nola areto bizikleta, pilatesa, aquarobika, hirugarren adinekoendako gimnasia eta sasoian egoteko gimnasia. "Horiek dira beti eman ditugunak, eta ematen jarraituko dugu", dio.



Askotariko kirol jarduerak egin daitezke gaur egun; irudian, Arrasateko Musakolako multifitness aretoa. JOSETXO ARANTZABAL

**FUNKY GAZTEN, PLAZAK FALTAN**

Hirugarrenik, gizarte sektore jakinei zuzendutakoak daude; esaterako, down sindromea edo bestelako arazoak dituztenendako igeriketa egokitua edo fibromialgia dutenendako igeriketa. *Goazen!* musikalaren harira, bestalde, neska gazteendako Funky Gazte ikastaroa dago aurten lehen aldiz. Harrera ezin hobea izan du, itxaron zerrenda dago-eta.

Azken horrek erakusten du, beste hainbat arlotan bezala, modak zerikusi zuzena duela kirol jardueretan ere. Aranbururen esanetan, gizarteari egokitzen saiatzen dira eskaintza zehaztерakoan. Asurmendiren arabera: "Moda aprobetxatzen dugu kolektibo zehatzetako jendea poltsikoan sartzeko. Aurten funkarekin egin dugun moduan, orain dela bi urte batukarekin egin genuen. Ikastaroari batuka izena jarrita, itxaron zerrenda izan genuen".

Horren harira, teknikariek jakinarazi digute eskaintza osatu aurretik herritarrekin harremanetan egoten direla. Aranburuk hauxe dio: "Tanteatu egiten dugu herritarrek gustuko duten edo ez, eta, horren arabera, jarduera bat txertatu edo eskaintzatik kentzen dugu". Asurmendiren esanetan: "Dantza latindarrak jarri aurretik, esaterako, erretiratuengana joan ginen. Gizarte eta Gazteria zerbitzuetara ere jotzen dugu".

**ARETXABALETAN, POZIK**

Bestalde, kirol eskaintzak Aretxabaletan izan duen bilakaerari ere erreparatu behar zaio. Jakina denez, gaur egun kiroldegi barik daude han, eta horrek eragin zuzena izan du eskaintzan. Hango teknikari Asier Muxikak, dena dela, nabarmendu du pozik dagoela Zainduz gimnasioak izan duen harrerarekin. Haren esanetan, "logikoa denez izenemate kopurua %15-20 jaitsi da. Baina, egoera prekarioan egonda ere, jaitsiera ez da horrenbestekoa izan eta, hortaz, oso balorazio positiboa egiten dugu".

**SPINNINGA, ARRAKASTATSUENA**

Jarduera arrakastatsuenei dagokienez, bat datoz Debagoieneko teknikariak. Gaur egun, spinninga edo areto bizikleta egin nahi dute debagoiendarrek. Bergaran, aurten eskaini diren 1.200 plazetatik 220 inguru jarduera horretakoak dira; eta beste 250 igeriketa eskolakoak dira. Arrasaten, horrez gain, pilatesak ere oso harrera ona du; eta Aretxabaletan, multifitnessak. Elgetan, bestalde, karatean ume askok dute izena emanda.

**25 ETA 45 URTE ARTEKO NESKAK**

Erabiltzailearen profila ere nahiko antzekoa da Debagoieneko herrietan. Asurmendik eta Muxikak diote lehorreko jardueretan neska dela izena ematen duena; 25 eta 45 urte bitartekoa, hain justu. Asurmendiren esanetan, "astean bitan jarduera jakin bat praktikatzeaz gain, normalean, hirugarren egun baten joaten da Agorrosinera, igerilekura edo gimnasiora". Aranburuk, dena dela, gainera-

## Erabiltzaile kopurua iaz

| | |
|---|---|
| **Bergara** | 850 |
| **Oñati** | 750 |
| **Arrasate** | 600 |
| **Aretxabaleta** | 340 |
| **Antzuola** | 140 |
| **Eskoriatza** | 90 |
| **Elgeta** | 80 |
| **Aramaio** | 45 |
| **Leintz Gatzaga** | - |
| **GUZTIRA** | **2.895** |

ITURRIA: DEBAGOIENEKO UDALAK

DATUAK

**1.100**

**IZENEMATE**

Umeen igeriketa eskolak kontuan izan barik, Bergarako Kirol Zerbitzuak 41 ikastaro eskaini ditu; 1.200 plazetatik 1.100 bete dira.

ESANAK

**"Astean bitan jarduera jakin bat praktikatzeaz gain, hirugarren egun baten ere joaten da jendea Agorrosinera"**

**Unai Asurmendi** > Kirol teknikaria

ETXEBIZITZA > BABES OFIZIALEKO ETXEAK

# Kezkak zenbait jaberen artean, lurzorua erosteko eskaintzaren aurrean

Eusko Jaurlaritzak azaroaren 15era arte du irekita epea babestutako etxeen jabeek lurzorua erosi eta jabetza osoa eskuratzeko eskaria egin dezaten

JULEN IRIONDO > ARRASATE

Hainbat debagoiendar hasia da babes ofizialeko etxebizitzaren jabetza osoa eskuratzeko baldintzen gaineko informazioa batu eta aztertzen. Jaurlaritzak irailaren 15ean ireki zuen epea, 2003 urtea baino lehen erositako babestutako etxebizitza azalera eskubidean duten jabeek lurzoruaren jabetza ere eskuratu dezaten –hala nahi dutenek–, eta bi hilabete eman zituen eskaria egiteko –azaroaren 15era bitartean–. Lurzorua erosita, titularrek ez lukete etxebizitza galduko azalera eskubideko etxebizitzentzat jarritako 75 urteko epea igarotakoan.

Oñatiko Bidebarrieta kaleko, Bergarako Artzamendi eta Eskusarteko eta Eskoriatzako Intxaurtxueta auzoko zenbait bizilaguni eragiten die eskaintzak. Bizilagunak ari dira jasotzen aukera honen berri ematen duen gutuna. Horrela baieztatu dio *Goiena*-ri Bergarako Artzamendi kaleko bizilagun batek. Bizilagun honek esandakoek, gainera, agerian uzten dituzte jabeek izan ditzaketen zenbait zalantza eta kezka.

Jaso duten gutunean jakinarazi diete zenbat ordaindu beharko luketen lurzoruaren jabe egiteko. Euren kasuan 12.000 euro omen dira: "1994an etxea erosi genuenean bilera izan genuen Etxebizitza saileko orduko arduradunekin, eta esan ziguten hogei urteren buruan-edo izango genuela etxearen behin-betiko jabe egiteko modua, kopuru txiki bat ordainduta. Baina 12.000 euro diru asko da". Gainera, lurzoruaren salerosketa gauzatu ezkero, etxebizitzak behin betiko hartuko luke babestutako izaera, eta jabeek merkatu librean jartzeko aukerarik gabe jarraituko lukete: "Bestela zer egin behar zuten, 75 urte pasatutakoan jendea etxeetatik bidali?", galdegiten du bizilagun honek, eta gaineratu badutela asmoa Etxebizitza sailburuarekin harremanetan jartzeko.

ESANAK

**"Bestela zer egin behar zuten, 75 urte pasatutakoan jendea beren etxeetatik bidali? Badugu asmoa sailburuarekin hitz egiteko"**

DATUA

**12**
**MILA EURO**

Bergarako Artzamendi auzoko bizilagun batek *Goiena*-ri adierazi dio 12.000 euroko kopurua ezarri diola Jaurlaritzak babes ofizialeko bere etxearen lurzorua eskuratzeko; gehiegizko kopurua deritzo.

> ATXILOKETAK

### Hiru lagun atxilotu zituzten Oñatin droga trafikoa egotzita

Domeka goizaldean Ertzaintzak 18 eta 42 urte bitarteko sei pertsona atxilotu zituen Oñatin jaietan droga atzemateko operazio baten barruan.

Ustezko trafikatzaileak bi autotan harrapatu zituzten eta horiek arakatu ostean Ertzaintzak 200 gramo haxix eta ustez lapurtutakoak diren sakeleko telefonoak atzeman zituen.

Sei atxilotuak Bergarako ertzain-etxera eraman zituztela jakinarazi dute.

> EGURALDIA

### Gaurko luzatu dute haizeteen gaineko alerta horia

Eusko Jaurlaritzako Barne Sailak gaur, astelehena, arte luzatu du haizeteen gaineko alerta horia.

Hasiera batean Barne Sailak atzorako, domeka, haizekolpe handiak iragarri zituen: hain zuzen ere, 110 kilometro ordukoak.

Hortaz, gaurko ere zabaldu dute alerta; eta haizeak 100 kilometro ordukoko abiadura har dezakeela diote.

EKONOMIA > DEBAGOIENEKO HILTEGIA

# Zubillagan elkarte publikoa sortzearen alde jarri dira Aldundiak eta Udalak

Hiltegiaren alde egingo du Aldundiak; azken egunetako gaizki ulertuak argitu eta ados jarri da Udalekin



Arazoak arazo, Zubillagako hiltegia kudeatuko duen elkarte publiko bat sortzeko prozesua aurrera doa. GOIENKARIA

JOKIN BEREZIARTUA > OÑATI

Zubillagako hiltegian Debagoieneko Udalek –guztiak Elgeta ezik– kudeatuko duten elkarte publikoak aurrera egingo du, azken orduko gaizki-ulertuen ostean. Azken arazoak hala azaldu ditu Pedro Iturbe Antzuolako alkate eta Mankomunitateko Hiltegiaren Batzordeko presidenteak: "Irailaren 17an Rafa Uribarrenen gutun bat jaso genuen Udaletan Oñatiko hiltegiaren gainean erabakirik ez hartzeko. Gutun hori bidaltzeko aitzakia Gipuzkoako hiltegien artean mahai komun baten sorrera izan zen".

**GAIZKIULERTUA ARGITZEN**

Rafael Uribarren Landa Ingurunearen Garapenerako diputatu eta Arrasateko EAJko zinegotziaren gutunak "asko" harritu zutela onartu du Iturbek: "Bilera bat egin genuen Uribarrenekin eta adostasun batera heldu ginen. Hala, adierazi zuenez, gutun bat bidaliko dute Udal guztietara gaizki-ulertuaren berri eman eta egindako akatsa onartzeko".

Izan ere, Iturbek jakinarazi duenez, Aldundia Oñatiko hiltegian elkarte publikoa eratzearen alde dago, Zubillagako hiltegia bultzatzeko beharra ikusten du. Iturberen ustez, erabaki horrekin saihestuko du bere taldeko zenbait zinegotzi atzera botatzea. Izan ere, Antzuolako alkatearen aburuz, "badirudi" EAJk Oñatiko hiltegiaren alde egingo duela. Bestalde, Debagoieneko Udalek konpromisoa hartuko dute Gipuzkoako hiltegien mahaian lanean jarraitzeko.

**PSE-EE, LEHEN GUTUNAREN AURKA**

Eskoriatzako alderdi sozialistako zinegotzi Iñaki Pierruguesek ere Uribarrenen lehen gutuna kritikatu du. Pierruguesen hitzetan, Uribarren Oñatiko hiltegiaren kudeaketaz arduratuko den elkarte publikoa martxan jartzea "oztopatzen" ari da, "aitortu ezin diren" arrazoiengatik.

Zubillagarako dauden egitasmoak aurrera eramanda, hiltegia gertuago egongo da Gipuzkoan eta Hego Euskal Herri osoan haragiaren sektoreak eutsi beharreko erronkei eusteko. Izan ere, bai sektorea, bai agintariak bat datoz arloak berregituraketa bat behar duela. Une honetan, EAEn eredu desberdin askotako hiltegiak daude, bai kudeaketa aldetik, bai juridikoki; eta, Euskadin gero eta ganadu-esplotazio txikiagoak egoteak berrantolaketa batera behartzen du. Oñatiko hiltegiak, behintzat, emango du urrats hori.

# KIBUC GURE AMETSA
# ALTZARIAK ETA OSAGARRIAK

## SUKALDE ETA BAINUETAN ESKAINTZA BEREZIA

**BEZEROAREN NEURRI ETA BEHARRETARA EGOKITUTAKO AURREKONTUAK EGITEN DITUGU.**

- BARNEALDEAK DISEINATU ETA ZAHARBERRITZEN DITUGU.
- URTE ASKOTAKO ESPERIENTZIA DUGUN LANGILE PROFESIONALAK GARA.
- ETXEAN EDOZEIN ERATAKO BERRIKUNTZAK EGITEARI BURUZKO AHOLKUAK EMATEN DITUGU.




KIBUC
altzari eta osagarriak
Azkenean gure etxean

gureametsa@kibuc.com
Landeta Hiribidea, 1 - 20730 Azpeitia
Tel.: 943 15 16 81

KIBUC Gure Ametsa
altzari eta osagarriak
www.kibuc.com

>> proiektu eta erreformak >> gremioen koordinaketa >> proiektu eta erreformak >> gremioen koordinaketa >>

Abantailaz betetako kluba!
Goiena kluba
IRAILEKO IRABAZLEAK
Telefonoa: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com
Kuota: 45 euro

LIBURU SORTA BAT
Pamiela etxearen liburu sorta
PAMIELA argitaletxea
IRABAZLEA
M. Angeles Arriolabengoa Unzueta
Aramaio

ARRIKRUTZERAKO BI SARRERA
Arrikrutz kobak ikusteko bi sarrera
ARRIKRUTZ oñatiko kobak
IRABAZLEA
Juan Ramon Balenziaga Errasti
Arrasate

ESAIT-EKO MAILLOTA
Esait-eko Euskal Herria mallota
esait
IRABAZLEA
Aitor Belastegi Aranzabal
Antzuola

UMEENTZAKO PUZZLEA
Ikastolen Elkartearen umeentzako puzzlea
Ikastolen Elkartea
IRABAZLEA
Mertxe Kalparsoro Esteibar
Aramaio

SARI NAGUSIA
UZTAILA-URRIA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA
WII SPORTS RESORT PACK TXURIA
Ukabi informatika
Sistemen salmenta eta mantenua
TPV eta enpresak kudeatzeko aplikazioak
Webguneen diseinua.
Domingo Irala z/g (Ariznoa aurrean)
BERGARA Tel.: 943 15 01 01




Ezker Abertzaleko hainbat hautetsik prentsaurrekoa egin zuten egubakoitzean, Gasteizen. GOIENKARIA

**KARGUGABETZEA** > ABIADURA HANDIKO TRENA

# Ezker Abertzaleak babesa erakutsi dio Asier Agirreri

## Agirrek helegitea jarri dio kargugabetze epaiari; hainbat taldek babesa erakutsi diote alkateari

**A.EZKIBEL/I.BARANDIARAN** > ARAMAIO

Ezker Abertzaleak agerraldia egin zuen egubakoitzean Gasteizen, Aramaioko alkate Asier Agirreri jarritako zigorra salatzeko. Prentsaurrekoan Ezker Abertzaleko hainbat alkate eta zinegotzik esku hartu zuten, tartean Bergarako eta Arrasateko alkateek. Hala, Agurne Barrusok eta Arabako Aldundiko hautetsi Aitor Besaresek hartu zuten hitza; salatu zuten herri galdeketak egitea debekatu izana; eta bestetik, botere faktikoak kritikatu zituzten, tartean EAJ. Gainera, Agirrek herriaren alde egindako lana goraipatu zuten.

Asier Agirreri zazpi urteko kargugabetze zigorra jarri dio epaileak, AHTren gaineko herri galdeketa egitea uzteagatik.

**POLITIKA** > AUDIENTZIA NAZIONALA

# Hiru atxilotu, terrorismoa goraipatzea leporatuta

**I.B.** > ARRASATE

Egubakoitz goizean, Maritxu Kajoi egunean, Ertzaintzak hiru gazte atxilotu zituen Arrasateko Iturriotz kalean. Ertzaintzak jakinarazitakoaren arabera, aipatutako gazteak presoen argazkiak jartzen ari ziren.

Hiru gazteak Bergarako ertzain-etxera eraman zituzten, baina 13:30ak aldera, deklaratu ostean, aske zeuden. Ordu horretan manifestazio inprobisatua egin zuten ia 400 lagunek Arrasateko kaleetan, atxiloketak salatzeko asmoz.

**AUDIENTZIA NAZIONALAREN ZAIN**

Ertzaintzako prentsa bulegora jo dugu gazteen kontrako karguak ezagutzeko, baina ez digute halakorik baieztatu ezta gezurtatu. Atxilotuetako batek, ordea, jakinarazi du terrorismoari gorazarrearen akusazioa jaso dutela eta Audientzia Nazionalaren jakinarazpenaren zain daudela.

Bestalde, Ertzaintzak ostiral eguerdian txosnagunetik hainbat kartel kendu zituen; eta zapatu goizaldean gauza bera egin zuen Arbolapeta plazan.




JOSETXO ARANTZABAL

## Udalbiltzako auzipetuen aldeko elkarretaratzeak egin dituzte

Egubakoitzean Arrasaten eta herenegun, zapatua, Bergaran Udalbiltzako auzipetuen aldeko elkarretaratzeak egin zituzten. Arrasatekoa eguerdian egin zuten Maritxu Kajoiren bazkal aurreko txikiteoaren orduan eta jende asko batu zen.

Bergaran, berriz, jende gutxiago batu zen, baina Udalbiltzaren aurrekari izandako Alkateen Mugimenduaren bultzatzaile Jose Luis Elkoro gogora ekarri zuten, haren askatasuna aldarrikatuz.



Miren Garitagoitia adituak emango du berbaldia bihar, martitzena, Mankomunitatean. GOIENKARIA

Miren Garitagoitia > Administrazio eta kudeaketan lizentziatua

# “Gazteok ez dugu gurasoen enpresa edo komertzioen ardura hartzeko presioa”

EDU MENDIBIL > BERGARA

**Debagoieneko Mankomunitateak antolatuta, dendariei eta ekintzaileei zuzendutako jardunaldia izango da bihar, martitzena, Mankomunitatearen egoitzan. Miren Garitagoitia (Eibar, 1980) administrazio eta kudeaketan lizentziatuak komertzioen ondorengotzaren gaineko aholkuak emango ditu Arrasaten. Garitagoitia finantza eta ekonomia arloetan aholkularia da Eibarko Garena aholkularitzan.**

**Zertan datza komertzioen ondorengotza ziurtatzeko SPRIk bultzatutako laguntza programa?**

SPRIren *Enpresen transmisioa eta ekintzailetza merkataritza sektorean* laguntza programaren helburua komertzioen iraunkortasuna bermatzea da. Horretarako, laguntzak bi eremu lantzen ditu batez ere: batetik, komertzioa hirugarren bati saldu edo familiako oinordekotzan pentsatzen ari diren komertzioen jabeengana zuzentzen da; eta bestetik, komertzio berri bat zabaldu edo dagoeneko funtzionatzen ari den negozio bat erostea buruan duten ekintzaileetara ere egokitzen da.

Guzti hauei- bai enpresa transmisioa burutu nahi dutenei, bai komertzio bat erosi edo berri bat eratu nahi dutenei- prozesu hau erraztuko dien aholkularitza ordu batzuk eskaintzen zaizkie, guztiz edo neurri oso altu batetan debaldekoak izango diren aholkularitza orduak.

**Galtzen ari da komertzioak ondorengotzan hartzeko ohitura?**

Beste herrialde aurreratu batzuetan gertatzen den bezala, gaur egungo euskal gazteok ez daukagu geure gurasoen enpresa edo komertzioen ardura hartzeko presio hori.

Gure ustez, errealitate hau txarra ere ez da; orokorrean enpresak eta konkretuki komertzioek argi izan behar dutena da posible dela euren bizitzako negozio hori saltzea; hau da, familiatik kanpo ere aukerak daudela, ekintzaile asko daudela euren negozioen kargu egin daitezkeenak.

**Badaukazue daturik esateko gaur egun komertzioen zein portzentaje den belaunaldiz belaunaldi igaro dena?**

"Enpresen transmisio eta ekintzailetza merkataritzan' laguntza programaren helburua da komertzioen iraunkortasuna"

Gai hauei buruzko estatistika oso gutxi badaude ere, esan genezake, enpresetako komertzioak barne, herena bakarrik heltzen dela bigarren belaunaldira eta %15a hirugarren belaunaldira.

Datu hauek ikusita, ulertzen da SPRIko programa honen esanahia: komertzioen etorkizun eta bideragarritasunaren ildotik lan egitea.

**Azaldu labur-labur zer nolako saioa egingo duzuen martitzenean.**

Martitzeneko saioan, alde batetik, laguntza programaren nondik norakoa aztertuko dugu. Programaren helburu nagusiak zeintzuk diren eta nola egituratuta dagoen ikusiko dugu. Programak definitzen dituen epeak ere izango dira aztergai: azken gai hau oso garrantzitsua da, laguntza hau eskatzeko epea oso motza baita; izan ere, abenduaren 15ean bukatzen da.

Bestetik, Garena aholkularitzan proiektu hauek aurrera ateratzeko erabiltzen dugun metodologia aztertuko dugu.

## Komertzio txikien ondorengotza izango dute berbagai martitzenean, Mankomunitatean

Komertzio txiki bat ireki edo ondorengotzan uzteko interesa dutenei zuzendutako jardunaldia da biharkoa, martitzena, Debagoieneko Mankomunitatean, Arrasateko Nafarroa etorbideko egoitzan. Miren Garitagoitiak egingo du aurkezpena eta alboan izango ditu Unai Kortabarria Mankomunitateko Garapen Agentziako ordezkaria eta merkataritza sustatzeko bulegoko ordezkari bat, hain zuzen ere. Saioa 15:00etan hasiko da eta ordubete inguruko iraupena izango duela iragarri dute. Interesatuek 943 79 30 90 telefono zenbakian edo *enpresa@debagoiena.net* helbide elektronikora idatzita, argibide gehiago jaso ditzakete.

etxeko leihotik



Inazio Arregi > 'zuzen@goiena.com'

# Mugimenduak euskal politikaren munduan

Batasunak bere gogoeta propioa egin eta biolentzia alboratuaz politikako bideak soilik erabiltzeko erabakia hartu zuenetik, ia astero ikusi ditugu adierazpen edo mugimendu berriak.

Denetik entzun dugu, baita ezer berririk ez dagoela ere. Bakoitzak berea esan beharra dauka, eta komeni zaion estrategia markatuko du. Baina seguru nago azken gertaerek ez dutela inor indiferente utzi.

Nik neuk baikor izateko arrazoiak ikusten ditut. Zuhur baina baikor, ikusten dudalako Batasuneko oinarri sozialak orain arte hartu ez duen erabaki bat hartu duela eta tinko jarraitzen duela. Pozik, azken hilabeteotan inoren heriotzak ez dituelako gure bizitzak asaldatu. Eta nahiko nuke biolentziarik gabeko egoera hau muga gabe luzatzea, herri honek askoz gehiago eman dezakeelako bakean gerran baino.

"Ez dadila bihurtu bakea gainera erori zitzaion lehendakaria"

Horizonte berri honekin ezinbestekoa da arduradun politikoek jarrera berriak hartzea. Ez dut nik bakarrik esaten. PSEko bati baino gehiagori entzun diogu ildo horretan jarduten tertuliatan. Horko sektore gogorrenek beste itxura bat eman nahi badute ere, sinistu nahi dut termometro bat baino gehiago jarrita egongo direla dagoeneko. Komeniko litzateke bakearen lehendakari izan nahi duena ez dadila bihurtu bakea gainera erori zitzaion lehendakaria.

**> Artzain-txakurren lehiaketa izan da Oñatin, urtero bezala. Gauza bik eman didate atentzioa. Onerako: zelako trebezia duten gaurko artzain eta txakurrek lehengoen aldean; eta okerrerako, tristeagoa: nola jaitsi den ikusleen kopurua.**

**> Altxor bat ezagutzeko aukera ere izan dugu joan den hil honetan: Miguel Angel Arzuagaren koadroek osatzen dutena. Antolatzaile eta sendikoek Oñatin altxorraz gozatzeko eman diguten aukera aipatu gabe ezin bukatu gaurkoa.**

MINTEGIA > GARAIA

# Utopiak aztergai Garaian, forokoopen eskutik

Bikotekako eztabaidak, gizarte utopia eta beste landuko dituzte

E.M. > BERGARA

Forokoop kooperatiba-eztabaidarako foroak antolatuta, utopiak izango dituzte aztergai egunean, urriaren 7an, Arrasateko Garaia Berrikuntza Gunean. Forokoopen laugarren biltzarrean, bikotekako eztabaidak izango dira. Javier Elzok eta Ander Gurrutxagak, esaterako, gizarte utopia izango dute aztergai eta Txomin Gartziak eta Koldo Saratxagak, berriz, enpresa utopiaren gainean jardungo dute. Mariano Ferrer kazetari ak gidatuko ditu aipatutako saioak. Bezte hizlarietako batzuk Andoni Gartzia, Iraitz Agirre, Jonan Fernandez, Mikel Gantxegi eta Jose Mari Larrañaga izango dira. Arratsaldean Joan Subiratsek egingo du hitzaldi magistrala, *Bitartekaririk gabeko demokrazia* izenburupean; eta Juan Mari Otaegik eta Pablo Angulok lankidetza utopiari buruz.

Nagusilanek eta Bizikasik antolatuta, martitzenean, urriak 5, garapen pertsonalari buruzko hitzaldia egongo da Bergarako Migel Altuna institutuan, 17:30ean. Hitzaldi horretan, Lahar elkargoko psikologo, gerontologo eta terapeuta Silvia Camiok azalduko du bizitza "errealagoa eta lasaiagoa" izan dezagun norbera ezagutzen eta onartzen ikasi behar dugula.

**Silvia Camio** > Psikologoa, gerontologoa eta terapeuta

# "Egunero buruari galdetu behar diogu zer nahi dugun, gure beharrak asetzeko"

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

**Lahar elkargoko Silvia Camio hondarribiarrak norberaren ongizatea eta osasuna hobetzeko hainbat gomendio eskainiko dizkie bihar arratsaldean Bergarako Migel Altuna institutura joaten direnei. Horretarako, nork bere burua ezagutzea eta den modukoa onartzea ezinbestekoa dela azalduko die.**

**Zeren gainean jardungo duzu bihar Bergaran egingo duzun hitzaldian?**

Nagusilango boluntarioei zuzenduta badago ere, edonor joan daiteke. Hitzaldiaren izenburua da *Garapen pertsonala: ezagutzea eta onartzea pertsona moduan hezteko*. Boluntarioak askotan ez dira euren buruarekin akordatzen; kontuan izan behar dute besteei eman ahal izateko, nork bere burua ere zaindu behar duela.

Hori izango litzateke helburu nagusia. Baina bestelakoak ere baditu, gizarteari zuzenduta daudenak. Bereziki, bakoitzaren beharrak asetzearen garrantziaz jabetu behar dugula azalduko dut. Zer nahi dugun ez badakigu, ezin gara gure bizitzarekin pozik, egon. Azken finean, ongizatea, bizitza eta osasuna hobetzeko hainbat gomendio emango ditut. Gero, bakoitzak ikusi beharko du gomendio horiek zelan egokitu bere bizimoduan.

**Ez da samurra izango gaur egun daramagun bizimoduarekin...**

Hala da. Horrek, hain zuzen ere, nork bere buruaz ahaztea eragiten du. Egun guztia okupatuta pasatzen dugu eta guk geuk dugun garrantziaz ahazten gara.

**Horren harira, esan daiteke ez dugula gure burua ezagutzen?**

Bai. Ni terapia prozesu luzean sartuta egon naiz eta horren bidez konturatu naiz ez datorrela bat ni zelakoa naizen uste dudan eta benetan nolakoa naizen. Ez du zerikusirik. Gure buruaz gustuko ez duguna ezkutatu egiten dugu; ez dugu gure burua ezagutzen.

**Ezkutatzea aipatu duzu. Horrek esan nahi du ez dugula onartzen gure izateko modua, ezta?**

Bai, hala da. Bereziki, guk uste dugunari edo erakutsi digutenari kasu egiten diogu, eta guretako eta besteendako negatiboa dena ezkutatzen saiatzen gara. Baina gizakiak gara eta, hortaz, alde positiboak eta negatiboak ditugu; eta horiek onartzen ikasi behar dugu, pertsona moduan ez zatikatzeko eta garen moduan bizi ahal izateko.



Bihar, martitzena, egongo da Silvia Camio psikologo, gerontologo eta terapeuta Bergaran. GOIENKARIA

EGUNGO BIZIMODUA

**"Egun guztia okupatuta pasatzen dugu eta guk geuk dugun garrantziaz ahazten gara"**

EZJAKINTASUNA

**"Gure buruaz gustuko ez duguna ezkutatzen dugu; hortaz, ez dugu gure burua ezagutzen"**

HEZKUNTZAREN GARRANTZIA

**"Hezkuntzan, aurrerapauso txikiak ematen ari dira; baina ez dira nahikoak"**

**Erakutsi digutena esan duzu. Txikitan jasotako mezuak garrantzitsuak dira?**

Oso. Ohituta gaude entzutera gizonezkoek ez dutela negarrik egin behar inoiz; eta emakumeei, ostera, denari men egiteko eta oldarkortasunik ez erakusteko agindu diete. Horrelako mezuekin arazoak ditugu. Txikitatik entzun izan ditugunez, azkenean barneratu egin ditugu, eta, ondorioz, ez ditugu hainbat gauza egiten.

**Horren harira, pertsona nagusiekin agian ezer gutxi egin ahal izango da. Baina umeak hezi egin daitezke...**

Hezkuntza oso garrantzitsua da, bai. Horren harira, aurrerapauso txikiak ematen ari dira; baina ez dira nahikoak. Ondo egongo litzateke ikastetxeetan umeei erakustea emozioak maneiatzen. Hainbat kasutan egiten da, baina askotan izaten da haur horrek dagoeneko arazoak dituenean; esaterako, umea agresiboa denean eta lagunak erasotzen dituenean; kasu horietan esku hartzen da.

Hezteko beste modu bat topatu beharko genuke. Horrek lotuta egon beharko luke, esaterako, emozio-adimen eta komunikazio gaitasunarekin.

**Emozioen maneiatzeaz egin duzu berba. Zer-nolako gomendioak emango dituzu horiek kontrolatu ahal izateko?**

Emozioak kontrolatzea ez da samurra; horiek ahalik eta gehien kontrolatu nahi ditugunean, samurragoa da horiekiko kontrola galtzea. Hortaz, kontrolatu baino gehiago, nik onartu egingo nituzke. Guztiok sentitzen dugu amorrua edo tristura. Horiek defendatzeko balio digu.

Hitzaldian, emozio horiek maneiatzen erakutsiko diet adibide erraz batekin. Zerbaitek ni gogaitu egiten banau, esan egingo dut. Ez badut ezer esaten ondoan dudana haserretu egin daitekeelako, emozioak kontrolatzen nabil; amorrua barruan uzten baldin badut behin eta berriro, azkenean, lehertu egingo naiz. Garrantzitsua da emozioren bat sentitzen dudanean hori azalaraztea, momentu horretan modu egokian egiteko aukera izango dudalako, lehertu barik.

**Besteekin konparatzeko ohitura ere badugu...**

Besteekin alderatzen bagara, beti topatuko dugu hobea den norbait eta gure autoestimua jaitsi egingo da. Horregatik, oso garrantzitsua da garen moduan onartzea, gure muga eta bertuteekin.

**Horren guztiorren aurrean, eman, mesedez, gomendio orokor bat...**

Egunero gure buruari galdetu behar diogu zer nahi dugun, ondoan daukagunak zer egiten eta eskatzen didan kontuan hartu barik. Modu horretan, gure beharrak aseko ditugu. Oinarria oso samurra da; hori praktikara eramatea, berriz, ez da horren erraza.

Horretaz aparte, gogorarazi nahi dut hainbat teknika daudela garapen pertsonalaren harira, hala nola erlaxazioa, bioenergetika, tai jia eta bestelako hainbat terapia.

## Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

# hemen bada giro!



























## kale inkesta

# Zer deritzozu Frantziak eta Alemaniak errumaniar ijitoekiko duten jarrerari buruz?



**Jesus Agirreurreta**
Erretiratua
Arrasate

"Ondo iruditzen zait euren jatorrizko herrialdeetara bidaltzea. Lapur asko dago errumaniarren artean. Denak ez dira akaso berdinak izango, baina niri ez zait gaizki iruditzen Sarkozyk hartutako erabakia".



**Jian Chen**
Ikaslea
Arrasate

"Errumania Europar Batasuneko parte den momentutik errumaniarrek gainontzeko europarrok ditugun eskubide berdinak dituzte. Ez zait botatzea ondo iruditzen, baina egia da konponbidea ez dela erraza".



**Monica Lagullon**
Langilea
Arrasate

"Botatzea ez zait ondo iruditzen, ez behintzat horrela. Errumaniarren artean ere denetarik egongo da, leku guztietan bezala. Europako gainerako herrialdeak, gainera, ezer gutxi egiten ari dira Sarkozy gelditzeko".



**Beronika Fernandez**
Langabetua
Arrasate

"Egia da gure artean ospe txarra dutela eta ulergarria iruditzen zait delituren bat egin badute botatzea. Baina errumaniarren artean ere denetarik egongo da. Lanean daudenak gure artean egoteko eskubidea dute".

## irakurlearen txokoa

# 943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

ARRASATE

**> Santa Barbara parkea, oso zikin**

Arrasatear batek idatzi digu esanez, aspaldian Santa Barbara parkea oso zikin dagoela, batez ere Munarrera ematen duen aldean. "Halako parkeak zaindu egin beharko lirateke, guztiontzat dira-eta". Herritarrei esan nahi die hain zikinak ez izateko eta Udalari eskatu gura dio behar den bezala garbitzeko.

ARRASATE

**> Aldaigaineko plaza berriari, erabilera handiagoa**

Arrasatear batek gugana jo du kexatzeko Aldaigaingo plaza berriari erabilera oso txikia ematen zaiola eta hori pena dela.

### ZUZENKETA

Egubakoitzeko *Goienkaria-n*, *Iturri onetik* sailean, argitaratu genuen *TU Lankide* aldizkariaren (Mondragon Taldearen hilabetekaria) 50. urteurrena ospatzeko ekitaldia egingo dutela eguaztenean. Garaia berrikuntza Gunean izango dela jarri genuen. Tokia ez zen zuzen argitaratu, ordea. MUko Arrasateko fakultate Goi Eskola Politeknikoan izango da, Loramendi kalean. Hortaz, ez da Garaian izango. Lerro hauen bitartez, *Goienkaria*-k barkamenak eskatu nahi dizkie irakurleei eta ekitaldiaren antolatzaileei.

## usteak uste

**Larraitz Zeberio**

# Interes fijoa bost urterako

Banketxetik horrela eskatuta bulegotik pasa behar izan dugu berriki. Gure hipotekarekin lotutako proposamena egin digute; 2,7ko interes finkoa hurrengo bost urteetarako. Galdetzea libre da, eta ea komeni zitzaigun galdetu genion banketxeko langileari. Erantzuna: "Pentsatzen dugu ez dela gure bezeroendako eskaintza txarra".

Pare bat egun eman ditugu etxean kontu horrekin bueltaka. "Banketxeek ez dute euren mesederako ez den eskaintzarik egiten", esaten ziguten mesfidatienek. "Adituek diote interes tasek gora egingo dutela aurrerantzean", aldiz, besteek. Atera dudan ondorioa da ez dudala nahikoa ezagutzarik horrelako proposamen baten aurrean zer egin pisuzko argudioekin erabakitzeko. Azkenean, onerako edo txarrerako zirt edo zart hartu dugu erabaki hori. Pena!

## zorroztailea



**Larraitz Ugarte**

# Garai politiko berriak

"Nueva Economía Fórum-ek Bilbon astean antolatutako ekitaldi informatiboan, Rodolfo Aresek honako hau adierazi zuen: 'ETArekin amaitzeko azken txanpan' gaudela; erakundea egoera ahulean dagoela, eta hori guztia eskubide estatuaren presioaren ondorioz dela".

larazon.es > 2010-10-01



Azken asteak ETAk egindako adierazpenaren eta Gernikan sinatutako idatziaren protagonismopean ari dira igarotzen. Batetik, hainbat alderdi eta mugimendu sozialek sinatu dituzten eta herri honentzako normalizazio politikoa ekar dezaketen eskari, konpromiso eta neurri kontsentsuatuak ditugu, aspaldian egon den kontsentsu maila altuena atxikiz. Bestetik, ETA erakunde armatuak, nazioartera igorritako bideoan eta ondorengo elkarrizketan, herri hau eskenatoki demokratiko batera eramango luketen eta bere esku dauden pausuak emateko prestutasuna azaldu du, eta aldebakarrez ekintzarik ez egiteko erabakia hartua duela jakinarazi digu, hurrengo eman beharreko pausuetarako herritarroi konpromisoa eskatuz.

Argi bat piztu da, beraz. Ardura politikoz jokatu nahi duen edonork pozik hartuko luke albistea eta aukera aprobetxatu. Baina espainolek beste behin ere beste norabide bat hartu gura izan dute. ETA erakundearen erabakia nahikoa ez dela esateaz gain (zerbait izango al da noizbait nahiko?), euren garaipen poliziazlengatik dela esan dute batetik, eta gezurra dela bestetik. Contradictio manifesta. Eta bitartean alderdi sozialista bere burua espainiar hiritarren aurrean gogor dagoela erakustearren, jendea atxilotzen. Eta bitartean, Espainia Estatuko komisaldegietan euskal herritarrak torturatzen, epaitegietan kartzelaratzen eta manifestazioak debekatzen eten gabe. Betiko kantu zaharra garai berri itxaropentsuak zapuzteko. Kantu zahar hau amaitzen ez dela dirudi, eta etsigarri bihur daiteke. Baina izan dira espainiarrek egun duten jarrera bera izan duten estatu inperialistak aurretik eta horiek ere azkenean malgutu egin behar izan dute euren jarrera. Euskal Herriari ere iritsiko zaio bere txanda, Ares eta Rubalcaben diskurtsoek sinistea zaila egiten badute ere. Batik bat, herri honetako sektore zabal batek hasi duen bidea tinkotasunez jarraitzen bada, eskenatoki demokratiko bat lortu arte, non ideia eta proiektu guztiak ez diren defendagarriak soilik izango, baizik eta baita gauzagarriak ere.

**"ETAren erabakia gezurretakoa eta poliziaren lanagatik dela diote"**

**"Lehen ere malgutu behar izan dute estatu inperialistek"**

Goienkaria

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • E05 Basabe Poligonooa • 20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Asteburuko erredakzioaren arduraduna** Iker Barandiaran **Erredakzioa** Jon Berezibar, Ander Monedero, Larraitz Ugarte, Julen Iriondo **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Ibarra kalea 6 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale • **Difusioa:** 4.383 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

# Herriak

**Arrasate** > 14 **Bergara** > 16 **Oñati**> 18 **Aretxabaleta** > 19 **Eskoriatza** > 19
**Antzuola** > 20 **Aramaio** > 20 **Elgeta** > 20 **Leintz Gatzaga** > 20




**> ARRASATE**
Urtebete luze jo du irratia sortzeak, baina dagoeneko martxan da Itxungi Irratia **> 15**



**> BERGARA**
Gazteendako ur jolasak urte bukaerara arte egingo dituzte Agorrosinen **> 16**



**> ARAMAIO**
Zaintza zerbitzua jarri dute San Martin Eskolan; oraingoz bost ume dituzte goizero **> 20**



Erretiratuek bete egin zuten areto nagusia. JON BEREZIBAR

**ABAROA ELKARTEA** > ETXALUZE ERAIKINA

# Etxe argitsu, handi eta erosoa estreinatu dute herriko erretiratuek

**INAUGURAZIOA**
Eguenean zabaldu zituzten eraikin berriaren ateak askari eder batekin

**IKUSMIN HANDIA**
Jendetza gerturatu zen inaugurazíora ikusminez eta jakin-min handiz

**JON BEREZIBAR** > ARRASATE

Ikusmin handiz pilatu ziren erretiratuak eraikin berriko ateetan inaugurazio egunean eta azkenean estreinatu dute Etxaluzeko eraikina: argitsua, goxoa eta espazio handikoa. Karta-joko eta dantzaldietarako –horiek dira-eta eurei galdetuta kuttunen dituzten jarduerak – prest daukate "luxuzko" etxea, bertan izan zen Ino Galparsoro alkateak esan moduan. Taberna handi eta argitsuan zain zeukaten oturuntza, eta sartzeko nahitaezko zuten bazkide txartela eguneratua izatea. Agiria eskuan, Jose Riviere elkarteko presidentearen berbalditxoa entzunda, leporaino bete zuten erretiratuek taberna.

**JAKIN-MINA**

"Jakin-min handia" zegoela ondo zekien Rivierek berak, eta David Artzamendi presidente ohia alboan zuela azaldu zuen azken egunetan jendea etengabe egon dela leihoetatik barrura begira. Eraikinaren espazioari eta girotze baldintzei nabarmengarri deritze Rivierek, eta baita ere goiko solairuko lau gelei, pentsa adina erabilera eman dakizkienei. Hala ere, oraindik funtzionamendu osoan ikusteko itxaron egin beharko dute, baina "behin altzari eta ordenagailuak ekarrita, eraikin honek polito emango du jokoa" Rivieren ustez. Galparsoro ere iritzi bertsukoa da, eta espero du "eraikin hau, Etxaluze izena daukana, luzea bezain zabala eta irekia izan dadila herritarrendako". Adineko jendearentzako eraikin "aproposa eta nahikoa" izatea ere espero du alkateak.

Eguenean ateak ireki bazituzten ere estreinaldi ofiziala, dantzaldi eta guzti, barikuan izan zuten bazkideek Maritxu Kajoi eguneko jaiarekin. Taberna ezagututa, eraikin osoa ikustea geratzen zaie bazkideei oraindik; goiko solairua itxita izan baitzuten inaugurazioan. Ez hori bakarrik, lehen solairuan billar gela, ile-apaindegia eta podologoaren gela dauzkate deskubritzeko zain.



Jose Riviere eta David Artzamendi, lehen planoan. J.B.

**ARRASATE** > MARITXU KAJOI

# 'Marielkartasuna' mirari, kajoian Maritxu batek bestea ordezkatuta



Arrasateko plaza jendez bete zen miraria ikusteko; iluntzeko 20:30ean Marijaia agertu zen parrokiako kajoian, Maritxuren ordez. JOSETXO ARANTZABAL



Eskapularixo barik ez dago Maritxu Kajoi festarik. JOSETXO ARANTZABAL



Neska taldea, elegante jantzita eta animoso. JOSETXO ARANTZABAL

## Marijaiak Maritxu Kajoiren lekua hartu zuen une batez, jai herrikoiak aldarrikatuz

**JULEN IRIONDO** > ARRASATE

Egubakoitz iluntzea; 20:30ak jotzear; plazako argiak itzali dira; jendeak garrasi. Plazako argiak itzali dira, eta Maritxu Kajoiren aldareko suziriak piztu. Plaza betea dago, goitik behera jendez. Txaranga *Maritxu nora zoaz* ari da jotzen; eta plaza saltoka, plaza guztia saltoka, hasi aurretik eta atzera. Suzirien kea mirarian lagun; kajoian, ke artean ezkutatu da Ama Birjina, eta Marijaia azaldu.

Komisiñuak jai herrikoien aldeko aldarria egin gura izan du aurtengo festan. Komisiñoko kide Haritz Zubiateren arabera, udaberrian beste herri batzuetako jai batzordeekin batera egindako bileran sortutako ideia jarraituz, eta ikusita "hainbat eraso" zeudela, Maritxu Kajoi egunean ere eskapularixoan *Jaiak bultzatuz* leloa jartzea erabaki zuten.

### BI LAGUN GOGOAN

Jaia bultzatu, eta egin egin zuten arrasatear eta kanpotik etorritakoek; jaia egin, baina ez daudenak gogoan izanda, batez ere bi lagun: azken urtebete honetan hildako Joseba Iglesias eta Joxepa Arregi.

Haiek gogoan, giro ederra izan zen egun osoan Arrasateko kaleetan. Goizetik atera zen jende ugari, txikiteoa eta bazkaltzeko elkartu. Iluntzean, herriko konpartsa txikiak eta txarangak girotu zituzten bazterrak. Nahiz eta aurten jende gutxiago ibili den.



**Aitor Arregi eta Justo Alzua**
Arrasate

"Bera jauntxoa da eta ni morroia. Berarendako lan egitera etorri naiz gaur, orain ere makila eusten ari natzaio. Guk dagoeneko egin dugu egin beharrekoa, gure jaia amaitu da. Ez dakit ordu txikiak arte ibiltzeko sasoirik edukiko dugun. Maritxuri eutsi egin behar zaio, eta beste batzuei ere bai. Bizkai aldean ari dira zerbait asmatu guran; Arrasaten egin behar dena da, orain 'Joni berbenas' atera, Maritxu pareko San Juan, alegia".



**Igor Urra, Aitor Maltras eta Anje Pildain**
Arrasate

"Oso ondo dago Maritxu Kajoi eguna. Jende asko dago eta oso ondo pasatzen dugu. Loreak saltzen ari gara, dirua lortu eta litxarkeriak erosteko. Afari bat ere egingo dugu. 70 euro ditugu dagoeneko, eta 100 lortu nahi ditugu. Ea gaur noiz arte uzten diguten gurasoek kalean geratzen, 1:00era arte edo".



**Maitane Axpe eta Janire Fernandez**
Eskoriatza eta Aretxabaleta

"Oso ondo doa eguna. Poteora atera gara, eta bazkaria eduki dugu. Orain Miraria ikustera etorri gara. Maritxutara beti etortzen gara. Horrelako dotore ateratzeko lagundu egiten digute, niri izebak eta berari ile-apaindegikoak. Nik bihar lanera joan behar dut eta ikusiko dugu noiz arte ibili".



Azoka egun polita izan zuten baserritarrek. Irudian, Iruatz Garaikua baserriko Felix Azkargorta. LARRAITZ ZEBERIO



Umeen arreta azokako animaliendako izan zen. JOSETXO ARANTZABAL



Oñatiarrek, zapatuan, gustura edan zuten sagardoa. JOSETXO ARANTZABAL

**OÑATI** > HERRI EGUNA

# Azokan, aurten, jende gutxiago, baina primerako generoa

Gaur, Errosaixo Bixamona eguna, mozorrotuta irtengo dira kalera oñatiarrak; San Migel jaiotako azken eguna dute

**LARRAITZ ZEBERIO** > OÑATI

Primerako giroarekin egin dute aurten Oñatiko Herri eguna. Inpresio orokorra izan da, baina, aurreko urteetan baino jende gutxiago ibili dela azoka ikusten. Hori bai, herriko baserritarrek kalera jaitsitako generoa primerakoa zen. "Etxeko onena", Leibar baserriko Maria Jesus Eizagirren esanetan. Baserritarren batzordeak antolatzen du urtero azoka hori eta aurten 55 erakuslek parte hartu dute. Barazkiak, frutak, gaztak, loreak eta landareak zeuden ikusgai Unibertsitate ondoan. Beste aldean, berriz, ardiak, bildotsak, ahariak, behiak, astoak, behorrak, zaldiak, euskal txerri bat zazpi txerrikumerekin eta oiloak. Horretaz gain, artisauak zeuden Unibertsitateko klaustroan eta 24 postu sagardo Herriko plazan.

**GAZTA ONENAREN SARIA, ESTU**

Luze jo zuen gazta onenaren aukeraketak. 17 gazta aurkeztu ziren lehiaketara eta puntuazio oso estuarekin Aldai baserriko Nestor Altzelairendako izan zen, azkenean, lehenengo saria. "Bigarren sariak eskuratu izan ditut, baina lehenengorik ez orain arte". Gazta bat, "apalean zegoen lehengoa" aukeratu omen zuen.

## Sari nagusiak

**BARAZKI LEHIAKETA**
> M. Jesus Eizagirre (Leibar)

**FRUTA LEHIAKETA**
> Felix Azkargorta (Iruatz Garaikua)

**ARDI LEHIAKETA**
> Imanol Barrena (Zelakua)

**BILDOTS LEHIAKETA**
> Imanol Barrena (Zelakua)

**AHARI LEHIAKETA**
> Imanol Barrena (Zelakua)

**GAZTA LEHIAKETA**
> Nestor Altzelai (Aldai)



JOSETXO ARANTZABAL

**ARRASATE** > SKATE FESTA

# Skate saioak, grafitiak eta DJ Balza

Nerabeek gustuko dituzten ekintzak dira eta zapatu arratsaldean koadrila bat baino gehiago hurbildu ziren AEDk antolatutako skate festara. Hezitzaileen gidaritzapean eta Arrasateko Arrasta skate elkarteko gazteen laguntzarekin erakustaldi politak ikusi genituen Bedoñabeko jolastokian. Bertaratzen direnek, gainera, eskolako horman ikusiko dute gazteek egindako grafitia. Irailaren 25ean eguraldi kontuengatik atzeratutako jaia zen zapatuan Bedoñaben egindakoa.



JOSETXO ARANTZABAL

**ARAMAIO** > UNTZILLA

# Giro onaz, gustura jaietan

Aste bukaeran jaiak izan dituzte Aramaioko Untzilla auzoan. Gustura ibili direla esan digute Murumendi elkartean. Barikuko auzo afarian 60 bat lagun elkartu ziren eta Anjel Mari Peñagarikanoren eta Andoni Egañaren bertsoekin luzatu zuten afalostea.

Zapatuan pailazoak, dantzaldia eta bolo txapelketa izan zituzten besteak beste. Aurten, Aretxabaletako Gaizka Mondragonek eraman du txapelketako lehenengo saria.

**EKONOMIA** > 2010-2011KO ZERGAK

# Datorren urtean zergak ez izoztea proposatuko du Ogasun batzordeak

Iaz izoztu egin zituzten zergak, baina 2010-2011n ezingo dute hori egin, Udalak berak dirua behar duelako

PP abstenitu egin zen Ogasun batzordearen batzarrean eta Alternatibak eguenean jakinaraziko du botoa

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Badatoz 2010-2011rako ordenantza fiskalak. Bestela esanda, datorren urtean arrasatearrek ordaindu beharreko zergak zenbatekoak izango diren zehaztuko dituzte udal ordezkariek. Ezustekorik ezean, datorren astean egingo dute hori, urriaren 8an (eguena), orduantxe egingo dueta udalbatzarrak osoko bilkura (19:00etan). Eta derrigorrezkoa da osokoaren onespena zerga proposamenak aurrera egiteko.

**KPI-REN IGOERA**

Hain justu, Ogasun batzordeak proposatu duena da datorren urteko zergetan %2ko igoera orokorra aplikatzea; hau da, Kontsumo Prezioen Indizeari dagokion igoera aplikatzea.

Horrek esan gura du aurten ez dituztela zergak izoztuko, iaz moduan. Jakina, arrazoia da Udalak berak ere dirua behar duela herriaren eta erakundearen funtzionamendurako; besteak beste, inbertsioak egin ahal izateko eta zorrei aurre egin ahal izateko. Jakinekoa da-eta, 2009-2010 jardunerako aurreikusita zeuden proiektu asko ezin izan dituztela gauzatu Udaleko diruak bestelako beharretarako erabili dituztelako; larri dabiltzan herritarrendako, adibidez.

Hori horrela, zergen igoera orokorra %2 izatea proposatuko du Ogasun batzordeak, baina salbuespenak ere izango dira igoera orokor horretan.

**URA ETA KIROLDEGIA GEHIAGO**

Salbuespen horietako bat da ura %3,5 igoko dutela, Uren Kontsorzioak berak igoera hori aplikatuko duelako.

Beste salbuespen bat kiroldegiarena da. Kasu horretan, eta argindarraren eta BEZaren igoerak baldintzatuta, %3,8ko igoera izango dute kiroldegiko prezio orokorrek.

Kiroldegiko prezio igoeraren barruan, baina, izango da baita ere salbuespenik, sarrera orokorra, helduei dagokiena jaitsi egingo dute-eta: gaur egun 6,10 euro ordaindu behar da; bada, datorren urtean 5 euro pasa ordaindu beharko dute.

Eta salbuespen modura kontsidera daiteke, baita ere, ondasun higiezinen gaineko zerga. Izan ere, hor ere %2ko igoera aplikatuko duten arren, igoera hori ez da erreala izango, etxeen edo eraikinen prezioen azken urteotako balio-galeraren eraginez.

**ONARTZEKOTAN**

Horixe da, beraz, Ogasun batzordearen proposamena, azken ordukorik ezean, eguenean bere horretan onartuko dutena. Izan ere, eta udal iturrien arabera, ez da kontrakotasun handirik espero alderdi politikoen aldetik.

Hori bai, alderdi popularra abstenitu egin zen proposamena bozkatzerakoan eta oraindik ez dago oso argi osoko bilkuran zein izango den PPren botoa.

**PP-REN ZALANTZAK: GARAIA**

"Zalantza batzuk ditut", azaldu dio GOIENKARIAri Itziar Lamarain PPko bozeramaileak. "Ez da larregiko igoera zergetan aplikatzea proposatu dutena, Udalak baliabideak behar ditu ordaindu beharrekoak ordaintzeko, eta igoera parametroetara egokitutakoa da, ez da gehiegizkoa. Baina Udala konprometitu den zenbait ordainketarekin ez nago ados, batez ere kontuan hartuta diru hori guztia herritarren poltsikoetatik atera behar dela eta zein den gaur egungo egoera. Adibidez, ez nago ados Garaia Berrikuntza Guneari Udalak egin behar dion ekarpenarekin. Dirua eskatu diote Udalari, eta bere garaian Udalak eman zuen dirua. Garaiaren kudeaketa ona ez bada, ez dute zertan arrasatearrek ordaindu".

**ALTERNATIBA-ZUTIK**

Bestalde, Alternatiba-Zutik koalizioak oraindik ez du bere botoa jakinarazi; Ogasun batzordea sakon aztertu gura dute eta "osokoan emango dute aditzera" zela bozkatuko duten, Ander Rodriguez bozeramailearen esanetan.

DATUA

**%2**

**IGOERA**

2010-2011ko zergak %2 igoko dira, batez beste; hau da, Kontsumo Prezioen Indizeari dagokion indizearen parera igoko dira. Hala proposatu du Ogasun batzordeak.

SALBUESPENAK

### Ura, kiroldegia eta IBIa dira salbuespen

Zergen igoera orokorretik kanpo hiru zerbitzu geratuko dira: uraren kontsumoarengatik %3,5-eko igoera aplikatuko dute, Uren Kontsorzioak berak igoera hori aplikatuko duelako. Kiroldegiko zerbitzuen prezioak, berriz, %3,8 igo dituzte, BEZaren argindarraren prezioaren igoerak eraginda. Kiroldegiko prezioen kasuan, aplikatu dute igoera, ohi duten moduan, ikasturte hasieran aplikatzen dituztelako.
Eta ondasun higiezinen gaineko zerga %2 igoko duten arren, igoera ez da erreala etxe eta eraikinen prezio-galerarengatik.



JOSETXO ARANTZABAL

## Bi asteko atzerapenarekin dabil igogailua

Bizkaia etorbideko igogailuaren obrak bukatzear daude, xehetasunak besterik ez dira falta, baina ezin bukatu dabiltza, eta uste baino atzerapen handiagoarekin dabiltza igogailua luzatzeko obrak.

Hain justu, orain dela bi aste behar zituzten bukatuta obrok, baina abuztuan atzeratzen hasi ziren, Orona enpresakoei materiala falta izan zitzaielako.

Orain, Arrasateko Udalak gura zuen oraingo aste honetan zabaldu ahal izatea igogailu publikoa osoosorik, baina "ez dira iritsi leihoen itxiturak eta ateak; eta segurtasun kontuengatik, ezin dugu zabaldu. Bestela, guztia dago bukatuta: oinezkoen pasabidea eginda dago...", azaldu dute Hirigintza Sailetik.

**ARRASATEKO UDALA**

## Babes ofizialeko etxeak eta beste, gaur

**U.M.** > ARRASATE

Zerrajerako babes ofizialeko etxebizitzak berbagai izango dituzte gaur, astelehena, Udal Gobernuak egingo duen batzarrean. Visesak, etxeon promotoreak, Arrasateko Udalari egin dizkion hainbat proposamen aztertuko dira.

Bestalde, Altamiran oinezkoen ibilbidea luzatzeko eskaera jaso dutela-eta, hori ere aztertuko dute. Eta obra kontuetan, berriz, oztopo arkitektonikoak kentzen segitzeko egin beharreko lanak zehaztuko dituzte.

Eta beste gai bat aipatzearren, Pablo Uranga kaleko erlijio zentroak eragindako zaratengatik ipinitako salaketa mahai gainean izango dute.

Mikel Arregi > Itxungi irratiko kidea

# "Edonork ezin dezake saio bat egin eta gura duena esan; horien ahotsa izan gura dugu"

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

**Eurek egindako saioak emititzen hasteko ordua iritsi dela dio Mikel Arregi (Arrasate, 1985) Itxungi irrati libreko kideak. Urtebete luze jo du irratia sortzeak, baina orain dena dago gertu. Astebete eskas da FMko 107.0 dialean dagoela Arrasateko irrati librearen ahotsa.**




Mikel Arregi, Itxungi irratiak gaztetxearen eraikineko bigarren solairuan duen egoitzan. JOKIN BEREZIARTUA

**Itxungi irrati librearen oihartzuna aspaldi hasi ginen entzuten. Baina noizko airean?**

Duela astebete dela dago airean Itxungi irratia, FMko 107.0 dialean. Oraingoz, beste irrati libre batzuen emisioekin ari gara gure parrilla betetzen, baina espero dugu laster guk ekoiztutako saioak emititzen hastea, urriko bigarren astean-edo.

**Zuen programazioaren aurrerapentxo bat egiterik bai?**

Oraindik ez ditugu saioen izenak erabaki. Hori bai, martitzen gauetan magazinea egongo da, baita kultura arloko hainbat saio ere. Zinema, musika eta bertsogintzaren gaineko saioak egongo dira, esaterako. Sexualitatearen gaineko beste saio bat ere egingo dugu.

**Duela urtebete, gutxienez, izan genuen Itxungi irratiaren berri. Zergatik ez zarete oraindik zuen saioak emititzen hasi?**

2009ko udaberrian hasi zen bidaia. Orduan ikusi genuen beharra zegoela irrati libre bat sortzeko herri mailan; lan handia egin zen: lokala egokitu zen –gaztetxearen eraikineko bigarren solairuan dago–, materiala erosi zen... Baina airera salto egiteko une hartan gelditu egin zen proiektua, koordinazio arazoengatik edota ilusio faltagatik.

Hala, proiektua bertan behera atzera bueltarik gabe geratzear zenean, lau lagun elkartu eta bultzada bat eman genion. Orain, emititzen hasteko moduan gaude.

> **"Proiektua atzera buelta barik geratzear zenean, bultzada eman genion; orain, gertu gaude"**

**Arrasaten irrati libre baten beharra dagoela aipatu duzu. Noren ahotsa izan gura duzue?**

Itxungi irratiko kideok ikusten dugu herritarren ahotsa entzuteko orduan komunikazio gabezia dagoela. Edonork ezin dezake saio bat egin eta bertan gura duena esan. Ez herri mailan, eta are gutxiago gure herritik kanpo. Horien ahotsa izan gura dugu, Herriaren eta herritarren ahotsa.

**Nola lortu duzue proiektua aurrera eramateko dirua?**

Diru iturri nagusiak gaztetxean egin ditugun musika jaialdiak izan dira, iaz eta aurten egin ditugun *Itxungi Rock* jaialdiak, hain zuzen. Laguntza handia eman digu jaialdi horietan lortutako diruak, oso pozik gaude. Diru iturri izateaz gain, kultura eskaintza moduan arrakastatsuak izan direla deritzogu. Horrez gain, hasieran gure poltsikoetatik ere jarri genuen dirua.

Orain, irratiaren etorkizuna bermatzeko eta dirua modu erregularragoan lortzeko beste ekimen batzuk antolatzen ari gara.

ATE IREKIAK

## Herritarrek egina, herritarrendako

Itxungi irrati librean parte hartu gura duenarendako ateak zabalik daude gaztetxeko bigarren solairuko egoitzan. Lantaldea domeka arratsaldeetan biltzen da, gaztetxean. Hala ere, irratiko kideek argi utzi gura izan dute AGAKOtik kanpo dagoen ekimena dela Itxungi irratia. Datorren zapatuan, urriak 9, ate irekien jardunaldi antzeko bat egingo dute. Helburua izango da egoitza ikusi eta irratiaren oinarrizko nondik norakoak ezagutzera ematea. Hala, irrati batek nola funtzionatzen duen erakutsiko da. Eta noski, probatu ostean nahi duenari saio bat egiteko aukera emango zaio. Izan ere, herritarrek eginda eta herritarrendako da Itxungi irratia.

**GAZTERIA** > AISIALDIA

# Gazteendako hiru ikastaro Gazte Bulegoan

Gazteria Sailak tailerrak antolatu ditu: tratu onen plazera, sukaldaritza eta kustomizazioa

J.B. > ARRASATE

Udaleko Gazteria Sailak hiru ikastaro antolatu ditu urritik abendura bitarterako: kustomizazioa, hasiberriendako sukaldaritza eta tratu onen plazera. Zabalik dago izena emateko epea, Gazte Bulegoan: 943 25 20 65 telefonora deitu edo *gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net* helbide elektronikora idatzi behar da.

**HIRU TAILER, HIRU HELBURU**

Kustomizazio ikastaroaren helburua norberaren sormena bultzatzea izango da, erabiltzen ez diren arropa eta osagarriei beste erabilera bat emateko. Ikasleek aipatutako elementu horiek birdiseinatu eta berrerabiliko dituzte. Itsaso del Rey izango da irakaslea eta urriaren 13tik azaroaren 1era bitartean izango da, Kulturaten, eguaztenero, 18:00etatik 20:00etara.

Hasiberriendako sukaldaritza ikastaroa, bestalde, herrira datozen ikasle berriei edota etxeko sukaldean laguntzen hasi nahi dutenei zuzenduta dago. Meritxell Estany izango da irakaslea eta tailerrak urriaren 19tik azaroaren 30era arte iraungo du. Martitzenetan elkartuko dira, 18:00etatik 20:00etara, Lanbide Hastapenean.

Azkenik, tratu onen plazera Emakume Txokoarekin batera antolatutako ikastaroa da eta bertan, sexismoa, amodio erromantikoak eta jendarte indarkeriaren inguruko irizpide kritikoa landuko dira. Edurne Mendizabal izango da irakaslea eta azaroaren 12an –16:00etatik 20:00etara– eta 13an –10:00etatik 14:00etara– elkartuko dira, Kulturaten.



Sukaldean hasiberri direnendako sukaldaritza ikastaroa egongo da. GOIENKARIA

> EMAKUME TXOKOA

### Feminismoaren alde blogen bitartez egiteko tailerra

Emakume Txokoaren eta Jabetze Eskolaren eskutik, blogen gaineko tailerra egongo da urriaren 13an, 15ean eta 16an. Ikastaroarekin, sare digitalak emakumeei eskaintzen dizkien jabetze-aukerak atzeman nahi dituzte, blogen mundua ezagutuz. Izenematea bihar, urriak 5, amaituko da.

> IBAI ARTE

### 4.000 euro erosketetarako, azaroaren 30era arte

Ibai Arte elkarteak aurrera segitzen du Ibai-Arte txartela indartzen. Azaroaren 30era arte 4.000 euro banatuko dituzte erosketetan gastatzeko. Hau da, 10 euroko 400 sari banatuko dituzte txartela erabiltzen dutenen artean. Bezeroak unean bertan jakingo du saritua izan den edo ez.



Askotariko puzgarriak jartzen dituzte igerileku handian. GOIENKARIA

**UDALA** > KIROL ZERBITZUA

# Gazteendako ur jolasak urte bukaerara arte Agorrosinen

Hilean behin egingo dira ur-topaketok, lehena urriaren 16an; 14 urtera artekoei zuzenduta dago

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Orain arte izandako erantzuna ikusita –batez beste 60 lagun ibili dira jardunaldiko–, ur jolasak berriz antolatzeko erabakia hartu du Udaleko Kirol Zerbitzuak, Agorrosingo igerilekuan.

Urte bukaera arteko hiru saio izango dira: urriaren 16an, lehenengoa; azaroaren 20an, bigarrena; eta abenduaren 18an, hirugarrena. Hirurak zapatuan izango dira, bi orduz, 17:00-19:00 ordutegian, hain justu ere. Urte bukaera arteko datak eman arren, datorren urtean ere antolatuko dituztela aurreratu dute Kirol Zerbitzutik.

**HANDIAN EDO TXIKIAN**

Adinaren araberako bi mailatan ibiliko dira umeak igerilekuan: 8 urtera artekoak igerileku txikian ibiliko dira eta 8 urtetik 14 urtera artekoak, berriz, igerileku handian.

Begiraleei dagokienez, bi egongo dira. Hala eta guztiz ere, ume txikitxoenen kasuan, guraso edo arduradun batekin ibili beharko dute, eta beti igerileku txikian.

Ur-topaketa horietan parte hartzen dutenek askotariko jolasak egin ahal izango dituzte: jolas gidatuak egongo dira, uretako saskibaloia, jauzi lehiaketak, harrapaketa jokoak... Eta horrekin guztiarekin batera hainbat puzgarri ere egongo dira.

Kontuan hartzekoa da, bestalde, ur jolasak dauden egunetan, igerileku handiko lau kale bideratuko dituztela ur jolasetara. Hori horrela izanik, sei kale geratuko dira igerilariek erabiltzeko.

**JENDARTEA** > ARGAZKILARITZA

# Photoshop bidezko eta oinarrizko argazkilaritza ikastaroak antolatu dituzte

Ikastaroak azaroan izango dira eta izenematea zabalik dago, urriaren 20a bitartean; plaza mugatuak dira

**M.B.** > BERGARA

Photoshop bidezko argazkilaritza ikastaroa eta oinarrizko argazkilaritza ikastaroa antolatu ditu Udalak azarorako.

Photoshop bidezko argazkilaritza ikastaroari dagokionez, hastapen eta sakontze mailak egongo dira, eta batean zein bestean parte hartzeko ezinbestekoa izango da Windows sistema ezagutzea.

**HASTAPEN ETA SAKONTZE MAILAK**

Photoshop bidezko argazkilaritza ikastaroko hastapen mailari dagokionez, azaroaren 2tik 11ra bitartean izango dira eskolak, astelehenetik eguenera –14 ordu– Miguel Altuna institutuan, 19:00-21:00 ordutegian. Ikastaroaren prezioa 40 euro da; 30 euro, ikasle, langabe eta erretiratuendako.

Sakontze mailaren kasuan, eskolak azaroaren 15etik 25era izango dira, astelehenetik eguenera –16 ordu–, Miguel Altuna institutuan, 19:00-21:00 ordutegian. Izenematea horretan ere 40 euro da; 30 euro, ikasle, langabe edo erretiratu izanez gero.

Bi ikastaroetan izena eman nahi izanez gero, 60 ordu izango da prezioa; 50, ikasle, langabe edo erretiratu izanez gero.

Plaza mugatuak dira –24 lagun– eta bergararrek lehentasuna izango dute. Plaza kopurua baino jende gehiagok izena emanez gero, izena emandakoen artean zozketa egingo dute.

**OINARRIZKO ARGAZKILARITZA**

Oinarrizko argazkilaritza ikastaroari dagokionez, azaroaren 2tik 24ra izango dira eskolak, astelehen, martitzen eta eguaztenetan –22 ordu–, 19:15-21:15 ordutegian, Pol-Pol argazkilari taldearen egoitzan –Zabalotegi 5–. Ikastaroaren prezioa 50 euro da; 30 euro, ikasle, langabe edo erretiratu izanez gero.

Kasu horretan ere ikasle kopurua mugatua izango da –15 lagun– eta Bergarakoek lehentasuna izango dute. Plaza kopurua baino jende gehiagok izena emanez gero, izena emandakoen artean zozketa egingo dute.

**IZENEMATEA ZABALIK DAGO**

Photoshop bidezko ikastaroetan eta oinarrizko argazkilaritzakoan izena emateko epea dagoeneko zabalik dago.

Horretarako, kultura etxera jo behar da (Errotalde jauregia) edo 943 77 91 59 telefono zenbakira deitu. Izena emateko mugaeguna azaroaren 20a da.

**UDALA** > KULTURA

# Aroztegi aretoan erakusketa jartzeko izenemate epea zabaldu du Udalak

Interesatuek azaroaren 9ra arte dute eta eskariak Udal Erregistroan aurkeztu behar dira



Irudian Aroztegiko erakusketa bat. GOIENKARIA

**M.B.** > BERGARA

2011n Aroztegi aretoan erakusketa jartzeko eskaera epea zabaldu du Udalak, azaroaren 9ra arte.

Urtero bezala, Aroztegiko programazioaz arduratzen den batzorde mistoak –Udaleko Kultura Zerbitzuaren barruan sortutakoa– eskaera guztiak aztertu ondoren aukeraketa egin eta urteko programazioa egingo du. Programazioa ez da osatuko, derrigorrez, aurkeztutako eskaera guztiekin. Eskaera aurkezteak ez dakar berarekin programazioan onartua izateko eskubidea. Horrez gain, aurkeztutako eskaeretatik kanpo interesgarriak izan daitezkeen beste erakusketa batzuk ere antolatu ahal izango ditu batzorde mistoak.

**ARETOA ERABILTZEKO BALDINTZAK**

Artista bakoitza arduratuko da erakusketa muntatu eta desmuntatzeaz. Batzordeak adierazitako epean ez bada erakusketa jartzen edo epea amaiturik erretiratu gabe baldin badago, jarri duen fidantza galdu egingo du eskatzaileak. Horrez gain, zehaztutako epeak gainditzen dituen egun bakoitzarengatik 30 euroko diru-zigorra ezarriko zaio eskatzaileari.

Udalak debalde utziko dio artistari aretoa, eta hark dohainik egingo du han erakusketa. Bestalde, erakusketarako sarrera ere debalde izango da, eta publiko osoari irekia. Era berean, batzorde mistoak erabakiko du erakusketaren ordutegia. Eta Udalak ez du erakusten diren objektuen kalte, urraketa edo lapurreten erantzukizunik hartuko; ezta segururik kontratatuko.

Eskaera orria aurkeztu behar da Udal Erregistroan azaroaren 9ko 13:00ak baino lehen. Eskaera orria eta baldintzak eskura daitezke *www.bergara.net* helbidean.

TOBACCO ROAB
(Blues, Gasteiz)
+
SAMBA BRASIL
(Cavaquinho)
Urriaren 8an, egubakoitzean, 21:00etan
KAI TABERNA

**POLITIKA** > ELKARTASUNA

# Jose Luis Elkororen aldeko plataformak batzar irekia deitu du biharko, martitzena

Osoko bilkuren aretoan izango da, 19:00etan, eta herritar guztiei egiten diete joateko gonbita

**M.B.** > BERGARA

Jose Luis Elkoro Libre! plataformak batzarra deitu du biharko, martitzena, 19:00etan, osoko bilkuren aretoan. Elkororen askatasuna lortzea helburu duen plataformak ekimenak antolatzen jarraituko du eta horretan interesa duten herritar guztiei egiten diete gonbita batzarrera.

Hain zuzen, batzarrean, aurrera begira programatuta dituzten ekimen berriak nola antolatu aztertuko dituzte. Plataformako ordezkarien esanetan, ideia berrien artean dago Martutenera autobus martxa egitea. "Plataformako kideen artean horretarako gogo bizia nabaritu" dutela aurreratu dute plataformako kideek.

**ESKERRAK PARTE-HARTZAILEEI**

Aurreko zapatuan kirol martxan parte hartu zuten guztiei eskerrak eman nahi dizkiete plataformako kideek: "Plataforman dihardugunok gure esker ona adierazi nahi diegu ekimen horretan parte hartu zuten guztiei. Nabarmendu nahi dugu martxa hura aurrera eramateko kirolariek egin duten esfortzu handia; halaber, Hondarribian, Hernanin, Zarautzen, Deban, Mutrikun, Ondarroan, Lekeition eta Elgoibarren jendeak eman digun babesa eta erakutsi duten motibazioa". Era berean, Bergaran martxaren azkeneko 200 metroak oinez egin zituzten "adin, esparru eta iritzi askotariko" herritarri ere eskerrak eman nahi dizkiete eta azpimarratu dute horrek adierazten duela jendearen haserrea nabaria dela, ez delako "bidezkoa" Elkoro 75 urterekin espetxean egotea.

> TEKNOLOGIA BERRIAK

## 'Emakumeak sarean' prestakuntza ikastaroetan izena emateko epea zabaldu dute KZgunean

Urritik abendura bitartean emango dira *Emakumeak sarean* prestakuntza ikastaroak. Proiektu horren bidez informazioaren eta komunikazioaren teknologiak emakumeengana eta emakume elkarte eta taldeetara gerturatu nahi dira. Ikastaroan hainbat lantegi progresibo emango dira, emakume taldeendako bereziki diseinatuak. Ikastaroaren data eta ordutegia taldeetara egokituko dira.

Parte hartu nahi dutenek izena eman behar dute KZgunean edo *www.kzgunea.net* helbidean. Informazio gehiagorako deitu Emakundera, 945 01 67 00 telefono zenbakira, edo jo *http://emakumeaksarean.wordpress.com* helbidera.

## oharrak

ERRETIRATUAK

**> San Joxepen salgai dute Gabonetako Loteria**

San Joxepe elkartetik jakinarazi dutenez, dagoeneko salgai jarri dute Gabonetako Loteria egoitzako tabernan eta elkartearen bulegoan. Horrez gain, Internet, informatika eta Excel ikastaroak ere egingo dituzte laster. Informazio gehiago, bulegoan.

KINTADA

**> 1968an jaiotakoek afaria egingo dute urriaren 30ean**

Izenematea da urriaren 15a baino lehen –10 euro aurreratuta–, Deportivo tabernan.

UDALA

**> Udalak 2011n kaleratuko duen egutegirako argazki bila dabil**

Egutegia aurreko urtekoen tankerakoa izango da, baina aurten gai monografiko bati buruzko argazkiz hornituko du. Landuko den gaia da: etxe-atariak, etxesarrerak, ateak, aldabak.... Egutegirako aukeratutako argazkiak ordaindu egingo dituzte eta Udal Artxibategian jasota geldituko dira. Bestalde, egutegian publizitatea jarri nahi duten herriko dendari, ostalari, enpresa, talde, ikastetxe eta abarrei ere deia zabaldu nahi diete. Argazkia aurkezteko edo publizitatea jartzeko interesa dutenek Udaleko Euskara Zerbitzura deitu behar dute (943779129), urriaren 20a baino lehen.

MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA

EXCELENCIA EUROPEA · AENOR Empresa Registrada ER-0528/1998 · IQNet · INVESTOR IN PEOPLE

**LANGILE ETA LANGABETUENTZAT PRESTAKUNTZA**

**IKASTAROAK %100 DIRUZ LAGUNDUTA**

Euskal Herriko Lanbide Kualifikazioen Sistemari lotzen zaion katalogo modularra.

| MEKANIKA ALORRA | |
|---|---|
| Tornu konbentzionaleko mekanizazioa. | 80 or. |
| Fresatzeko makina konbentzionaleko mekanizazioa. | 80 or. |
| CNC tornuko programazioa. FAGOR 8050/55 T | 40 or. |
| CNC tornuko programazioa. FANUC. | 40 or. |
| CNC fresatzeko makinako programazioa. FAGOR 8050/55 M | 46 or. |
| CNC fresatzeko makinako programazioa. HEIDENHAIN. | 46 or. |
| CNC tornuko programazioa eta exekuzioa. FAGOR 8050/55 T | 46 or. |
| CNC tornuko programazioa eta exekuzioa.. FANUC | 40 or |
| CNC fresatzeko makinako programazioa eta exekuzioa. HEINDENHAIN | 46 or. |
| CNC fresatzeko makinako programazio eta exekuzioa. FAGOR 8050/55 M | 46 or. |
| CNC sarpen bidezko elektrohigaduraren prestaketa eta programazioa. | 30 or. |
| CNC hari bidezko elektrohigiduraren prestaketa eta programazioa. | 30 or. |
| Abiadura handiko mekanizazioa. | 50 or. |
| CAD. UNIGRAPHICS. | 30 or. |
| CAM. UNIGRAPHICS. | 20 or. |
| 3Dko Diseinu Mekanikoa. SOLID WORKS. Modelaketa eta planoak. | 30 or. |
| 3Dko Diseinu Mekanikoa. SOLID WORKS. Multzoak. | 30 or. |
| 2Dko Marrazketa /irudikapen grafikoa. AUTOCAD. | 40 or. |
| Planoen irakurketa. | 50 or. |
| Saiakuntza Suntsitzaileak eta ez Suntsitzaileak. | 40 or. |
| Elektrodo bidezko Soldadura eta erdiautomatikozkoa. | 55 or. |
| TIG Soldadura | 55 or |
| Lan arriskuen prebentzioa. Oinarrizko maila. | 40 or. |
| Tratamendu Termikoak eta Metalografia. | 60 or. |
| Egiaztapen dimentsionala. | 40 or. |
| Hirudimentsioko Egiaztapena. MCOSMOS. | 40 or. |
| Automatismo hidraulikoak. | 36 or. |
| ZUBI-GARABIEN erabilpena. | 17 or. |
| JASOKETA ESKORGEN erabilpena. | 23 or. |
| **ELEKTRIZITATE ARLOA** | |
| STEP7-300 Automata Programagarriak. Oinarrizko maila. | 35 or. |
| STEP7-300 Automata Programagarriak. Maila aurreratua. | 40 or. |
| Muntaia Domotikoak. I. Maila. Sistema zentralizatuak. | 40 or. |
| Muntaia Domotikoak. II. Maila. BUS EIB. | 60 or. |
| Automatismo elektroteknikoak. | 40 or. |
| Etxebizitzetako instalazio elektrikoak. | 60 or. |
| Megafonia-instalazioen muntaia eta mantenua. | 30 or. |
| Telefonia-interkomunikazio instalazioen muntaia eta mantenua. | 30 or. |
| Antena-instalazioen muntaia eta mantenua. | 30 or. |
| Segurtasun-instalazioen muntaia eta mantenua. | 30 or. |
| Eguzki-instalazio fotoboltaikoen muntaia eta mantenua. | 30 or. |
| Komunikazio Industrialak. PROFIBUS – DP | 40 or. |
| Baimendutako instalatzaile karneta lortzeko ikastaroa. | 100 or. |
| **ADMINISTRARITZA ETA INFORMATIKA ARLOA** | |
| PYMEen Administrazioa eta Merkaturatzea. AGOPE. | 60 or. |
| Nominak eta Gizarte Segurantza. | 60 or. |
| Kontabilitate-analisia. | 85 or. |
| Aplikazio informatikoak administrazioan. | 80 or. |
| Dokumentu informatikoen elaborazioaren kudeaketa. | 75 or. |
| Textu-tratamendua. WORD. | 30 or. |
| Datu-basea. ACCESS. | 30 or. |
| Kalkulu-orria. EXCEL. | 30 or. |

Ikastaroen hasiera data izen emateen araberakoa izando da. Hasiera batean ikastaroak astelehenetik ostegunera, 18:00etatik 20:30etara izango dira, kontuan hartuko direla erreleboka lan egiten duten ikasleak.

EUSKO JAURLARITZA · GOBIERNO VASCO · UNIÓN EUROPEA Fondo Social Europeo · HOBETUZ

**Informazio gehiagorako edo izena emateko:**
**IEFPS Miguel Altuna**
**Ibargarai 1 • 20570 Bergara • Tel.: 943 76 70 49 • Faxa: 943 76 38 41 • email: formakuntza@imaltuna.com**

**HIRIGINTZA** > LANAK

# Atzeko kalea oinezkoendako egokituko da datorren urtean

## Iturritxo tabernatik hasita Urtaza dendaraino galtzada-harriak jarriko dituzte

## Merkatariek zamalanak egin ditzaten, ordu zehatz batzuetan piboteak jaitsi egingo dituzte

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Atzeko kalea oinezkoendako egokitzeko proiektua onartu zuen udalbatzak aho batez iraileko osoko bilkuran. LKSk egindako proiektuaren arabera, Iturritxo tabernatik Urtaza dendaraino jarriko dituzte galtzada-harriak. Hain zuzen ere, bebarru eta denda sarrera gehien dagoen kale zatian.

Lanak 2011n egingo dituzte, baina proiektua orain onartu dute, Eusko Jaurlaritzak halako lanak egiteko ematen duen dirulaguntza eskaera egin ahal izateko. Eskaera irailaren 30a baino lehen aurkeztu behar zuen Udalak. Gehienez ere, 90.000 euroko dirulaguntza jaso ahalko du. "Gutxi gorabehera, aurrekontuaren erdia estali gura dugu Jaurlaritzaren laguntzarekin. Gainerako dirua 2011ko aurrekontutik hartuko dugu", esan digu Lourdes Idoiaga alkateak.

**ESANAK**

**"Plataforma itxura izango du kaleak, eta espaloia eta errepidea maila berean egongo dira. Auzotarrek eskertuko dute"**

**Lourdes Idoiaga** > Alkatea

### ESPALOIA ETA ERREPIDEA

Atzeko kalean Kale Barrian bezalako sistema erabiliko dute. Alegia, oinezkoendako egokituko dute, baina, merkatariek zamalanak egin ditzaten, ordu batzuetan kaleak zabaldu egingo dituzte. Hori horrela, Boga tabernaren parean eta Urtaza dendaren ondoan piboteak jarriko dituzte. Eguneko ordu zehatz batzuetan Atzeko kalean autoarekin ibili ahalko da, Kale Barrian eta Kale Zaharrean egiten den moduan.

Galtzada-harriak ipintzen dituztenean, espaloia eta errepidea maila berean egongo dira. "Plataforma itxura izango du kaleak, elementu guztiak maila berean egongo dira. Hori bai, espaloia eta errepidea bereizteko galtzada-harri ezberdinak ipiniko dituzte", dio alkateak. Gainera, eserlekuak, lorontziak eta zakarrontziak jarriko dituzte.

Bestalde, Motxon kalean lanak egingo dituzte. "Motxon kaletik Atzeko kalera joateko errepidean aldaketak egin beharko ditugu. Auto askok bide hori hartzen dute herri gunera joateko. Biribilgunea edo itzulbidea jarri beharko dugu", dio alkateak. Lan horiek Atzeko kalekoekin batera egingo dituzte.



Autoak eta oinezkoak Atzeko kalean, martitzenean. MIREIA BIKUÑA

**DEIALDIA**

# Bake epailearen ordezkoaren aukeraketa

## Deialdia Gipuzkoako Aldizkarian kaleratu ondoren aurkeztu ahalko dira eskaerak

**M.B.** > OÑATI

Herriko bake epailearen ordezkoa aukeratzeko prozesua martxan jarri dute. Orain arteko baldintza berberak erabiliz, lau urterako ordezkoa aukeratuko dute.

Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean kaleratzen denean, eskaerak aurkezteko epea zabalduko dute.

### ABOKATUENDAKO PRAKTIKAK

Bake epailearen ordezko izan gura duten hautagaiek 18 urte beteta izan beharko dituzte, euskaraz eta gaztelaniaz jakin beharko du eta ezingo du abokatu edo prokuradore moduan lanean jardun. Gainera, ezingo du kargu politiko edo sindikalik eduki.

Eskaera guztiak batu ondoren, hautaketa prozesuan baloratuko dituzte: hizkuntza eskakizunaren egiaztagiria, bakarkako elkarrizketak edo idatzizko azterketa, eta ikasketak. Azken puntu horren harira, Zuzenbidean lizentziadunak direnek jasoko dute balorazio onena, karrera amaierako praktikak egiteko lanpostu egokia da-eta.



MIREIA BIKUÑA

# Masterreko ikasleak hasi dira eskolan

Oñatiko Lege Soziologia Institutuan hasi dira master eskolak ematen. Herrialde askotariko 17 ikaslek dihardute unibertsitatean. Besteak beste, Nepaldik, Italiatik, Txinatik, Kolonbiatik, Indonesiatik, Argentinatik, Errumaniatik, Perutik eta Kamerundik etorritako ikasleak dira. Sei hilabetez, apirilera arte, masterra egingo dute. Hori horrela, euren integrazioa bultzatzeko *Friendship* programa deitu du berriro Lege Soziologia Institutuak. Atzerriko ikasle horiek ezagutu eta eurekin hartu-emanak sendotu gura duten herritarrek 943 71 88 85 telefonora dei dezakete (Susana Arrese), edo *susana@iijs.es* helbidera mezua idatzi. Irteerak eta beste hainbat ekitaldi egin ahalko dituzte apirilera arte.

## oharrak

DEIALDIA

**> 1970ean jaiotakoek kintada egingo dute**

Bazkaria egingo dute Etxe Aundi jatetxean urriaren 16an. Interesatuek 30 euro sartu beharko dituzte lehenbailehen Euskadiko Kutxako 30350005340051042653 kontu zenbakian.

DEIALDIA

**> Diapositiba emanaldia Txirrinka taldearen eskutik**

*Al Himalaya en bizikleta* delako diapositiba emanaldia egingo dute Aurora eta Ruben gasteiztarrek urriaren 14an, 19:00etan, kultura etxean. 2007an bizikletaz egindako bidaiaren kronika egingo dute.

DEIALDIA

**> Odol-ateratzea egingo dute egubakoitzean**

Odol emaileen taldekoak Txantxiku ikastolako gelatan egongo dira 18:00etatik 20:00etara. Hurrengoa egingo dute azaroaren 12an.



Ametzaga inguruan egiten dabiltzan lanak. M.A.

**ARETXABALETA** > AUTOBIDEAREN KALTEAK

# Udalak hasi ditu kalteak konpontzeko lanak

Apotzagaetxebarri eta Izurieta auzoetako hainbat gune berreskuratzen dabiltza asteotan

Izurietara doan bidea Bidegik konponduko du; markatuta dago, baina hasiera datarik ez dute esan

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Eibar-Gasteiz autobidearen lanek eragindako kalteak oraindik konpontzeko daude gurean. Irailean hasiko zituztela iragarri zuten, eta Udala, hain zuzen, hasi da berreskuratze lan horiek egiten Apotzagaetxebarri eta Izurietako hainbat gunetan; Bidegik hitzarmen bidez Udalaren ardurapean utzitako lanak dira.

Hirigintza Saileko arduradunek jakinarazi dute zein lan diren hasitakoak: Ametzagako bidearen konponketa lanak –119.387 euro– eta Izurieta iparraldekoak –17.054 euro–; Apotzagaetxebarriko tunelaren irteera albotik Salluente ermitara doan bidearen hobekuntza –96.982 euro–; Apotzagaetxebarriko maldan egin zituzten bideak kendu eta malda hori berreskuratzeko lanak –34.904 euro–; eta Egileor baserri osteko bideak ere egiten ari dira –68.914 euro.

**IZURIETAKO BIDEA, MARKATUTA**

Lanik garrantzitsuenak, baina, Bidegiren eskuetan daude eta ia 800.000 euroko kostua daukate. Batetik, GI-3920 (Aretxabaleta-Aramaio) errepide zatia konponduko dute, Basagoitiko bidezubiaren eraikuntza obrengatik kaltetua gertatu zen zatia, hain zuzen. Eta bestetik, Izurieta auzora doan errepidearen (GI-3132) bide-zorua berrituko dute.

Lanok esleituta daude, baina Udaleko Hirigintza Saileko ordezkariek ez dakite noiz hasiko dituzten. "Oraindik ez dugu jaso Izurietako proiektua, ezta GI-3920 errepidearen desbideraketa proiektua ere. Dena dela, badakigu Izurietako errepidea markatzen ibili direla, lanak hasteko", argitu dute. Data zehatzaren berri, baina, ez dakite.

**ERRETIRATUAK** > EKITALDIAK

## Karta joko txapelketa eta Andaluziara bidaia egingo dituzte Basotxoko kideek urrian

Ile-apaindegia bihar jarriko dute abian, berritze lanak egin eta gero; astelehenetan izan ezik, egunero egongo da zabalik

**M.A.** > ARETXABALETA

Aretxabaletako erretiratuek ekitaldi mordoa egin gura dituzte urrian. Datorren astean, esaterako, lehen sorospen ikastaroa daukate –hilak 13 eta 14–. Debalde da, baina izena aurrez eman behar dute interesatuek, bihar eta etzi, Basotxon.

Urriaren 18tik 25era, ostera, Andaluzia aldera joango dira: Cadiz, Chiclana, San Fernando, Ubrique, Sevilla, Jerez de la Frontera eta beste hainbat herri bisitatuko dituzte. Oraindik lekua dagoela autobusean jakinarazi dute zuzendaritza batzordeko kideek eta bazkideez gain, bazkide ez direnak ere onartuko dituzte. Interesatuak pasa daitezela egoitzatik eta argibide guztiak emango dizkiete.

Eta urrian karta joko txapelketa egin gura dute Basotxon; musean, tutean eta briskan jokatuko dute. Bazkideendako bakarrik da eta sari politak izango dituzte. Lehenbailehen eman behar da izena, datak adosteko.

**ILE-APAINDEGIA BIHARTIK**

Bestalde, Basotxoko ile-apaindegia itxita egon ostean, bihar zabalduko dute. Karmele Arana izango da ile-apaintzailea, eta hona ordutegia: martitzenetik egubakoitzera, 09:00-13:00 eta 15:00-19:00; zapatuetan, 09:00-13:00.

**ESKORIATZA** > DIRULAGUNTZAK

# Autoenplegua sustatzeko laguntzak emango ditu Udalak

Eskoriatzan erroldatuta egon behar du eta lan jarduna bertan izango du sortutako enpresak

Iragarkia GAOn argitaratu ostean, 15 egun izango dituzte interesatuek eskaera bideratzeko

**M.A.** > ESKORIATZA

Autoenplegua sortzeko laguntzen oinarriak onartu zituen udalbatzak joan den eguaztenean egindako osoko bilkuran. Oinarri horiek autoenplegua sustatzeko dirulaguntzak arautzen dituzte. Orain, jendaurrean jarriko dituzte ikusgai, eta erreklamaziorik egon ezean behin betiko onartuta geratuko dira.

**BETE BEHARREKO BALDINTZAK**

Laguntza horien helburua da eskoriatzarrek enpresa txikiak sortzea herrian bertan. Gainera, atzeraeragina izango dute; hau da, 2009an eta 2010ean jarduera hasi dutenek ere diru mailegua eskatu ahal izango dute baldintzak betez gero. Eta baldintzen artean honakoak daude: Eskoriatzan erroldatuta egotea gutxienez urtebetez; INEMen izena emanda egotea enpresa abian jarri aurreko bi hilabeteetan gutxienez; bideragarritasun proiektua aurkeztea –enplegu bat edo gehiago sortuko dituena–; eta Eskoriatzan bertan izatea lan jarduna sortutako enpresak.

**5.000 EURO ARTE**

Dirulaguntza eskaerok udaletxean aurkeztu behar dira, oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 15 eguneko epean. Udal teknikariek baloratuko dituzte eskaintza horiek eta Ogasun Sailak gero proposamena aurkeztuko dio alkatetzari, hark erabakia har dezan.

Aurkeztutako guztiek ez daukatela zertan jaso dirulaguntzarik iragarri dute, eta gehienez ere 5.000 euro eskuratuko ditu sustatzaile bakoitzak. Laguntza hori erabili beharko dute eraikuntza lanetarako, instalazioetarako, altzari eta informatikako ekipoendako... Udalak kontratua sinatuko du laguntza jasoko duenarekin eta adostuta geratuko dira proiektuaren helburua, lan egutegia, gastuak justifikatzeko modua eta beste hainbat kontu.

**oharrak**

ARETXABALETA

**> Ohiko ordutegia dute udal zerbitzuek gaurtik**

Orain arte udako ordutegia izan dute hainbat udal zerbitzuk, tartean udaletxekoek; bada, gaur hasita goiz eta arratsaldez izango dituzte ateak zabalik: 08:00-13:00 eta 14:00-17:00.

BERBALDIA

**> Kirolaren gaineko berbaldia eguenean Arkupen**

Ane Remedios eta Ane Coranti adituek berbaldia egingo dute hilaren 7an (19:00): *¿Te conviene el deporte que practicas?*

INTERNET

**> Arratsaldeetan dago zabalik KZgunea (16:00-20:00)**

Markole auzoko KZgunea arratsaldez zabalduko dute urrian. Izenpe txartela eskuratzeko aukera dago bertan eta hainbat ikastaro egin daitezke. Argibideak eskatzeko: 943 25 23 51 edo *tutor.aretxabaleta@kzgunea.net.*

> INGURUMENA

**Errekan Gora eguna zapatuan, hilak 9, egingo dute**

Eguraldi txarraren ondorioz atzeratutako Errekan Gora eguna zapatuan egingo dute Eskoriatzan. Plazan elkartu (11:00) eta erreka garbitzera joango dira. Izena eman behar da parte hartzeko *ingurumena@eskoriatza.net* helbidean edo egunean bertan.

IRIARTE
Umeen denda
•
Helduen lentzeria

Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA



Aratz Amenabarrek egiten die harrera umeei goizero eta haiekin ibiltzen da jolasean ludoteka txikian. SAN MARTIN

**ARAMAIO** > HEZKUNTZA

# Zaintza zerbitzua jarri dute San Martin eskolan

Oraingoz bost erabiltzaile dituzte goizero, 08:00etatik 09:00etara; noizbehinkako zerbitzu puntuala ere eskaintzen dute

**EDU MENDIBIL** > ARAMAIO

Umeen zaintza zerbitzua abian da dagoeneko San Martin ikastetxean. Aratz Amenabar aramaioar gaztea ari da, goizero, umeei harrera egiten San Martingo ludoteka txikian. Oraingoz, 2 eta 5 urte bitarteko bost ume joaten dira zaintza zerbitzura 08:00etatik 09:00etarako tarte horretan.

Ikastetxeak eta guraso elkarteak aspalditik zeukaten esku artean zaintza zerbitzuaren ideia. Irailaren erdialdean egin zuten deialdia pertsona bat kontratatzeko eta, esan bezala, Aratz Amenabarrek dihardu. Poliki-poliki erabiltzaile kopurua handitzen joatea espero dute. Nekane Arrondo San Martin ikastetxeko zuzendariaren arabera, noizbehinkako zerbitzu puntuala ere ematen diete interesatuei, aurrez abisatuta. Erabiltzaileen gurasoek, hilero, 43 euro ordaintzen dute zaintza zerbitzuagatik.

**GRIPEAREN AURKAKO KANPAINA**

Aramaioko kontsultategiko profesionalek gogoratu dutenez, gripearen aurkako kanpainak urriaren 31ra arte iraungo du. Aurreko urteetan bezala, txertaketa 65 urtetik gorako guztiendako izango da, eta baita gaixotasun kronikoren bat duten 65 urtetik beherakoendako ere; esaterako, diabetesa edo bihotzeko, biriketako edota giltzurruneko gaixotasunen bat dutenendako. Txertoa hartzeko kontsultategira joan behar da, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 13:00etara. Etxean dauden ezinduak euren mediku edo erizainarekin harremanetan jar daitezke txertoa etxean jartzeko. 65 urtetik gorakoak zuzenean joan daitezke, bolanterik gabe, txertoa jartzera.

**ZUIAKO ARGAZKI LEHIAKETA**

*Zuiako Koadrilari begirada bat* argazki lehiaketan parte hartzeko epea urriaren 20ra arte dago zabalik. Zuiako udaletan ateratako argazkiak aurkeztu beharko dira.

**ANTZUOLA** > DEIALDIA

## Argazki lehiaketan parte hartzeko epea zabaldu dute: azaroaren 5era arte izango da

XVI. argazki lehiaketa izango da aurtengoa; parte-hartzaileek udaletxean aurkeztu beharko dituzte lanak, gehienez hiru

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ANTZUOLA

Kultura Sailak abian jarri du XVI. argazki lehiaketa. Antzuolan jaio edo bizi den edonork parte har dezake lehiaketan. Lanak aurkezteko azken eguna azaroaren 5a izango da, udaletxean.

**GAIA LIBREA IZANGO DA**

Argazkietako gaia librea izango da. Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, hiru argazki aurkeztuko ditu; lanak koloretan edo zuribeltzean aurkez daitezke. Argazkien euskarria 30x40 zentimetro izango da derrigorrez eta euskarri horren barruko argazkiaren neurria, gehienez, 25x35 zentimetro izango da.

**HIRU TALDETAN BANATUTA**

Parte-hartzaileak hiru taldetan banatuko dituzte: 6 eta 12 urte bitartekoak; 13 eta 18 urte bitartekoak; eta 19 urtetik gorakoak.

90 euro eta 20 euro bitarteko sariak banatuko dituzte eta parte-hartzaile bakoitzak sari bakarra jaso ahal izango du.

Gainera, epaimahaiak hala erabakiz gero, sariren bat hutsik gera daiteke. Lanak baloratzerakoan, kalitate teknikoa eta artistikoa eta adierazteko originaltasuna hartuko dituzte kontuan.

**ELGETA** > BIZIKLETA GUNEA

## Entrenamenduak, ikastaroak eta erakustaldiak egiteko

Erabilera libreko bizikleta gunea urria amaitu aurretik prest egotea aurreikusten dute udaletxean; aurrekontua 1.386 euro da

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Harrera ona izan du herrian skate parke berriak. Laster baten gazteek bigarren azpiegitura bat izango dute erabilgarri; San Roke ostean egitekoa den bizikleta gunea. Osokoak martitzenean eman zion argi berdea proiektuari.

**IGOERAK ETA JAITSIERAK**

Atletismoko pista baten egitura izango du zirkuituak, igoerak eta jaitsierak izango ditu eta erdian lurra pilatuko da hura ere erabili ahal izateko. Entrenamenduak egiteko eta ez dakienari bertan ibiltzen erakusteko izango da pista berria. Segurtasun neurriak betetzeko itxitura ipiniko zaio hertzetan. Derrigorrezkoa izango da, gainera, pistan kaskoa erabiltzea eta 14 urtetik beherakoek gurasoek lagunduta ibili beharko dute bertan.



Lur mugimendua San Roke ostean. L.Z.

**LEINTZ GATZAGA** > TXAPELKETAK

## Gatzagakoek gertatutako buztana, Gipuzkoako onena

Maritxu Plazaolak eta Beni Altunak irabazi dute erretiratuen gastronomia txapelketa

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Gipuzkoako erretiratuen elkarteen arteko gastronomia txapelketa egin zuten Donostian joan den astean eta Maritxu Plazaolak eta Beni Altunak ez dutela parekorik sukalde kontuetan erakutsi zuten. Zezen buztana gertatu zuten Gipuzkoako zazpi elkarteetako bikote ordezkariek, eta epaimahaiak gatzagarrei eman zien lehenengo saria.

**IAZ ERE FINALEAN**

Debagoieneko erretiratuen elkarteen artean jokatutako kanporaketa irabazi zuten lehenengo Toki Eder elkarteko Plazaolak eta Altunak irailaren 13an eta finalean egoteko txartela eskuratu. Iaz ere izan ziren gastronomia txapelketako finalean –legatza gertatu zuten orduan–;< hortaz, bazekiten ez zela batere samurra izango saria eskuratzea. Baina gatzagarrek buztan benetan goxoa gertatzen dakitela erakutsi zuten beste sei elkarteetako ordezkarien aurrean. Eta hainbat sukaldarik eta adituk osatutako epaimahaiak onenaren garaikurra eman zien. Sinistu ezinik zeuden Jose Riviere presidentearen eskutik saria jasotzerakoan, baina oso pozik.

**MUSEAN ERE ONENAK**

Ez dira izan herrira garaikurra ekarri duten bakarrak; izan ere, Aretxabaletako San Migel jaietan jokatutako mus txapelketako sari gehienak gatzagarrek eskuratu zituzten. Lehenengo saria Juan Mari Makazaga eta Patxi Alonsorendako izan zen; hirugarrena, Xabier Jausororendako; eta laugarrena, Seferino Elkorobarrutia eta *Matxain*-endako.



**> FUTBOLA**
Aretxabaletarrak 1-0 nagusitu dira aste bukaerako derbian **> 22-23**



**> ESKUBALOIA**
Bergarako taldeak 20-25 galdu du txapelketako lehen norgehiagoka **> 24**



**> JOSEBA MOLINERO**
"Oso gogorra izan da, baina pozik nago egin dudan urtearekin **> 27**

# Ziklistak pozik, mendi bizikleta martxan egindako aldaketekin

**ONERAKO**
Ibilbide aldaketa parte-hartzaileen gustukoa izan zen

**GIPUZKOARRAK**
Ibarrekoak izan ziren ziklista gehienak, eta gipuzkoarrak ere asko

**IKER BARANDIARAN** > BERGARA

Arrakastatsua izan zen atzo, domeka, Bergaran Lokatzak antolatu zuen mendi bizikleta martxa: arrakastatsua, batetik, aurreko urtean baino jende gehiagok parte hartu zuelako; bestetik, aldatutako ibilbidea parte-hartzaile gehienen gustukoa izan delako; eta hirugarrenik, eguraldi ederra izan zutelako.

Aurten 175 ziklistek esku hartu dute, iaz baino 18 gehiagok. Horietatik bost, emakumezkoak. Antolatzaile ibili den Unai Asurmendiren esanetan, "halako martxatan ikusten diren zenbakietarako, bost bada zerbait, baina bada ordua neska gehiago animatzeko; hemendik gonbidapena".

Bestalde, ibilbideak aldaketa nabaria izan du; aurten Asentzio eta Elgetako inguruetatik ibili dira, aurreko urteekin alderatuz ibilbide bigunago eta laburragoan. Hala ere, bi aukera jarri zituzten: bata, 28 kilometrokoa eta bestea 22koa. "Aukera eman dugu, baina guztiek luzea hartu dute", azaldu du Asurmendik.

**ZUHAITZ BAT BIDEAN**

Jardunaldiko arazo bakarrak izan dira ziklista batek sorbaldan min hartu duela; eta proba hasi baino lehenago, pinu handi bat aurkitu dutela bide erdi-erdian. Antolatzaileek esan digute haizeak botako zuela, baina beste batzuen ustetan norbaitek moztu du ibilaldia oztopatzeko. Hala ere, guztia primeran joan da.



Debagoiendarrak izan ziren parte-hartzaileen erdia baino gehiago. JOSETXO ARANTZABAL



Azkonabietan oztopo izan zen pinua hainbat elgetarrek jaso zuten. J.A.



Pozik ibili dira ziklistak Lokatzak prestatutako ibilbide berrian. J.A.



**Iker Herran**
Bergara

"Ondo ibili naiz, lasai. Aldaketa polita izan da, aurreko urteetako ibilbidea gogorregia zelako; gainera, inguruak oso politak dira. Bestalde, haizeak ez dit kalte egin eta giroa oso ona izan da".



**Mikel Aristi**
Bergara

"Gogorra egin zait gaurko ibilbidea; ez nuen ezagutzen eta une batez galdu egin naiz. Nik nahiago dut aurreko urteetako ibilbidea. Bestalde, giroa ona izan da, denok gatozelako ondo pasatzera".



**Jon Larrinaga**
Elorrio

"Hiru lagun etorri gara Elorriotik, eta lehenengo aldia izan da niretzat. Ez dakit biguna edo gogorra den, baina gustatu zait ibilbidea; gainera inguruetako batzuk ezagutzen nituen".



**Izaro Lasa**
Zumarraga

"Normalean errepidean ibiltzen naiz, eta mendian teknika handiagoa behar da, baina ondo moldatu naiz. Ibilbidea gustatu zait, ez da zaila izan, eta azkeneko jaitsiera oso ederra izan da".



**Ana Llunta eta Inma Rafael**
Hondarribia eta Atxondo

"Aurretik egonak ginen Bergaran eta egin duten aldaketa gustatu zaigu: ibilbide hau errazagoa da, eta politagoa gainera. Hobe halakoak, disfrutatzeko onenak dira-eta".

**OHOREZKO ERREGIONALA** > LAUGARREN JARDUNALDIA

# Bergara ondoen ari zenean gola eginda irabazi du derbia Aretxabaletak

Etxekoak hobeto hasi ziren, baina mahoneroek gora egin zuten gero

Atsedenaldira iristear, gola jaso eta bederatzirekin amaitu zuten kanpokoek




Borroka gogorra izan zuten Aretxabaletako eta Bergarako jokalari guztiek, argazkian Oruetak e

**ARETXABALETA**
**1-0**
**BERGARA**

**Aretxabaleta** > Agirregabiria, Raul (Alain, 73. min.), Amutxastegi, Kerman, Beñat, Igartua, Jonan (Iñaki, 59. min.), Pastrian (Jokin, 83. min.), Aitor (Barbero, 68. min.), Orueta eta Gillen (Ion, 75. min.).

**Bergara** > Rezola, Elorriaga, Garitano, Nafarrate, Oregi, Iñurrieta (Balzategi, 63. min.), Azpiazu (Crespo, 56. min.), Agirre, Cabanillas (Arazkonaga, 60. min.), Ilzarbe (Navas, 79. min.) eta Catalan (Macho, 75. min.).

**Golak** > 1-0: Aitor, 43. minutuan.

**JULEN IRIONDO** > ARETXABALETA

Puntu premian iritsi ziren Aretxabaleta eta Bergara Ibarrako derbira, denboraldiko aurreneko hiru jardunaldietan partidu bakarra baitzuten irabazita batzuek zein besteek. Batzuek hobeto hasi eta besteek gutxinaka neurria hartu, hamaika hamaikaren aurka ibili ziren denboran gertatutakoa ikusita, berdinketa zatekeen agian emaitzarik justuena, baina Bergarak ezin izan zion aurre egin atsedenaldira iristear jasotako kolpeari, eta are gutxiago bigarren zatiko jokalari galerari.

Hobeto ekin zion partiduari etxeko taldeak. Aretxabaleta baloia ukitzen eta behetik jokatzen ahalegintzen zen bitartean, Bergararen jokoa gehiago zen atzean eutsi eta luze jokatu, aurrelarien bila.

Aukera garbirik ez zuten, dena den, ez batzuek, ez besteek. 28. minutura arte ez zen batere izan. Gillenek erdiraketa ona egin zuen ezker hegaletik, eta baloi ederra geratu zitzaion Jonani; baina ez zion ondo eman, eta kanpora joan zen zuzenean.

Handik bi minutura bigarren aukera, estrategia jokaldian. Pastrianek zuzenean atera jo zuen falta arearen ezkerreko ertzetik; polito bota zuen, baina kanpora joan zitzaion.

**BERGARAK HOBERA**

Lehenengo ordu erdiaren ondoren, poliki poliki hasi ziren mahoneroak gora jotzen, eta aurreneko aukera ere laster izan zuten, nahiz eta ez eurek sortuta: bergararren atzealdetik baloi luze eta loratu bat atera zen; UDAren defentsa atezainari baloia buruz ematen ahalegindu zen, baina baloiak aterako bidea hartu zuen eta Agirregabiriak gogotik luzatu behar izan zuen gorputza kornerrera bidaltzeko.

Handik lau minutura, berriz, eskuin hegaleko ia hondoko marratik erdiraketa ona atera zuten bergararrek, lurrera botata urrundu zuen baloia Aretxabaletako atezainak eta Ilzarberi joan zitzaion oinetara. Boleaz goxo eman zion, baina langa gainetik kanpora.

Gutxinaka ari zitzaion Bergara UDAri errespetua sartzen, baina orduan iritsi zen partiduko jokaldi onena, eguneko gol bakarra ekarri zuena: barneraldi bikaina egin zuen Amutxastegik ezkerretik erdialderantz; Pastrianekin eta Aitorrekin hormarena birritan egin eta azken horri geratu zitzaion baloia area txikian, mahoneroen atezainaren aurrean bakar bakarrik. Ez zuen hutsik egin. Atsedenaldira iristear zen partidua, gol psikologikoa deitzen den horietakoa beraz.

Lehenengo zatian haizea alde izan zuen Aretxabaletak –gogotik jo zuen, falta batzuk taldekideek baloia eskuarekin eutsita jo behar izan zituzten–, eta kontra Bergarak. Bergarari haizea alde jarri zitzaionean, baina, beste dena jarri zitzaion kontra. Aurrena gola, eta gero txartel gorriak. 53. minutuan ikusi zuen Oregik lehenengo horia, Pastriani falta egiteagatik. Bergarako atezainak erraz geratu zuen falta jaurtiketa, eta bizkor atera. Bizkor ,baina gaizki. UDAko jokalari bati eman zion baloia, eta Oregik berriz ere egin zuen falta atzetik. Bigarren horia eta kalera. Gero, 84. minutuan, Barberok bizkarra hartu zien baloi luze batean atzelari aretxabaletarrei, eta Nafarratek moztu zion bidea. Azken jokalaria zen eta honek ere behar baino lehenago hartu behar izan zuen aldageletarako bidea.

Bi txartel gorrien artean, bigarren gola egiteko hiru aukera on izan zituen Aretxabaletak. Aurrenekoa Iñakik: falta bateko aldaratzea buruz errematatu zuen, baina kanpora joan zitzaion gutxigatik.

## 2 eta 1 irabazi dio Antzuolak Tolosari

Erregional preferente mailako laugarren jardunaldian lortu du Antzuolak lehenengo garaipena. Aurreneko minutuetan tokirik hartu ezinda egon ostean, atsedenaldirako makina bat aukera sortu zituzten etxekoek, eta gol bat egin ere bai. Ikerrek, buruz, estrategia jokaldian. Bigarren zatia hasi eta berehala berdindu zuen Tolosak, eta gerora bi taldeek izan zituzten aukerak, baina bigarren gola Antzuolak egin zuen, Zaranek zehazki –argazkian, goleko jokaldia–.





JOSETXO ARANTZABAL




ta Iñurrietak moduan. JOSETXO ARANTZABAL

Handik minutu gutxira, etxekoek arean jarri zuten baloia falta jaurtiketa batean; efekto handia zeraman, poliki poliki urruntzen atera bidean, baina UDAko hiru jokalari gertu ibili ziren arren, bat bera ere ez zen iritsi.

Igartuak izan zuen hirugarren aukera, korner batean. Lehenengo zutoinera atera zuen Iñakik, eta buruz errematea egin Igartuak, baina gutxigatik kanpora. Ordurako bederatzi jokalarirekin ari zela, baina, Bergarak era eman zion susto bat etxeko taldeari. Baloi luze batean Aretxabaletako atzelariak irrist egin eta areraino iritsi zen Macho. Bazuen atera jaurtitzeko modua, baina nahiago izan zuen atzelariari izkin egiten ahalegindu; ez zuen lortu, eta baloiak berari jo eta ateko sakea izan zen gainera. Hor amaitu zen partidua.

**Rafa Barrutia** > Aretxabaletako entrenatzailea

## "Patxada behar genuenean antsietatea izan dugu"

**J.I.** > ARETXABALETA

**Lortutako garaipenarekin gustura zen derbiaren amaieran UDAkoen entrenatzailea; hori bai, hobetzeko asko dagoela jakitun.**



J.I.

**Ez da erraza izan. Puntuak, garrantzitsuak.**

Bai, oso garrantzitsuak. Gainera, derbia izanda. Bi jokalari egotzi dizkiete eurei, baina lasaien jokatu behar genuenean antsietate larregi izan dugu, eta korapilatu egin gara apur bat. Jakin egin behar da horrelakoetan jokatzen.

**Saiatu zarete jokatzen, baina ez da ondoegi atera.**

Saiatu gara, baina patxada gehiago behar dugu, batez ere sorkuntza lerroko azken paseetan.

**Bergara ondoen zegoenean iritsi da zuen gola...**

Oso jokaldi polita izan da, ondo jokatu dugu baloia; horrek erakutsi digu futbolean era desberdinetara jokatu daitekeela. Futbol zuzena egin dezakezu edo baloia ukitu, eta ukitu dugun horietako batean egin dugu gola, agian bai, eurak arrisku gehien sortzen ari zirenean.

**Gauza asko daude hobetzeko...**

Noski baietz, egunez egun jarraitu behar dugu lanean, hobetzen. Partiduz partidu joan behar dugu, eta nire asmoa da taldeari lasaitasuna ematea; Hirugarren mailatik jaitsitako taldea izanagatik ez dugu derrigor goiko postuetan egon behar. Lasai joan behar dugu, jende gaztea dugu-eta.

**Eta orain Tolosa.**

Zaila izango da; aurkari zaila da, belar naturaleko zelaiarekin. Futbolean detaile txikiek erabakitzen dute dena, arlo fisikoan eta teknikoan asko berdindu da dena. Tolosara joan behar dugu jakinda nora goazen eta zertara jokatzera. Kategoria zaila da hau.

**Oskar Maiztegi** > Bergarako entrenatzailea

## "Hasieran eutsi eta gero gora egiteko asmoz atera gara"

**J.I.** > ARETXABALETA

**Emaitzarekin triste, baina bere jokalariek egindako ahalegina aitortuz mintzatu zaigu Maiztegi.**



J.I.

**Partidu trabatua izan da...**

Nahikoa ondo atera da UDA. Gu eustera atera gara, eta ondo egin dugu. Lehenengo minutuen ostean joan gara euren atera iristen, nahiz eta aukera garbiegirik ez sortu. Pena izan da atsedenaldira iristear gola egin digutela. Bigarren zatian borroka asko, baina joko gutxi egon da; haizeak ere zailtasunak jarri ditu. Saiatu gara, baina aurrena hamarrekin eta gero bederatzirekin geratuta zaila da. UDAri zorionak, eta beste batean izan beharko du.

**Ondoen zeundetenean, gola.**

Gure planteamendua zen hasieran eustea atzean, bagenekielako UDA gogor aterako zela, eta gero gora egitea, minutuak pasatu ahala erritmoak behera egiten duenean. Eta izan ditugu aukera batzuk, nahiz eta ez oso garbiak. Baina euren jokaldi on batean, gu ez gara defentsan ondo ibili eta gola egin digute.

**Eta txartel gorriek ere baldintzatu dute partidua.**

Bai. Bigarren zatian eta 1 eta 0 galtzen, ahalik eta ondoen atera nahi genuen, gogoz, euren atera iristeko. Baina hamargarren minuturako bi txartel hori bi minututan. Nik uste, gainera, lehenengoa ez dela izan. Aldapa gora jarri zaigu partidua, baina taldea ondo ibili da, ez du bukaerara arte burua makurtu, nahiz eta aukera garbiak izan ez. Eta 1 eta 0ekoa inoiz ez da segurua.

**Hurrengoa, Idiazabal etxean.**

Irabazi beharra dago, behean gaude-eta.

**OHOREZKO ERREGIONALA** > LAUGARREN JARDUNALDIA

# Aukera aprobetxatu ez eta Aloñak eta Mondrak porrot

Oñatiarrek garbia izan zuten lehenengo minutuan, eta gero bi gol jaso zituzten jarraian

Mondrak lortu zuen aurretik jartzea, baina hurrengo jokaldian galdu zuen abantaila

**J.I.** > ARRASATE

Partidu parekatua jokatu zuten zapatuan Azkoitian Anaitasunak eta Aloña Mendik. Tamalez, ordu erdi bikaina jokatu ostean, bost minutu txarretan joan zitzaien lehia eskuetatik oñatiarrei. Bi gol jaso eta ezin izan zioten emaitzari buelta eman.

Aloña Mendik izan zituen gola egiteko aukerak. Pablo Diezen mutilena izan zen partiduko aurrenekoa, lehenengo minutuan, baina Roberto Idigorasek ez zuen asmatu, Anaitasunaren atezainaren aurrean bakarrik zela. Beste pare bat aukera on ere izan zituzten Oñatikoek, baina azkoitiarrak izan ziren asmatu zutenak aurreneko zatia azken txanpan sartzen ari zela. Lehenengo golean jokaldi ona egin zuten Anaitasunakoek; Aloñako atzelariei bizkarra ondo harrapatu eta aurretik jarri ziren markagailuan. Bigarren golean, berriz, Oñatikoen hutsegiteak eta Azkoitikoen zorteak bat egin zuten, eta eskuin hegaletik egindako erdiraketa zuzenean sartu zen Aloñaren ate barrura.

Bigarren zatian ere jokoan agindu egin zuten Diezen mutilek, aukera on pare bat izan zituzten, baina ez ziren markagailua aldatzeko gai izan.

**MONDRA, 'ARGIRIK GABE'**

Oñatiarrei gertatutakoaren antzerako zerbait pasatu zitzaion Mondrari ere Real Unionen zelaian. Mondra, gainera, aurretik ere jarri zen Irunen, lehenengo zatia erdialdera iristen ari zela Ekainek Muruaren errematearen aldaratzea jaso eta baloia saretara bidalita.

Baina denboraldi honetan gehiagotan ere gertatu zaion bezala, gola egin eta berehala jaso egin zuen beste bat Mondrak; eta atsedenaldira iristear bigarrena ere bai, biak oso antzerako moduan, ezker hegaletik egindako erdiraketak errematatuta.

Real Unionek bigarren zatia hasi eta gutxira egin zuen azken 3 eta 1ekoa, eta hortxe amaitu zen partidua. Arrasatearren entrenatzaile Iban Rodriguezen esanetan, taldeak nahikotxo egin du hobera jarrerari eta inplikaziori dagokienez, baina jokoan gauza asko ditu hobetzeko.

Mondraren jokoak oraindik argi gutxitxo duela esan daiteke, eta honek izan dezake zerikusia partiduak prestatzeko Arrasatekoek dituzten zailtasunekin. Mojategiko argindar kableen lapurreta dela-eta, ganoraz entrenatu ezinda ari dira, eta egoera luzatzen ari da gainera.

**ESKUBALOIA** > EUSKADIKO TXAPELKETA

# Lehenengo zatian eustea lortu ostean, bigarrenean sei gol bakarrik egin zituzten

Muniategi: "Ez da partidu nekeza izan, baina gaizki jokatu dugu bigarren zatia"

Mikel Plazaola lesionatu egin zuten; ebakortza edo paleta dauka apurtuta

SORALUCE-BERGARA
**20-25**
PORTUGALETE

**Soraluce BKE** > Uribe, Etxeberriarte (3), Sudupe, Larrañaga, Ugalde (3), Plazaola (10), Orgaz, Sevillano, Urbina (2), Unamuno (2), Iparragirre, Agirre, Kapelastegi eta Vaz.

**Portugalete** > Framo (4), Rivera, Ramila (8), Fonseca I., Aranburu (6), Lozano Y. (1), Lozano R., Jaio (1), Roman (2), Linares (2), Gomez eta Fonseca A. (1).

**Emaitzak bost minuturo** > 3-1, 4-4, 5-7, 7-8, 13-10, 14-12, 15-16, 17-18, 18-19, 19-22, 19-22 eta 20-25.


Bergarako jokalari Gorka Ugalde jaurtiketa egiten.
JOSETXO ARANTZABAL

LARRAITZ ZEBERIO > BERGARA

Bergararrek ezin izan dituzte txapelketako lehenengo bi puntuak eskuratu. Zapatuan ondo hasi zuten norgehiagoka, baina Portugalete mailako talde beteranoa da eta partiduko azken minututan nabaritu egin zen hori. Atsedenean bergararrak ziren aurretik (14-12), baina bigarren zatiko lehenengo minutuak nahikoak izan zituzten bizkaitarrek berdindu eta aurrea hartzeko.

"Ez dakit zer gertatu zaigun", adierazi zuen partidu amaieran Josetxo Muniategi entrenatzaileak. "Nire ustez ondo jokatu dugu lehenengo zatian, eta bigarren zatian jende berdinarekin... ez dugu asmatu. Irabazteko aukerak izan ditugu, baina ez ditugu golak egiteko sortu ditugun abaguneak baliatu". Norgehiagoka amaitzeko zortzi minuturen faltan bi penalti eta kontra eraso bat izan zituzten alde etxekoek, baina ez ziren gauza izan. "Hor egon da partidua", zioen Muniategik. Entrenatzailea, bestetik, ez zegoen konforme epaileek egindako lanarekin. "Portugalete talde beteranoa da eta gogor jokatu dute. Epaileek, gainera, jotzen laga diete. Gure jokalari bat muturrean jo dute eta hortza apurtu diote", esan du.

**ARRASATEARREK GARAIPENA**

Ford Mugarriko mutilek, aldiz, 27-34 hartu zuten mendean Usurbilgo taldea. "Hasieratik jarri ginen aurretik", azaldu du Edu Orgaz entrenatzaileak. "Defentsan egindako lanarekin pozik nago, erasoan ere ondo aritu ginen, baina badugu zer hobetu".


JOSETXO ARANTZABAL

## Saskibaloi talde nagusien artean oñatiarrek bakarrik irabazi dute

Eskoriatzako neskek —irudian— ezin izan dute txapelketako lehenengo norgehiagoka irabazi. Bera Bera Gros taldeko jokalariak gehiago izan ziren kantxan eta 37-41 emaitzarekin gailendu ziren zapatuan Intxaurtxuetan jokatutako partidua.

Gizonezkoetan, Aloña Mendik eta Mondragon Unibertsitateak ere asteon eman diote hasiera Euskadiko txapelketari. Arrasatearrek ere kale egin zuten lehenengo norgehiagoka irabazteko saiakeran; 80-53 galdu zuten Donostian. Ez horrela oñatiarrek. Aloña Mendiko mutilek 55-59 irabazi zuten Bilboko La Salle taldearen aurkako norgehiagoka.

**ERRUGBIA** > EUSKADIKO TXAPELKETA

# Maila bat gorago dagoen taldea izan zuten aurrez aurre

## Nahiz eta Durangoko taldearekin bat egin jendez larri jarraitzen du Arrasateko errugbi taldeak

ARRASATE
**05-63**
ZARAUTZ

**LARRAITZ ZEBERIO** > ARRASATE

Nazional mailan aritu ohi diren jokalarien aurka, aldaketak egiteko jende barik eta taldean sartu berriak diren sei jokalariarekin... egoera horretan jokatu zuen atzo, domeka, Arrasateko taldeak. "Nabari izan da maila ezberdintasuna", adierazi zuen partidu amaieran Igor Isasi entrenatzaileak. "Zarautzek bi aste barru ekingo dio Nazional mailako txapelketari eta lehiaren erritmoan har dezaten lehen taldeko jokalariekin etorri dira".

Oso bestelakoa da etxeko taldearen egoera. "Durangoko taldearekin bat egin behar izan dugu taldea aurrera ateratzeko", esan du Isasik, "eta hala eta guztiz ere nahiko justu gabiltza". Isasiren helburua, aurten, taldea egitea da. "Elkar ezagutu, errugbian jokatzen ikasi eta talde jarrera landu behar dugu".

**ENTSEGUA, AZKEN UNEAN**

Norgehiagokaren zazpigarren minutura arte eutsi zuen Arrasatek. "Zarauztarrek lehenengo entsegua egin ostean burua makurtu dugu, eta ez diogu egoerari buelta eman partiduaren bukaerara arte", esan du Isasik. "Orduan, bigarren zatiko 35. minutuan entsegua egin dugu". Entrenatzailearen esanetan, 22 jokalari beharko lituzke taldeak aldaketak ziurtatzeko. "Animatzen dut jendea etortzera".

Hurrengo hitzordua bi aste barru izango dute Arrasateko jokalariek. Etxean jokatuko dute Getxoko taldearen aurka.



Arrasateko jokalaria jokaldia egiteko saiakeran. JOSETXO ARANTZABAL

## Futbola

### OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

**Sailkapena**

| | Punt. | Jokat. |
|---|---|---|
| 1. **Hernani** | **9** | 4 |
| 2. **Oiartzun** | **7** | 4 |
| 3. **Trintxerpe** | **7** | 4 |
| 4. **Hondarribia** | **7** | 4 |
| 5. **Pasajes** | **7** | 4 |
| 6. **Tolosa** | **7** | 4 |
| 7. **Real Union** | **7** | 4 |
| 8. **Aretxabaleta** | **7** | 4 |
| 9. **Anaitasuna** | **6** | 4 |
| 10. **Aloña Mendi** | **6** | 4 |
| 11. **Idiazabal** | **6** | 4 |
| 12. **Ondarroa** | **6** | 4 |
| 13. **Ordizia** | **4** | 4 |
| 14. **Berio** | **4** | 4 |
| 15. **Mondra** | **4** | 4 |
| 16. **Zumaiako** | **4** | 4 |
| 17. **Bergara** | **3** | 4 |
| 18. **Roteta** | **0** | 4 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| Real Union-**Mondra** | 3-1 |
| Anaitasuna-**Aloña Mendi** | 2-0 |
| Ondarroa-Hondarribia | 1-0 |
| Ordizia-Trintxerpe | 1-1 |
| Hernani-Roteta | 3-1 |
| Pasajes-Zumaiako | 5-1 |
| Idiazabal-Oiartzun | 1-0 |
| **Aretxabaleta-Bergara** | 1-0 |
| Tolosa-Berio | 2-1 |

**Hurrengoak**

**Aloña Mendi**-Real Union
**Bergara**-Idiazabal
Berio-**Mondra**
Tolosa-**Aretxabaleta**

### BESTE KATEGORIAK

| | |
|---|---|
| **GAZTEEN LIGA NAZIONALA** | |
| Danok Bat "B"-Aretxabaleta | 1-0 |
| **GAZTEEN EUSKAL LIGA** | |
| Bergara-Lengokoak | 2-2 |
| **ERREGIONAL PREFERENTEA** | |
| Antzuola-Tolosa "B" | 2-1 |
| Urola-Aretxabaleta "B" | 2-0 |
| Mondra "B"- Lagun Onak | 0-1 |
| **LEHEN ERREGIONALA** | |
| Bergara "B"-Eibartarrak "B" | 3-1 |
| Aretxabaleta "C"-Soraluze "B" | 1-1 |
| **GAZTEEN OHOREZKO MAILA** | |
| Mondra-Ordizia | 3-1 |
| Aloña Mendi-Zarautz "B" | 3-1 |
| **GAZTEEN LEHEN MAILA** | |
| Bergara "B"-Aretxabaleta "B" | 0-4 |
| Eibartarrak "B"-Arizmendi | 4-4 |
| Arizmendi "B" | Atsedena |
| **KADETEEN OHOREZKO MAILA** | |
| Zarautz-Bergara | 7-1 |
| Aretxabaleta-Zumaiako | 1-1 |
| **KADETEEN LEHENENGO MAILA** | |
| Arizmendi-Bergara "B" | 3-2 |
| Aloña Mendi "B" | Atsedena |
| Arrasate-Aloña Mendi | 3-1 |
| Aretxabaleta "B"-Ilintxa | 4-2 |
| **EMAKUMEZKOEN LIGA** | |
| Anaitasuna-Arizmendi | 1-0 |
| Eibar-Mondra | 2-3 |

## Eskubaloia

### MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **EUSKADIKO SENIORRAK, GIZON.** | |
| Usurbil-Ford Mugarri | 27-34 |
| Soraluce BKE-Portugalete | 20-25 |
| **EUSKADIKO SENIORRAK, EMAKUME.** | |
| Usurbil-Aloña Mendi | --- |
| **LEHEN TERRITORIAL MAILA** | |
| Arrasate-Amenabar | 19-28 |
| **BIGARREN TERRITORIALA** | |
| Izarraitz Aloña Mendi | Atsedena |
| **GAZTEEN GIPUZKOAKO TXAPELKETA** | |
| Bergara-Aloña Mendi | 13-36 |
| **GAZTEEN GIPUZKOAKO TXAP. EMAK.** | |
| Aloña Mendi-Bergara | --- |
| **KADETEEN GIPUZKOAKO TXAP.** | |
| Chapime Arrasate-Tolosa | --- |
| Karibe Zaharra-Soraluce BKE | 35-16 |
| Berezao Aloña Mendi | Atsedena |
| **KADETEEN GIPUZKOAKO TX. EMAK.** | |
| Aloña Mendi "A"-Aloña Mendi "B" | --- |

## Saskibaloia

### MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **LEHENENGO MAILA** | |
| La Salle-Aloña Mendi | 55-59 |
| Easo Pastas Arruabarrena-MU | 80-53 |
| **SENIOR EMAKUMEZKOAK** | |
| Eskoriatza-Bera Bera Gros | 37-41 |
| **GAZTEAK, EUSKAL LIGA** | |
| Santurtzi-MU | 80-37 |
| **GIPUZKOAKO SENIORRAK, GIZON.** | |
| Alde Zaharra-MU | 71-62 |
| **GIPUZKOAKO 2. MAILA, GIZON.** | |
| Leihoak-Zast-Aloña Mendi | 66-51 |
| Soraluce BKE-Baskoplastika | --- |

## errugbia

### MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **EUSKAL LIGA, GIZONEZKOAK** | |
| Kanpanzar ART-Zarautz "B" | 5-63 |
| **EUSKAL LIGA, EMAKUMEZKOAK** | |
| Arrasate/Durango-La Unica | --- |

## areto futbola

### MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **EUSKAL LIGA** | |
| Goierri-Eskoriatza | --- |



# Debagoieneko **GREMIOAK**



## AROZTEGIAK

**AZKARATE AROZTEGIA**
Bergara
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
• K-21
Telleria 19 B02-B03
T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
*www.goiena.net/blogak/azkarate*

## ELEKTRIZITATEA

**AITZORROTZ ELEKTRONIKA**
Aretxabaleta
• Telebista, audio eta bideoa
Salmenta eta konponketa
• Instalazio elektrikoak
• Atezain automatikoak
• Antena kolektiboak
Otalora 14
T: 943 79 16 10
F: 943 79 16 10

**ARANZABAL KOOP. E.**
Arrasate
• Instalazio elektrikoak
• Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83
F: 943 79 68 21

## ERAIKUNTZAK

**ARRASATE ERAIKUNTZAK SL**
Arrasate
Meatzerreka auzoa
T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
*e.arrasate@euskalnet.net*

**FRIXI ERAIKUNTZAK**
Eskoriatza
• Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
• Kontratak
• Enpresen mantentze-lanak
Intxartxueta 5
T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22
F: 943 71 55 15

## DEKORAZIOA

**J. ORTIZ**
Bergara
• Mota guztietako pladur lanak
• Igeltsu-lanen dekorazioa
• Sabai eta apaletan espezialistak
• Isolamendu akustikoa
• Gremioen koordinazioa
Alkabieta kalea z/g.
T: 943 76 03 51 / 663 90 93 18

## ITURGINTZA

**EGIA ITURGINTZA**
Arrasate
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
T: 943 77 01 85

**IMANOL ITURGINTZA**
Arrasate
• Iturgintza
• Berogailua eta gasa
• Bainugelak
Kale Txiki 9 behea
Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

**OYANGUREN ITURGINTZA**
Eskoriatza
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
T: 943 71 47 14 / 606 00 73 69
*f.oyanguren@ctv.es*

**URKO MANTENIMIENTO SL**
Aretxabaleta
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
T: 943 77 19 88
F: 943 79 59 97

**VALES ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Hargintza lanak
• Bainugelako altzariak
• Berogailuak
• Erretenak ipini eta garbitzea
Santa Kurtz 7, 3. ezk.
Tel.: 620 17 80 46

## LEIHOAK

**ARGI-PLASTIK**
Arrasate
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko leihoak
• Poliuretanozko leihoak
Zigarrola 1- 8 pab.
Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18
F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

**ION LEIHOAK**
Arrasate
• Metal aroztegia, PVC eta aroztegia
Debagoiena Industrialdea 11. pabilioia
T: 943 79 11 35
F: 943 77 31 20

**YOSU THERMIK**
Arrasate
• Lehio eta ate isolatzaileak
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko lehioak
• Aroztegi mistoa (aluminio-egurra)
Kataide poligonoa 4 Pab.
Tel: 943 77 01 57
F: 943 77 03 21

## LOREZAINTZA

**MAKAI KOOP. ELKARTEA**
Aretxabaleta
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatzeko sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
F: 943 79 78 45

## MARGOAK

**APAIN MARGO ETA APAINKETA**
Arrasate
• Pintura orokorrean
• Pareztatzeak
• Errotulazioa
Maitena 3-1.
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

Joseba Molinero > Mendi lasterkaria

# "Lasterketako helmugara iritsi eta besoak altxatzea sentsazio polita da"

XABIER URTZELAI > OÑATI

**Joan den asteburuan amaitu zuten, Olazti-Urbasa lasterketarekin, Euskal Herriko mendi lasterketen txapelketa. Eta lasterketa bertikalen kopan, podiumetik gertu geratu da, laugarren postuan, Joseba Molinero (Oñati, 1971). Urte gogorra izan dela onartu digu, lasterketa batetik bestera ibili delako; baina, zapore gozoarekin amaitu du denboraldia, eta martxoan dortsala jantzita ibiliko da berriro.**



Joseba Molinero, Aizkorriko tontorrean, entrenamendu saio batean. GOIENKARIA

**Gutxigatik geratu zara podiumetik kanpora.**

Bai, ez dakit zenbat puntuko aldeaz sailkatu den hirugarren geratu den Imanol Etxeberria. Baina hori gutxienekoa da, laugarren sailkatu ahal izatea sekulakoa izan delako niretako, izan ere, aurrean geratu direnak goi mailako lastekariak dira.

Didier Zago menperatzea ezinezkoa da, eta ondoren sailkatu dira Fernando Etxegarai eta Imanol Etxeberria, Aloñako errekorra duena; oso korrikalari onak dira. Oso pozik nago aurten egin dudan urtearekin.

**Txapelketako lasterketa puntuagarri guztietan egotea gogorra izango da.**

Oso gogorra. Esaterako, azkeneko probara, Olazti-Urbasara ez nintzen joan –Aritz Kortabarria arrasatearra izan zen azkarrena– mendian korrika ibiltzeaz nekatuta amaitu dudalako.

San Donatoko proba izan da egin dudan azkena, eta denboraldiari agur esateko modu ezin hobea izan zen (bosgarren sailkatu zen), urteko lasterketa onenetako bat izan zelako.

**Eta lasterketen artean, kilometro bertikaletan buru-belarri ibili zara.**

Bai, guztira lau proba antolatu dituzte, eta lauretan egon naiz: Xoxoten, Anboton, Txindokin eta San Donaton. Konturatu naiz aldapa gora aldapa behera baino hobeto ibiltzen naizela, eta gustura amaitu dut bertan egindako lanarekin.

**Podiumean aurrealdean ibilita ere, zaila da lasterketa guztietan hasierako hamar sailkatuen artean egotea.**

Oso zaila da. Izan ere, lasterketa askotara herri horretan bizi diren koadrilak joaten dira parte hartzera, euren arteko apustuak izaten dituzte, eta proba hori izugarri ondo prestatzen dute. Esaterako, Xoxoteko igoeran Azpeitiko lasterkari mordoa zeuden, San Donaton Uharte Arakil eta Altsasuko jende asko, eta Anbotoko lasterketan Apatako, Elorrioko eta Durangokoak.

Horiei atzean uztea ez da erraza izaten; izan ere, ez da berdina lasterketa bat ondo prestatzea, edo denboraldi osoa lasterketetan batera eta bestera ibiltzea.

**Podiumeko lehenengo postura ere igo zara aurten.**

Bai, Arnoko lasterketan (Mutriku) helmugara iritsi, zinta dagoela ikusi eta pentsatzea, joño, zinta hori nik moztu behar dut? Momentu horretan besoak altxatzea oso sentsazio polita da.

**Hori izan da urteko lasterketa onena?**

Onenetako bat, duda barik. Baina, denboraldi luze baten aurrean ondo amaitzea garrantzitsua delako, eta benetan proba ona egin nuelako, San Donatokoa esango dut.

**Aloñako futbol kategoria guztietako entrenatzaile izatetik, zelan pasa zinen mendiko lasterketetara?**

[Barre] Ez pentsa, batzuetan izaten dut futbol zelaiko aulkian esertzeko gogoa, batez ere kalean nire garaiko entrenatzaileekin elkartzen naizenean. Gainera, pena ere ematen du entrenatzaile titulua lortzeko Donostiara egin genituen bueltei orain etekinik ez lortzea.

Bada, betidanik ibili izan naiz mendian, eta lehenago ere korrika ibiltzen ginen, gure kontura. Ea zenbat denboran igotzen naizen Aloñara, Urbiatik Aizkorrira... Horrela hasi nintzen, eta konturatu orduko lasterketetan nenbilen....

**Egia da orain dela urte batzuk lehenengo Aloñako igoera antolatu izana bultzada izan zela herritarrendako.**

Bai, duda barik, eta lagun artean ere hori ibili ginen komentatzen aurrekoan, Oñatiko lasterketa bultzada izan zela gutako askorendako.

**Zapore gozoa utzi dizuten proben gainean egin dugu berba, baina lasterketa txarrak ere izango ziren.**

Bai, duda barik. Aralarren, esaterako, bi korrikalari galduta ibili ginen ordu erdiz, eta hala ere bosgarren iritsi ginen helmugara. Baina horiek ere bizi egin behar dira. Gogoan dut arratsaldean haserre egin nuela Donostiarako bidea, baina egun horretan lortu zuen Realak Celtaren kontra lehen mailara igotzea, eta berehala joan zitzaidan haserrealdia.

**Martxoan Urnietan hasiko duzue denboraldia. Eta ordura arte, zer?**

Lasaiago egon, atseden hartu... Egia da ez dakigula geldirik egoten, baina mendira noanean erlojua etxean utziko dut eta inguruan dagoenaz jabetuko naiz.

Pentsa, aurrekoan lagun batek esan zidan Urbian ganadu mordoa zegoela, ardiak eta behorrak ehunka. Bertatik pasatu berri nengoen, entrenatzen, eta bakarra ere ez nuen ikusi. Horrez gain, futbol apur bat ikusteko gogoa dut.

**Mendia korrikan ibiltzeko lekua ez dela diotenei zer esango zenieke?**

Seguruenik arrazoi dutela [Barre]. Uste dut mendiak denetarako aukera ematen duela, baita korrika ibiltzeko ere.

GAITASUNA

**"Konturatu naiz aldapa gora, aldapa behera baino hobeto ibiltzen naizela; horregatik egin ditut gustura kilometro bertikalak"**

AMAIERA ONA

**"Urte gogor baten aurrean azkeneko lasterketarekin gustura geratzea positiboa da"**

AURRERANTZEAN...

**"Mendira erloju barik joango naiz, lasai ibiltzera; futbola ikusteko gogoa ere badut"**

**HEZIKETA** > NERABEZAROA

# Seme-alaba nerabeen akatsak onartzen ikasi behar dugu gurasook

Nerabe batek aldaketa fisiko handiak sumatzen ditu bere gorputzean eta erronka berri ugari gainditu behar ditu epe laburrean



Neska nerabeak. GONZAK

**LARRAITZ ZEBERIO** > ARRASATE

Gizakiaren bizitzan nerabezaroa etapa zailenetariko bat da. Independenteak izaten ikasi behar dute; erabakiak hartzen hasi behar dute; lagunekin elkar bizitzen; eta maitasun egoera ezberdinei aurre egiten.

Gurasook errespetatu egin behar dugu seme-alaba nerabeek erronka horiei aurre egiteko aukeratzen duten modua. Gauzak pazientziaz hartu eta saiatu behar dugu gaztearen sentimenduak ez zapuzten. Bizi duen egoera oso konplexua da eta garrantzitsua da gure egiteko modua ez inposatzea. Ulertu behar dugu eskarmentuak erakutsi digula egoera zailei nola aurre egin, eta nerabeak prozesu hori bere kabuz egin beharra daukala. Entzutea, aholkuak ematea eta gure laguntza eskaintzea dira gure egitekoak etapa konplikatu horretan.

**AKATSAK ULERTU**

Okerreko erabakiak hartzea, bide bat hartu eta gutxira atzera egitea, erabakiak oldarkortasunez hartzea, porrot egitea... nerabezaroarekin lotuta dauden egoerak dira horiek guztiak. Heldu segurua bihurtzeko aukera gehiago izango ditu gurasoekin hitz egiteko gauza den nerabeak edo epaitua izan gabe bere kezken berri emateko askatasuna sentitzen duen nerabeak.

**FORMAZIOA** > MUSIKA

## Musika tresna bat jotzeak onura handiak ekar ditzake

**L.Z.** > ARRASATE

*Consumer* aldizkarian irakurri dugu: haurrek egiten dituzten eskolaz kanpoko jardueren artean laugarren tokian dago musika. Adituek diote gozamen iturri bada gaitasun asko lantzen lagunduko diela musika-tresna batekin aritzeak. Eskuak eta begiak trebatzen ditu, memoria indartzen du eta sormena, hizkuntza, irakurketa eta idazketa trebetasunak lantzen ditu. Adimen espaziala ere nabarmen garatzen zaie musika tresna bat jotzen duten umeei, eta, irakasleen zein aztertzaileen aurrean jo behar izaten dutenez, beldurrari gain hartzen ikasten dute.



Haurrak biolin eskolan. ORQUESTA CURANILAHUE

**KONDENA MODUAN EZ**

Baina kontuz; izan ere, musika tresna bat jotzeak ekar ditzakeen onura guztiak pikutara joango dira umeak jarduera hori kondena moduan bizi badu. Gurasook arretaz zaindu behar dugu alderdi hori. Akats larria izango litzateke umea gurasoen agindu hasten bada musika tresna bat jotzen, haurra bera guztiz konbentzituta egon gabe. Bestetik, ez da jolasaren dinamika ahaztu behar. Musika tresna jotzen ikasteko, funtsezkoa da aritzea eta aritzea, eta haurrak motibatua egon behar du, bestela laster galduko du-eta motibazio hori. Gogoan hartu behar da haurren egutegia oso beteta egon ohi dela; eskola eta eskolako zereginak dira lehentasuna.

**HAURRESKOLAK** > EGOKITZAPENA

## Egokitzapenaren iraupena murrizteko eskaera

**L.Z.** > ARRASATE

Gasteizko udalbatzak irailaren 24ko osokoan onartuta, Arabako hiriburuko udal haurreskolek haur bakoitzaren beharretara eta ezaugarrietara moldatu beharko dute egokitzapen prozesua. Kide ugariko familien elkarteetako Euskadiko federazio Hirukidek egin zuen eskaera. Gaur egun, Gasteizko udal haurreskoletan egokitzapen prozesua hilabete osokoa da eta derrigorrezkoa da haur guztiendako. Hirukide elkartearen esanetan, egoera "sostengaezina" da eta "familia eta lana bateratzea ezinezko" egiten du.

**HEZITZAILEAK KONTRA**

Hezitzaileek esan dute pedagogikoki erabaki hori "guztiz desegokia" dela eta gogorarazten dute egungo egokitzapen prozesua ez duela ezagutza duen inongo profesionalak ezbaian jartzen.

**HEZIKETA** > SEGURTASUNA

## Beldurraren gizartean bizi gara, obsesio bihurtu da

**L.Z.** > ARRASATE

Umeen segurtasuna ala askatasuna? Zalantza barik, biak hartu behar ditugu kontuan, baina adituek diote gaur egun lehenengoaren aitzakian bigarrena mugatzen dugula. "Segurtasunaren obsesio bat dago", esan zuen Rafael Cristobalek Goiena Telebistan egindako tertulia baten. "Sendagileak bere gaixoen beldurra du, irakasleak gurasoen beldur dira... Erabaki bat hartu beharra daukagu. Zer nahi dugu, libre, baina arrisku batzuekin bizi diren haurrak ala arrisku barik, baina aldi berean askatasun barik bizitzen direnak?

Txatxilipurdi elkarteko Eneko Barberenak gaineratu zuen umeen askatasuna eta gozamena uztartzen dituzten ekintzak aurkitu behar direla. Gaiak, zalantza barik, hausnarketa merezi du.



Umea txirristan gora, behar ez duen lekutik. ROBZ

> TELEBISTA

### Goiena Telebistak gurasoendako egindako lehenengo tertulia ikusgai 'guraso.com'-en

Irailean hainbat familiarendako kezka iturri izaten diren ikasturte hasiera eta eskolaz kanpoko jarduerak izan zituzten hizpide lehenengo tertulian. Saioa ikusgai dago *guraso.com* webgunean. Mahaiaren bueltan izan ziren Rafael Cristobal, psikologoa eta psikiatra; Eneko Barberena, Txatxilipurdi elkarteko zuzendaria; Iñaki Kasares, *guraso.com* webguneko kolaboratzailea; eta Gari Ibartzabal, Arizmendiko aisialdi taldeko arduraduna.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko,
**zatoz gure webgunera**
guraso.com



**> ORGANO KONTZERTUA**
Zapatuko saioarekin hasi dute aurtengo nazioarteko zikloa > 30



**> SOLASALDIAK**
Andu Lertxundi eta Uxue Alberdi, Arrasateko bibliotekan > 31



**> ARGAZKI IRABAZLEA**
Lara Gonzalezen '*Ispiluaren aurrean*' lanak jaso du lehen saria > 37



Komentuko klaustroan jarriko dute azoka domekero.
JOSETXO ARANTZABAL

# Frantziskotarren argitaletxeko liburuak salgai domeketan

**AZOKA**
Klaustroan egongo dira salgai 'Pilarica' arteko jaiegunetan

**PREZIO GUTXITUA**
Ale eta bildumak prezio sinbolikoetan ipiniko dituzte salgai

**JON BEREZIBAR** > ARRASATE

Urteetan zehar Arantzazuko argitaletxeak plazaraturiko liburuekin azoka egingo dute azaroa bitarteko jaiegunetan, eta bertan salduko dituzte historian zehar frantziskotarren Santutegiko apaletan bildutako liburuak, prezio sinbolikoetan. 90 ale baino gehiago izango dituzte erosteko moduan eta atzo hasi ziren frantziskotarrak azokarekin.

**AZOKA KLAUSTROAN**

Bost domeka izango dira, gehi Pilarreko Andre Mariaren eguna. Argitaletxeak kaleratutako liburu guztien erakusketa izango da eta horko nahiz beste bildumetako aleak egongo dira salgai. Liburu zahar eta berriak, euskarazkoak asko eta frantziskotarren historiarekin lotutako bereziak ere egongo dira. Gandiagaren *Elorri* da Iñaki Beristain frantziskotarrak destakatutako bat eta "frantziskotartasunari buruz antolaturiko sailik garrantzitsuena ere bai". Horiez gain, aurkitu ahalko dira Arantzazuko bosgarren mendeurrena ospatzeko egin zuten liburu sorta ederra edota San Frantziskoren idazki guztiekin osaturiko tomoa. Sei jaiegun izango dira guztira; domeketan egongo da zabalik.

**AZOKA KLAUSTROAN**

Barruan ipiniko dute azoka, komentuko klaustroan, goizeko 10:00etatik 14:00etara bitartean. "Bitxikeria bezala bibliotekatik zenbait inkunable ikusgarri" ere aterako dituztela nabarmendu du erlijiosoak, "erakusteko".

Liburu asko dauzkate argitaletxean, ze "garai batean optimismo handiz ateratzen ziren liburuak", eta gaur, ostera, "edizio txikiagotan ateratzen dira", eta horregatik eman gura diete aurrez kaleraturikoei aterabidea". Izan ere, azken urte askotan jakin izan dugu liburuak ekoizten, baina ez agian saltzen ala erakusten", ametitzen du Beristainek. Segidan zera gehitzen du, jende guztiarendako liburuak direla, eta argitu "gaur inoiz baino gehiago" dagoela "interesa San Frantziskorengan", eta azokan bertan hari buruzko oinarrizko liburu asko aurkituko dituztela gerturatzen direnek: "Jendea gertura dadila kuxkuxean eta gustuko zerbait aurkitzen badute, eros dezatela".



Loinatz abesbatza. JOSETXO ARANTZABAL



Ana Belen Gartzia, jotzen. JOSETXO ARANTZABAL

**KRONIKA** > ORGANO ERROMANTKOAREN NAZIOARTEKO XI. ZIKLOA

# Andre ahotsak eta organo hanpatuak

**NON:** Bergarako San Pedro parrokian.
**EGUNA:** Zapatua, urriak 2.
**ZENBAT JENDE:** 80 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Bi ordu eta erdi.

**JON BEREZIBAR** > BERGARA

Urria organoari lotua joango da San Pedro parrokian. Zapatukoa izan zen aurtengo Organo Erromantikoaren Nazioarteko zikloaren lehena, XI. ekitaldia jada, eta urriko zapatu guztietan egongo dira saioak. Ana Belen Gartzia organo jotzaile andoaindarra izan zen zapatukoan emanaldiaren gidaria, Beasaingo Loinatz abesbatzarekin. Böellmanen *Suite Gothique*-rekin sarrerakoak egin-da, organoaren presentzia hanpagarriarekin, koru gipuzkoarrak maisuki taxutu zuen Garbizuren *Meza Ekumenikoa* organo soloaren amaiera liluragarriarekin emakumezkoen ahotsen pisu nabarmenarekin.

Zapatuan, ordu berean tronpeta (David Malet) eta organo (Luis Gonzalez) kontzertua egongo da parrokian.

## Ume bihurriak negarrari uzteko mila eta bat trikimailu

Antzezle eta txotxongilo bihurriek ekarri zuten dibertsioa zapatuan Bergarara. Zaku bete sarirekin etorritako konpainiak bete egin zuen Zabalotegi aretoa gainera. Marie de Jongh taldearen *Zer duzu negarrez, Marie?* antzezlanarekin barre eta jolas egiteko aukera izan zuten Bergarako neska-mutikoek.

Haurtzaindegi bateko jabeak eta bertako zaintzaileak ume batekin duten harremana kontatzen da lan horretan. Denetariko trikimailu, jolas eta bihurrikeriak egin behar izan zituzten protagonistek Mariek negarra utz zezan.



JOSETXO ARANTZABAL

**LITERATURA** > ARRASATEKO BIBLIOTEKA

# Anjel Lertxundi eta Uxue Alberdi, ikasturte honetako saioen gonbidatu

Arrasateko Josu Arteaga idazleak ere bere lehen eleberriaz hitz egingo du

Izenematea zabalik dago eta egin daiteke bibliotekan bertan ala blogean



Uxue Alberdik hilaren 25ean egingo du saioa. GOIENKARIA

**JON BEREZIBAR** > ARRASATE

Esfortzu berezia egin dute aurten euskal idazleak ekartzeko eta ahalegin horren fruitu da saioetara euskal letren hiru izen nabarmen etorriko direna. Horrekin nahikoa ez eta saioak gidatzeaz ere literaturan aritu eta aditu bana arduratuko dira: Rikardo Arregi, poeta gaztelaniazkoez eta Mikel Aierbe irakasle eta kritikaria, euskarazkoez.

Saioetarako irailetik eman daiteke izena eta zabalik egongo da epea urriaren 15a bitartean, zuzenean bibliotekara jota ala Internetez *www.arrasatekoudalbiblioteka.blogspot.com*-en.

**LERTXUNDI ETA ALBERDI**

Idazleen partaidetza garrantzitsua izango da bai saioetan zein horien gidaritzan. Euskarazko solasaldien ardura Rikardo Arregik izango du, Gasteizko poeta eta idazleak. Haren saioetan aztertuko dituzte Arthur Schnitzlerren *Hildakoek ez dute hitz egiten*, Uxue Alberdiren *Aulki-jokoa* eta Anjel Lertxundiren *Eskarmentuaren paperak* (egitaraua eskumako zutabean). Azken bi idazle horiek, gainera, parte hartuko dute euren liburuei buruzko saioetan. Alberdik ipuin bildumen ostean idatzi duen lehen eleberriari buruz hitz egingo die irakurleei eta Lertxundi beteranoak literaturan eginiko 40 urteen hausnarra egingo du azkena argitaratu duen saiakerarekin. Oroitzapen liburua barik irakurlearekin elkarrizketa du helburu liburuak.

**JOSU ARTEAGAREN LEHEN LANA**

Gaztelaniazko liburuak izango dira Pierre Bayarden *Cómo hablar de los libros que no se han leído*, John Maxwell Coetzeeren *Verano: escenas de una vida de provincias* eta Josu Arteagaren *Historia universal de los hombres gato*. Arteagak ere hartuko du parte dagokion saioan. Arrasatearrak zeresan nahikoa piztu du haren debutarekin eta bibliotekan bertan izango da *katugizonen* kronika beltz berezi horren gaineko xehetasunak ematen.

**INFORMAZIO GUZTIA SAREAN**

Izenematea eta saioen xehetasunei buruz gehiago jakin gura izanez gero, bibliotekak sarean *www.arrasatekoudalbiblioteka.blogspot.com* helbidean du bere bloga.

## Euskarazko solasaldiak

**Urriak 25, astelehena**
**18:30 - 20:30** Uxue Alberdi: *Aulki-jokoa*. Idazlea bertan izango da liburuaren gainean azalpenak ematen.

**Azaroak 29, astelehena**
**18:30 - 20:30** Anjel Lertxundi: *Eskarmentuaren paperak*. Idazlea bertan izango da.

**Abenduak 20, astelehena**
**20:00 - 20:30** Arthur Schnitzler: *Hildakoek ez dute hitz egiten*.

## Gaztelaniazko solasaldiak

**Urriak 19, martitzena**
**18:30 - 20:30** Pierre Bayard: *Cómo hablar de los libros que no se han leído*.

**Azaroak 23, martitzena**
**18:30 - 20:30** Josu Arteaga: *Historia universal de los hombres gato*. (Idazlea saioan bertan izango da)

**Abenduak 14, martitzena**
**18:30 - 20:30** J. M. Coetzee: *Verano: escenas de una vida de provincias*.

## Gudaroste galanta osatzeko adinako zalegoa batu zuen atzo Tapiak Elgetan

Zaleak elkartzeko ahalmenik ez duela ezin Tapiari leporatu, 120 lagun batu zituen-eta atzo Espaloian. *Eta tira eta tunba* da haren azken lana, karlisten gerretan oinarritua, eta gudaroste ederra ekarri zuen atzo Elgetara, iparraldeko musikariek osatua ia osorik. Euskal kulturgintzako makina bat lagun ere ikus zitekeen atzo kafe antzokian guztiak karlista eta liberalen arteko ikamika musikatuekin gozatzeko zain. Lehen kantutik jada errenditu zitzaizkion Tapiari entzuleak.



JOSETXO ARANTZABAL

# iragarkilaburrak.com

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Abadiño.** Pisua Muntsaratz auzoan. 3 logela handi, 2 komun, sukaldea, egongela handi bat jangelarekin eta balkoi handia. Ganbara. Berriztatua, berogailuarekin. Bizitzera sartzeko moduan. Negoziatzeko moduko prezioa. 667-88 23 38.

**Aramaio.** Etxebizitza berria saldu edo errentan ematen da Aita Gabirel Jauregi kalean. Lehen solairua. Bi logela, komuna, egongela-sukaldea, trastelekua, ganbara eta garajea. Berokuntza indibiduala. Jantzia. Eguzkitsua. 664-74 90 23 edo 679-45 57 62

**Aretxabaleta.** Aukera bikaina. Guztiz eraberritutako etxebizitza salgai Muru-bide kalean. 50 m2, egongela, bi logela, sukaldea, bainugela, trastelekua eta balkoia. Oso argitsua. 23 m2-ko ganbara eta guzti. Erdi jantzia. 214.000 euro. 943-79 96 55 edo 685-72 46 86

**Arrasate.** 50 metro koadroko etxebizitza salgai Agerre kalean. Bi logela, egongela, sukaldea. Komuna eta leihoak berrituak. Berogailuarekin. 126.000 euro. 657 71 41 68

**Arrasate.** 90 metro koadroko etxebizitza Musakolan. Hiru terraza dauzka. Igogailua. Estreinatzeke. 17 metroko garaje itxia. 618-00 89 17

**Arrigorriaga.** Etxea, renfe geltoki, autobus geltoki, eskola, parkea eta polikiroldegien artean dago. Sarrera, sukaldea, egongela, hiru gela, bi bainugela eta ganbara ditu. Banakako gas naturala (ura eta berogailua). Altzariak barne nahi badituzue. *http://go.to/arrigorriaga* prezioa 288.000 euro

**Ataun.** San Martin, eraikin ia berri batean, 100 m2ko etxea salgai + terraza + patioa + garajea + trastelekua, 280.000 euro. Deitu: 659-53 50 73

**Bergara.** Boni Laskurain kalean etxebizitza salgai. 90 metro koadro, ganbararekin, hiru logela, egongela, bi komun eta lehorlekua. Balkoi handia. 675 71 50 36

**Etxarri-Aranatz.** Etxea errentan edo salgai.654-23 41 02.

**Lakuntza.** Horman sartutako armairudun hiru logela, sukalde jantzia, egongela, 2 komun, balkoi eta ganbara. Lurreko berogailua. 948-57 60 03 eta 608-77 68 41.

**Laredo (Kantabria).** Izugarrizko bistak dituen pisua salgai hondartza ondoan. Urbanizazio pribatuan dago, berdegune askorekin, haurrentzako jolasguneak, tenis zelaia, saskibaloi zelaia, autoa garbitzekoa... Puntaleko zonaldean kokatua. Hall zabala, egongela eta jangela zabalak, bi bainugela osatu, 4 logela bakoitza bere armairu enpotratuarekin, sukaldea, elektrogailu berriekin osatua, ur beroa eta gas naturalarekin dabilen berogailua. 2 igogailu eta atezain zerbitzua. Ezin obeto dago bizitzera sartzeko. Partikularra. 690-07 15 72 Informazio pertsonala.

**Luz Saint-Sauvert.** Luzetik 500 metrora 58 metro koadroko duplexa salgai. Bi logela, komuna, sukaldea, antena parabolikoa. Dena egoera oso onean eta jantzita. 635 74 62 26

**Orendain.** Orendainen etxe bifamiliarra salgai. Oso egoera onean. 648-65 19 30

**Pasaia.** 49 m2-ko etxebizitza, egoera onean. Sukaldea, komuna,egongela-jangela ederra, bi logela (bat armairu enpotratuarekin), eta gelatxo txiki bat, jantzi gela edo liburu gela gisa erabiltzeko aproposa; kanpora ematen du. Berogailua, gas naturala, egurrezko lurra. 1. Solairua, igogailurik ez. Eraikinean ez dago obrarik aurreikusita. Ezin hobeto komunikatua, eta dena eskura. 649-72 63 91.

**Tolosa.** Alde zaharrean 50 m2-ko atikoa. Egoera onean dago eta oso argitsua da. Igogailua. 132.000 euro (22.000.000 pezeta). 943-43 00 20. Zuzeneko salmenta.

**Villabona.** Ia berria, 7 urteko etxea. 2 logela, 2 komun (bat logela baten barnean), sukaldea elektrogailu guztiekin eta egongela. Berogailua. Igogailua. Argitsua da, eta kanpoaldera begira dago, komunak izan ezik. 2 balkoi. 265.000 euro. Garaje itxia aukeran, 40.000 euro. 639-94 37 70.

**Zegama.** Goierrin, Landa turismorako berritutako baserri bat salgai (100 m2ko hiru solairu). Biko 6 logela bainugelekin, eta norberarentzat apartamentua -sarrera propioarekin-. Bikain hornitutako sukaldea.10.000 m2ko lur saila. Salmenta premiazkoa denez, prezio egokia dauka. Harremanetarako deitu 13:00etatik 15:00etara 658-73 51 75 telefonora.

**Zestoa.** 3 gela, egongela, sukaldea eta bainu. 168.000 euro. Erdigunean eta argitsua. Harremanetarako deitu 679-00 73 01 telefono zenbakira.

Egueneko 18:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

# 943 25 05 05

**sailkatuak@goiena.com**
**www.goiena.net-en**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
**- ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU.**
**- LOKALA SALDU/ALOKATU.**
**- GARAJEA SALDU/ALOKATU.**
**- MOTORRA SALDU/ALOKATU.**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 20,50 € (BEZ BARNE).**

**PROFESIONALEN IRAGARKIAK (MODULOA)**
**MODULU 1: GOIENKARIA-N EDO ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 21 € (+BEZ).**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 28 € (+BEZ).**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

### 102. EROSI

**Arrasate edo inguruetan** 120.000-150.000 euroko etxebizitza erosteko asmoa daukat. Harremanetarako deitu 615 71 04 68 zenbakira.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Altsasu.** Pisua alokatzen da Altsasuko erdigunean. Mustutzeko. 696-79 87 52.

**Arrasate.** Altamiran, Jose Luis Iñarra kalean, hiru logelako etxebizitza ematen da errentan. 639 96 01 21

**Arrasate.** Etxebizitza bat ematen da errentan unibertsitate ondoan. Berokuntza zentrala du. Argitsua. Ekonomikoa. 647-22 09 38 edo 945-44 51 11

**Arrasate.** Hiru logelako etxebizitza ematen da errentan. Bi komun, trastelekua, egongela eta sukaldea. Behar duen ekipamendu guztiarekin. Mondragon Unibertsitatetik 2 minutura. Etxea erosoa da, oso argitsua, 5. solairuan, igogailu eta berokuntzarekin. Garajea aukeran. Hilean 850 euro. Harreman izena: Edurne. 606 84 13 25

**Arrasate.** Ikasleentzako etxebizitza bat ematen da errentan. Hiru logela (bat bikoitza), sukaldea, egongela, komuna eta terraza. Unibertsitatetik bost minutura, eta erdigunetik gertu. 696-34 29 26.

**Bergara.** Etxebizitza errentan Matxiategi kalean. Jantzia. 943-76 46 15 edo 652-53 42 81

**Durango.** Pisua errentan.4 logela, egongela eta sukaldea. 5. pisua. Igogailua. 657-79 54 95

**Eskoriatza.** Erdialdean etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, egongela eta bi bainugela. 652-70 08 00

**Etxarri-Aranatz.** Pisua alokagai edo salgai .654-23 41 02.

**Etxarri-Aranatz.** Pisua alokairuan. Jantzita. 3 gela, sukaldea, egongela eta komuna. 636-66 08 76

**Gernika-Lumo.** Pisua alokatzen da. San Juan Ibarra plazan, erdigunean dago eta oso leku lasaia da. 90 m2 ditu, 3 gela eta 2 komun. Guztiz hornituta. Oso txukuna. 699-06 07 71

**Oñati.** Hiru logelako etxebizitza ematen da errentan. Guztiz jantzita. 657-13 33 44.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Antzuola** edo inguruan etxebizitza bat hartuko nuke errentan. Bi edo hiru logelakoa. 603-62 08 84

**Bergara.** Etxebizitza behar dut errentan. 617 12 61 44

**Elorrio.** Etxebizitza baten bila nabil, alokatzeko. Altzariekin eta berogailuarekin. 94-658 21 91. Bego

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Etxebizitza osatzeko logela bat daukagu errentan. Logela handia, bainugela eta guzti. 695-72 79 55

**Arrasate.** Lau logelako etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Bertan langileak bizi dira. 653-71 44 57

**Arrasate.** Irakasle ikasketak egiten hasiko garen bi ikasle gara, enara eta amaia, eta hiru logelako etxebizitza osatzeko pertsona bat behar dugu. Etxea egoera onean dago, 200 euro izango lirateke pertsonako (gastuak aparte). Etxeak bainugela, sukaldea eta 3 logela ditu, indibidualak eta bakoitza bere idazmahaiarekin. 695-71 92 38

**Arrasate.** Etxea osatzeko gela bat edo bi ditugu errentan. 630-71 35 83

**Arrasate.** Logela ematen da errentan. 619-78 63 41

**Arrasate.** Pertsona bat behar dut Erguin aldean etxebizitza osatzeko. 670-59 73 62

**Arrasate.** Pisukide baten bila gabiltza etxebizitza osatzeko. Erdigunean, alde zaharrean. Handia eta argitsua da: 4 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela handi eta eguzkitsua ditu. Alokairua + wifi + telefonoa, 200 euro pertsonako, hilean, gehi gastuak. 665-71 69 10 edo 943-77 07 00

**Arrasate.** Logela ematen da errentan Musakolan. 610-82 02 17.

**Arrasate.** Logela bat ematen da errentan erdigunean, ikasleentzat edo beste edozeinentzat. 648-86 05 49 edo 666-68 00 04.

**Donostia.** Antiguan, gela argitsu bat eta garaje itxi bat alokairuan emateko moduan, kontratuarekin; hilean, 375 euro (errenta aitorpeneko diru laguntzarekin, 280 euro!) eta 60 euro gastuengatik, irailaren 15etik aurrera, epe luzerako (12 hilabete gutxienez); 114 m2ko etxe batean. Beste 2 pertsona langilerekin partekatzeko litzateke (27 eta 29 urtekoak gara; ez gara bikotea). 2 bainu, egongela handi bat, sukalde berriberria, terraza (14m2) eta pizina bat. Paregabeko aukera. Garrantzitsua: urte osorako banku abala eskatzen du etxearen jabeak. 626-22 92 58

**Iruñea.** Urritik aurrera Aralar kalean pisua osatzeko langile baten bila gabiltza. 220 euro + gastuak. 660-97 01 12

**Oñati.** Pertsona baten bila etxea osatzeko. 606-15 11 47

**Oñati.** Logela bat errentan emateko. 617-14 39 41

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Oñati.** 14 m2 garaje bat (marra) salgai Mendiko kalean. 28.000 euro. 661-68 11 24

**Oñati.** Garajea salgai. Olakuan. 7 eta 9 etxebizitzen sotoan. Arantxa. 943-78 19 36 edo 665-70 93 32.

**Segura.** Garagea salgai. 696-72 15 15 .

### 203. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Garaje bikoitza edo bi indibidual ematen dira errentan Boni Laskurain kalean. Lehen solairuan. 610 65 91 29 edo 677 91 68 38.

### 204. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Arbolapeta inguruan garajea errentan hartuko nuke. 652 74 57 42.

## 3/ LOKALAK

### 301. SALDU

**Bergara.** Bulegotarako egokitutako 90 eta 100 m2 inguruko lokal industrialak salgai Atsegina eta bista ezin hobeak. Aukera ona. 943-76 33 56.

### 302. EROSI

**Oñati.** Lokala erosiko nuke, 25-120 metro koadro bitartekoa. 943 79 66 75.

### 303. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Lonja ematen da errentan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 690 95 45 47

## 4/ LANA

### 402. ESKAERAK

**Alegia.** Astegunez,goizez lan egin nahiko nuke alegia inguruko herriren batean, zaintzaile moduan (haur nahiz helduak), etxeko lanak egiten, zerbitzari bezala... Aurrekoetan esperientzia dut eta gainera, lehen hezkuntzako irakasle ikasketak eta begirale titulua ditut. Edozein zalantza argitzeko deitu 616 -07 70 06 telefonora.

**Alegia.** Astegunez, goizez lan egin nahiko nuke Alegia-Tolosa inguruko herriren batean, zaintzaile moduan (haurrak nahiz helduak), etxeko lanak egiten, zerbitzari... Horietan esperientzia dut, eta gainera, lehen hezkuntzako irakasle ikasketak eta begirale titulua ditut. 616-07 70 06

**Aretxabaleta** eta inguruko herrietan emakume gaztea etxebizitzak garbitzeko gertu. 607-73 16 78

**Aretxabaleta.** Emakumea gertu nagusiak eta umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Feli. 943-53 33 92

**Debagoiena.** Emakume bolibiarra haurren zein pertsona edadetuen zaintza lanak egiteko gertu dago. Garbiketan ere egingo luke lan, orduka. 686-33 66 66

**Arrasate.** Emakumea gertu orduka zein etxean bertan bizi izanda nagusiak edo umeak zaintzeko, baita garbitasun lanak egiteko ere. 680-30 24 64

**Arte** Argazkiko AP eta Diseinuko goi mailako teknikari titulua eta Artearen Historiako Lizentziatura amaitzen. Hala ere, edozein arlotan lan egiteko prest. 685 73 06 80.

**Azpeitia.** 20 urteko neska euskalduna, haurrekin lanean esperientziaduena bai begirale moduan, zaintzaile moduan... Arratsaldez haurrak zaintzeko prest egongo nintzateke. 606-42 64 14

**Beasain.** Esperientziadun emakumea, adinekoak zaintzen lan egingo nuke. Deitu: 680-31 70 95.

**Bergara.** Umeak zaintzeko, garbitasun lanak egin edo nagusiak zaintzeko (azken honetan esperientziaduna) gertu nago. Ordutegimalgua. 676-89 50 13

**Bergara.** Emakumea gertu etxeak garbitzeko eta baita sukaldari laguntzaile lanetan aritzeko ere. 665-75 41 32

**Bergara.** Bergara, Antzuola edo Zumarraga. Neska bat gertu dago etxeak, elkarteak eta abar garbitzeko, nagusiak zaintzeko edota zerbitzari eta plantxa lanetan jarduteko. Ordutegi malgua. Erreferentzia onak eta esperientzia handia. 943-76 66 24 edo 634-91 81 73.

**Bergara.** Bergaran haur heziketa ikasi duen emakume euskaldun bat umeak zaintzeko gertu. Egun guztian. 943-53 42 54 edo 688-65 30 62

**Bergara.** Neska euskalduna gertu arratsaldez umeak zaintzeko. 685-77 56 35

**Bergara.** Neska euskalduna gertu 17:00etatik aurrera ume edo nagusiak zaintzeko, zein garbiketa lanetarako. Esperientziaduna. 699 00 99 08

**Bergara.** Emakume bat gertu goiz eta arratsaldez umeak edo nagusiak zaintzeko. 610-34 97 88.

**Bergara, Antzuola edo Zumarraga.** Neska gertu etxeak, elkarteak eta abar garbitzeko, nagusiak zaintzeko edota zerbitzari eta plantxa lanetan jarduteko. Ordutegi malgua. Erreferentzia onak eta esperientzia handia. 943 76 66 24 edo 634 91 81 73.

**Bergara.** Emakumea gertu goiz eta arratsaldez umeak edo nagusiak zaintzeko. 610 34 97 88.

**Bergara.** Esperientziadun emakumea gertu etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. 665 75 41 32.

**Bergara.** Haur Heziketa ikasi duen emakume euskalduna umeak zaintzeko gertu. Egun osoan. 943 53 42 54 edo 688 65 30 62.

**Bergara.** Neska euskalduna gertu arratsaldez umeak zaintzeko. 685 77 56 35.

**Bergara.** Neska gertu 8:00etatik 10:00etara bitartean etxeko lanak egiteko. 943 76 28 12.

**Berriz.** Andre euskaldun bat 3 edo 4 orduz umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko prest. 680-50 95 32 edo 94-622 57 24.

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusi zein umeak zaintzeko edo sukalde laguntzaile jarduteko. Fany. 630-94 65 76

**Debagoiena.** Emakume bolibiarra edozein motatako lanerako gertu. 695-71 27 81

KOROSTI
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Masterreka 92 $m^2$. 237.399 €.
- Masterreka. 88 $m^2$. Igogailuarekin.
- Artekale 40 $m^2$. Berritua.
- Irizar pasealekua 70 $m^2$. Igogailuarekin.
- Zabalotegi 60$m^2$. Oso ondo
- Mekolalde 110 $m^2$. 90.000 €.
- Osintxu. 70 $m^2$. Igogailuarekin. 153.258 €.
- Ibargarai 54 $m^2$. Garajearekin.
- Lorentxoko 73 $m^2$. Eraikitzeko.
- Burdiñate 53 $m^2$. Prezio ona.
- Matxiategi 65 $m^2$. Igogailuarekin.
- Ibarra 47 $m^2$. 146.888 €.
- Bolu 96 $m^2$. Garajearekin.
- Simon Arrieta 70 $m^2$. Prezio ona.
- Zabalotegi 54 $m^2$. 154.761 €.
- Aranerreka 80 $m^2$. 189.319 €.
- San Lorentzo 68 $m^2$. Berritua.
- Herri Lagunak 52 $m^2$. Prezio ona.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, Maduran, San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- Artekale. Logela bat. Berritua.
- GARAJEAK SALGAI Ozaetan. Aukera ona.

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aierra eta Errekalde. Etxe onak.
- Herriko plaza 95 $m^2$. Oso etxe ona.

**Elgeta:**
- **AUKERA.** Etxebizitza adosatuak salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua. **PREZIO EZIN HOBEAK: 249.210 €tik hasita.**
- San Roke eta Salbador. Etxe onak.

**Soraluze:**
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Arrizuri, 97 $m^2$, garajearekin.
- Aranerreka, 80 $m^2$, oso ondo. Prezio ona.
- Matxiategi, 72 $m^2$, eguzkitsua. Prezio ona.
- Zabalotegi, 54 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 $m^2$, oso eguzkitsua.
- Burdiñate, 104 $m^2$, oso ondo.
- Ibargarai, apartamentua, 40 $m^2$, berria, garajea aukeran.
- Justo Garate, 80 $m^2$, oso ondo.
- Herrilagunak, 60 $m^2$.
- Martoko, 87 $m^2$, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 $m^2$, ondo.
- Ibargarai, 80 $m^2$ oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 $m^2$ oso ondo.
- Zabalotegi 80 $m^2$, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 $m^2$, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Toki Eder plaza, 98 $m^2$, oso ondo.
- Simon Arrieta, 57 $m^2$, terrazarekin.
- Zurradero, 81 $m^2$, oso ondo.
- Zubieta, 125 $m^2$, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 $m^2$, berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 $m^2$.
- San Antonio, 65 $m^2$, eguzkitsua.
- Masterreka, 46 $m^2$, eraikuntza berria.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.**
- San Lorentzon aukera ona.
- Basarte. 69 $m^2$. Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 $m^2$. Apartamentua. Oso ondo.
- Artekale, 48 $m^2$. Apartamentua. Oso ondo.
- **Garajeak salgai San Lorentzon. Aukera ona.**

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 $m^2$, berria.
- Sagarerreka, 58 $m^2$, aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

**Debagoiena.** Emakumea gertu ume zein nagusiak zaintzeko, baita etxeko lanak egiteko ere. 663-65 78 43

**Debagoiena.** Neska gertu ume zein nagusiak zaintzeko edo elkarteak garbitzeko. Esperientzia daukat. Ordutegi malgua. Dorleta. 618-00 08 28 edo 943-79 82 43

**Debagoiena.** Enkofratze lanetan aritutako lehen mailako ofiziala lanerako gertu. Bestelako lanak ere egingo nituzke. 673-03 09 60

**Debagoiena.** Emakumea gertu sukaldari lanak egiteko asteburuan edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanetarako. 619-78 63 41

**Debagoiena.** Emakumezko batek etxeko lanak egin eta zaharrak zainduko lituzke. 606-64 16 09

**Debagoiena.** Sukaldean, jatetxe zein hoteletan lan egingo nuke. Baita nagusiak zaintzen edo eraikuntzan ere. Informatika ezagutzak ditut. 602- 12 03 47

**Debagoiena.** Neska gertu zerbitzari edo garbiketa lanetarako. 679-04 42 68

**Debagoiena.** Neska gertu garbiketan, sukalde laguntzaile zein nagusi eta umeak zaintzen jarduteko. 630-20 12 03 edo 638-10 28 85

**Debagoiena.** Neska gertu edozein lanetarako. Zerbitzari lanetan esperientziaduna naiz. 671-99 92 70

**Debagoiena.** Neska boliviarra lanerako gertu. Etxean bizi izaten edo asteburuetan. Legezko dokumentu guztiekin. 618-14 71 34

**Debagoiena.** Mutila gertu soldatzaile lanak egin edo eraikuntzan lan egiteko. 677-17 43 75

**Debagoiena.** Mutila gertu garbiketa, zerbitzari, sukaldean zein bestelako lanetarako. Autoa daukat. 671-84 71 71

**Debagoiena.** Mutila gertu garbiketa edo zerbitzari lanetan jarduteko. Autoa daukat. 689-88 80 23

**Debagoiena.** Emakumea orduka lan egiteko gertu, nagusiak zaintzeko, garbiketa lanetan edota sukaldari laguntzaile moduan. Esperientziaduna eta erreferentzia onekin. Egunez eta gauez lan egiteko prest; interesatuok bidali *animilena@hotmail.com* 943-79 04 69

**Debagoiena.** Emakume euskaldun bat gertu,nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 653-70 79 38.

**Debagoiena.** Neska bat gertu atariak garbitzeko. 619-87 95 57.

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusi zein umeak zaintzeko edo sukalde laguntzaile jarduteko. Luisa. 638-89 98 60

**Debagoiena.** Mutila gertu edozein lan egiteko. 606-78 35 94

**Debagoiena.** Neska bat etxeko lanak egiteko prest, orduka, interna edo ez; edozein modutan. Tabernetan ere lan egingo nuke. Esperientzia daukat sukaldean. Eta garbiketa lanak ere egiteko prest nago. Erreferentziak dauzkat, baita paper guztiak behar bezala ere. 943-53 36 72 edo 677-73 79 59

**Debagoiena.** Mutil bat garbiketa lanetarako gertu dago, edo nagusi, gaixo eta umeak zaintzeko. Etxean bertan bizitzeko gertu legoke. Deitu 638-44 41 94 telefono.

**Debagoiena.** Neska gertu etxean zein egoitzatan nagusiak zaindu edota garbiketak egiteko. Deitu 629-80 77 73 telefono zenbakira

**Debagoiena.** Neska gertu garbiketa lanetarako edo nagusi, gaixo zein umeak zaintzeko. Etxean bertan bizi izateko gertu nengoke. 659-57 41 95

**Debagoiena.** Neska gertu nagusi edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanetan jarduteko. Etxean bizi izaten edo bestela. Erreferentzia onak ditut. 638-93 11 48

**Debagoiena.** Neska gertu nagusiak zaintzeko, orduka garbiketak egiteko edo tabernetan lan egiteko. 648-46 90 51

**Debagoiena.** Taberna, etxebizitza edo garajeak garbitzen ditut. 679-60 08 48

**Debagoiena.** Arte argazkiko ap eta diseinuko goi mailako teknikari titulua dauka, eta artearen historiako lizentziatura amaitzen. Hala ere, edozein arlotan lan egiteko prest. 685-73 06 80.

**Debagoiena.** Mutil gazte bat lan egiteko gertu. Gidabaimena badaukat. 685-70 76 25.

**Donostia.** Neska euskalduna irailetik aurrera goizetan haurrak zaindu edo eskolara eramateko prest. 685-70 17 09

**Donostia.** Arratsaldez lan egingo nuke, haurrak zaintzen edota etxeko lanak egiten laguntzen. Irakaslea naiz, diplomaduna eta lizentziaduna. 628-04 15 26

**Donostia.** Haurrak zaintzen edota etxerako lanak egiten laguntzeko prest nago, arratsaldez. Irakaslea naiz; ordutegi malgua dut, eta diplomaduna eta lizentziaduna naiz. 628-04 15 26

**Donostia.** Pedagogia ikasten duen iparraldeko neska bat naiz, begirale izaiteko titulua badaukat eta umeen zaintzan esperientzia badaukat. Zuen seme alabak arratsaldetan zaintzeko norbait baldin behar baduzue deitu:(0033) 663-13 79 25

**Durango.** Andre euskaldun bat behar dugu gure umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Zazpi ordu egunean. 605-82 50 26

**Durango.** Emakume euskalduna behar da ume txiki bat zaindu eta etxeko lanak egiteko Durangon, 8 ordutan. 656 -73 77 79

**Durango.** Emakume arduratsu bat prest dago orduka umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko, etxeak garbitzeko eta antzeko lanak egiteko. Juana. 670-67 46 41.

**Dublin (Irlanda).** Gure haurra zainduko duen au pair baten bila gabiltza. Familia euskal-irlandarra. Euskaraz hitzegitea ezinbestekoa da. Astean bost eguneko lana eta urriak hasieran hastekoa. Dublin inguruan. Baldintzak jakiteko bidali mezu bat *igorgon@gmail.com* helbidera.

**Elorrio.** Elorrion neska gazte bat arratsaldez haurrak zaintzeko prest dago, baita haurraren etxeko lanez arduratzeko. 600-36 13 81.

**Elorrio.** Neska euskalduna eta esperientziaduna arratsaldetan edo orduka (astelehenetik ostiralera) haurrak zaintzeko prest. Haur hezkuntzako goi mailako heziketa zikloa eginda eta gaur egun hezkuntza bereziko ikasketak egiten.688-64 06 04 (arratsaldez).

**Gasteiz.** Neska euskaldun bat, umeak zaintzen esperientzia duena, prest dago umeak zaintzeko edo klase partikularrak emateko. *irati_sorondo@hotmail.com* 685-77 18 95

**Iurreta.** 27 urteko neska euskalduna,iurretarra, astelehenetik ostiralera goizeko 07:00etatik arratsaldeko 16:00etara lan egiteko prest. Umeekin, ezindu psikikoekin eta adinekoekin esperientzia. Gizarte eta kultur animazioa ikasia. Neure kotxea daukat. *lorena_ixorreta@hotmail.com* 690-99 66 18

**Olaberria.** Neska euskalduna eskaintzen da haurrak zaintzeko. EGA titulua daukat eta umeekin lanean esperientzia. Haurrak zaintzeaz gain etxean laguntzeko ere prest egongo nintzateke, ez daukat arazorik beste herri batzuetara mugitzeko. 628-45 37 34

**Oñati.** 26 urteko neska euskalduna haurrak zaindu, eskolara eraman edota etxeko lanak egiteko gertu, Oñati eta inguruko herrietan. Hezkuntza eremuan, sukalde eta garbiketa lanetan esperientzia daukat. Telefonoa: 615-78 10 68.

**Oñati.** Neska arduratsu bat prest dago arratsaldetan haurrak zaintzeko. 13:00etatik aurrera libre nago. 618-09 47 87 edo 943-71 62 03.

**Oñatiko neska arduratsua** arratsaldeetan haurrak zaintzeko prest. 13:00etatik aurrera libre nago. Deitu 618 09 47 87 edo 943 71 62 03 zenbakira.

**Tolosa.** Kaixo! Mutil gaztea, lan bila. Edozein lanetarako prest nago, esperientzia: hostalaritzan, almazenetan, auto tailerretan, fabrikako askotariko lanpostutan(zerra, grua, femich, prentsan, soldaduran...)647-14 23 58

**Zaldibar.** Neska garbiketa lanetan edo dendetan lan egiteko prest. Autoa dut: 659-97 32 24

**Zaldibar.** Gazte euskalduna naiz, eta lan bila nabil. Informatikako goi-ikasketak ditut. Zaldibar edo inguruetan lan egiteko prest. Telefonoa: 679-94 89 23.

**Zaldibar.** Neska euskaldun bat lan bila dabil, garbiketak egiteko, portaletan, dendetan edo lantegietan. Autoa eta gidabaimena. Zerbitzari moduan ere lan egin dezaket. Telefonoa: 659-97 32 24 (Izaskun).

**Zarautz.** Gizon euskalduna naiz,lan egiteko prest nago, edozein lanetarako. Telefonoa: 658-73 08 08

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Arrasate.** Batxilergoko bigarren mailako eskola partikularrak behar ditut. 685 75 80 42.

**Bergara.** EGA azterketa prestatzen lagunduko didan norbait beharko nuke. Gorka. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 628 51 22 78.

**Bergara.** DBHko eskola partikularrak emango dizkidan norbait behar dut. 20:00etatik aurrera deitu. 943 76 03 75 edo 605 26 24 62

**Debagoiena.** Errusiera irakats diezadakedan pertsona baten bila nabil. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 679 15 31 65.

**Italierako** eskolak emango dizkidan norbaiten bila nabil. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 685 73 06 80.

**Kontabilitate eta ekonometria** eskolak jasoko nituzke Arrasaten edo inguruan. 626 24 82 36.

**Latinezko eskolak** jasoko nituzke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688 61 28 40.

### 502. EMAN

**Abadiño.** Fisikako ikaslea durangaldean klase partikularrak emateko prest. LH, DBH edota batxilergokoak.Esperientzia. 645-72 02 36

**Antzuola.** Frantses, ingeles eta alemaneko eskolak. Maila oinarrizkoa eta ertaina. 943-76 62 05

**Aretxabaleta.** Bigarren batxilergora arteko eskola partikularrak ematen ditut. 653-01 76 67

**Arrasate.** Eskola partikularrak ematen ditut lehen hezkuntzako (6-12) umeei. Irakasle ikasketak ditut. 650-23 34 98

**Arrasate.** Eskola partikularrak ematen ditut. Dbh eta batxilergo mailak barne. Itsaso. 699-39 20 20 edo 943-79 78 96

**Arrasate.** Eskola partikularrak ematen dira. Goimailako ingeniari industriala. Matematika, fisika, kimika, teknologia, marrazketa, ... Maila guztiak unibertsitatea barne. Telefonoa: 630-71 35 83

**Arrasate.** Neska euskalduna gertu DBHrainoko eskola partikularrak emateko. Goi mailako ikasketak egiten ari naiz. Ikaslearen etxera bertara joateko aukera. 10 euro orduko. 16:00etatik aurrera deitu. 690-66 19 80

**Arrasate.** Eskolapartikularrak ematen dira, batxilergo mailara arte. 677-75 12 90 edo 943-79 79 86

**Arrasate.** Ikasle euskalduna gertu Lehen Hezkuntzako edo DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleei eskola partikularrak eman edota etxeko lanekin laguntzeko. Norberaren etxean egiteko aukera. 607 96 78 65

**Arrasate.** Ingeleseko eskolak ematen ditut. Maila guztiak, sei urtetik aurrera. Arantxa. 688-64 12 56

**Arrasate.** Arlo guztiak, Lehen hezkuntzan eta DBHn. Ingelesa ere ematen dut. Telefonoa: 619-17 68 30.

**Arrasate.** Unibertsitateko ikasle euskalduna arratsaldez eskola partikularrak emateko prest. 13:00etatik aurrera deitu. 636 12 05 79

**Azpeitia.** Magisteritza ikasketak dituen neska gaztea, lehen hezkuntzako ikasleei klase partikularrak emateko prest. 628-91 27 98 (ane)

**Azpeitia.** Lehen hezkuntzako eta dbhko ikasleentzako ingeles klaseak ematen ditut. Ingeles irakasle tituluduna. 669-27 45 60

**Beasain.** Eta Ormaiztegin klase partikularrak emango nituzke, haur, lehen edo bigarren hezkuntzan. Lizentziaduna naiz, EGA dut eta esperientzia daukat. 620-00 25 12. *partikularrak@gmail.com.*

**Beasain.** DBHko eta lehen hezkuntzako ikasleei (6 eta 16 urte bitarteko umeei) klase partikularrak goierrin ematen dizkien psikologiako 5. Mailako ikaslea naiz. 615-71 40 84.

**Bergara.** Kaxoi flamenkoko eskolak (bakarkakoak zein taldekoak) ematen dira, edozein musika estilori aplikatutakoak. Guille 680 49 07 99 edo 943 76 34 82

**Bergara.** DBHko eskola partikularrak ematen ditut. 20:00etatik aurrera deitu. 943-76 03 75 edo 605-26 24 62

**Bergara.** Ingeleseko elkarrizketa lantzeko eskola partikularrak ematen ditut. Telefonoa: 654-94 87 26

**Bergara.** Irakasle esperientziadun batek LH eta DBHko lehen zikloko eskola partikularrak ematen ditu. Ingeleseko *first.* 636-16 30 10

**Bergara.** Irakasle esperientziadunak LH eta DBH-ko lehen zikloko eskola partikularrak ematen ditu. Ingeleseko First Certificate du. 636 16 30 10

**Bergara.** Pintura eta marrazketa eskolak ematen dira. 943 76 40 14 edo 651 74 21 54

**Bilbo.** 639-52 86 79. Klaseak ematen dira.

**Bilbo.** Umeei klaseak eman edo eskolako lanak egiten laguntzeko prest, Bilbon. 667-00 53 36

**Debagoiena.** Matematikako eskola partikularrak ematen dira. Kurtsoan zehar. DBH eta Batxilergoa. 696-38 10 07

**Debagoiena.** Psikologiako laugarren mailako ikaslea arratsaldez eskola partikularrak eman edota haurrak zaintzeko prest. Esperientziaduna. Zorione. 669 97 46 65

**Donostia.** Frantseseko klase partikularrak ematen ditut. Frantses filologian lizentziaduna eta esperientziaduna. Maila eta adin guztietarako. Delf, dalf eta hizkuntz eskola ofizialeko azterketak prestatzeko626-60 37 75.

**Donostia.** Klase partikularrak lehen hezkuntza eta DBHko ikasleentzat. Esperientzia handiko irakaslea, heziketa berezian diplomaduna eta gizarte eta kultur antropologian lizentziaduna. 628-04 15 26.

**Durango.** 4. mailako Telekomunikazio Ingenieritzako ikasle euskalduna Batxilergoko etaDBHko klaseak Durangon emateko prest. Espezialitatea matematika klaseetan. 635-74 61 76

**Elorrio.** Elorrion klase partikularrak ematen ditut. Telefonoa: 675-70 61 05.

**EGA edo 4. HE** eskuratu nahi? Euskal Filologian lizentziaduna prest eskolak emateko, EGA edo 4. HE lortzeko. Deitu eta hitz egingo dugu. 679 84 53 68

**Gasteiz.** Klase partikularrak emateko eta haurrak zaintzeko prest nago. Haur hezkuntzako ikasketak egiten ari naiz eta ondorioz arratsaldetan bakarrik lan egin ahalko nuke Esperientzia daukat bai klaseak ematen eta baita haurrak zaintzen ere. Aisialdirako monitore titulua daukat. Ega ere badaukat. 648-70 15 92. Etxeko lanak egiteko prest ere banago.

**Gernika-Lumo.** Lehen hezkuntzan eta musika hezkuntzan diplomatua, begirale tituluarekin eta esperientziaduna klase partikularrak emateko, umeak zaintzeko edo euskal herriko edozein gunetan irakasle edo begirale bezala lan egiteko prest. 687-95 06 05

**Gernika-Lumo.** Irakasletza titulua dut (lehen hezkuntza espezialitatea), baita haur hezkuntzako goi mailako ziklo bat ere. Lan bila nabil, eta gertu nago klasepartikularrak nire etxean zein ikaslearen etxean emateko. 652-70 04 40

**Oñati.** Enpresenadministrazio eta zuzendaritzan lizentziatua irailetik aurrera arratsaldeetan LH edota DBHko klase partikularrak emateko prest Telefonoa: 606-15 11 47

**Oñati.** Irakaskuntza munduan esperientzidun ingenieri mekanikoa, klase partikularrak emateko prest. DBH nahiz lanbide heziketako ikasleei. Telefonoa: 646-42 13 63

**Villabona.** Ingeleseko klaseak ematen dira Gipuzkoa mailan. Taldeka edo bakarka. Maila ezberdinak. Irakasle tituluduna.664-16 02 68 *continental56@hotmail.com*

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Autokarabana.** 6 pertsonarentzako autokarabana alokairuan hartuko genuke. Eguberrietatik errege egunera arteko egunetan. 647-97 88 45

**Opel Corsa** autoa salgai. Oso ondo dago. 1993koa. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 655 72 41 22.

**Clio familiarra salgai.** Clio grand tour berria. Dynamique 1.5 dci 85 zp. Gris zilarkara. 2 urte eta erdi. 30.000 km. Diesela. 12.000 euro. Aire egokitua, erreguladorea, limitadorea. Break. Airbagak. 5 ate. Bihurguneetarako argi gehigarriak. Aurreko kristal igogailu elektrikoak. Ixte sistema zentralizatua. Atzeko banketa 1/3-2/3. Cd. Garantia: 2012-01-22. Urteko errebisioa pasatu berri. 609-93 90 95.

**Seat 600 l.** Oso egoera onean. Itva pasatu berri. 645717821

**California t4 salgai.** 2400 diesela. 146.000km. Egoera onean. Sukaldea, hozkailua eta abar dauzka. 4 pertsonarentzako oheak (behean eta goian). 13.700 euro. 671-84 15 63. Jon.

**Furgoneta egokitua . Telefonoa:** 649-41 63 62.

**Kawasaki - versys 650.** Egoera onean, beti garajean. 2007koa da. 12.400 km, gorria. Kutxa opari. 4.500 euro. 690-07 15 72.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Indioilar beltzak** salgai. Urtebeteko bikote bat eta hiru hilabeteko hiru bikote. 943 79 96 55.

**Kona Stinky** bizikleta salgai. Berdea. 3 urte ditu. 950 euro. Interesatuok deitu zenbaki hauetako zenbaki batera: 945 44 54 05 edo 666 60 70 27.

**Pointer txakurkumeak** ematen ditugu opari. 656-71 73 02

**Rottweiler txakurkumeak salgai.** Espainiako txapeldunen kumeak dira. 605-75 91 42

**Setter ingeles** txakurkumeak salgai. 2010eko maiatzean jaioak. Oilagorretarako aproposak. 605-73 75 30

**Spaniel txakurkume** arra salgai. 2010eko maiatzaren 15ean jaioa. Zuri-beltza. Arkaitz. Telefonoa: 610-36 39 94

**Usoak** salgai 5 eurotan. Deitu telefono zenbaki honetara: 699 72 34 42.

### 703. EMAN

**Pointer** txakurkumeak ematen dira opari. 656 71 73 02.

**Txakurkume bat oparitzen dugu.** Abuztuaren bigarren astean jaioa. Ama border collie bat da. 663-91 12 61

**Txakurkumeak oparitzen dira.** Arratoi-txakur eta ehiza-txakur nahasketa. Hiru hilabete. 645-70 68 21 Inma.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Akordeoia salgai.** 120 baxu, b-14c. Murriztua. 647-51 52 80

**Altzariak.** Dekorazio aldaketagatik, bi plazako sofa-ohea, Ikeako mahaia eta 19 hazbeteko Philips telebista DVD integratuarekin salgai. Gazteendako egokia. Oso merke eta egoera onean. 17:30etik aurrera deitu..

**Aulkia salgai**, bizikletan umea eramatekoa. Bellelli markakoa. Beltza eta horia. Egoera onean dago. Gutxi erabilita. 20 euro. 658 73 35 96.

**Bugaboo Cameleon** salgai. 2008koa. Kapazoa, negu eta udarako zakuak, euritarako burbuja, moskitera eta bi eguzkitako. Orain dela 5 hilabete aldatutako txasia. 500 euro. 618 19 10 96

**Chico Trio** aulkia, kapazoa eta maxicosia salduko nituzke. Egoera onean. 120 euroan hiru gauzak. Deitu 678 59 47 71 edo 637 00 01 58 telefono zenbakira.

**Hozkailu txikia** salgai. Egokia gazte lokaletarako. Egoera oso onean, 2009ko maiatzean erosia. A klaseko eraginkortasun energetikoa dauka. Balay etxekoa. 300 €. Deitu 653 74 23 17 telefono zenbakira.

**Karabana** salgai. 2008 urtekoa. Scarlet markaduna. Hiru anbiente. 12.000 euro. 617 08 60 68.

**Karabana** salgai. Adria Unica D-391-DK. Ondo zainduta. Interesatuok deitu zenbaki honetara:. 636 85 74 43.

**Karabana** salgai. Burstner 490. Prezio onean. Oso ondo zainduta. Sei pertsonarendako. 635 74 17 37.

**Klarinetea** salgai. Interesatuok deitu zenbaki honetara:. 617 80 87 85.

**Koltxoi** berri-berria salgai (estreinatu gabea). 1,90x1,50 m. Pikolin. 619 87 95 57.

**Kona stinky bizikleta salgai.** Berdea. 3 urte ditu. 950 euro. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 945-44 54 05 edo 666-60 70 27.

**Piraguarako anoraka.** Berri berria dago, artistic markakoa, mikroporeskoa , m tailakoa eta semi-lehorra. 679-10 95 23

**Oilaskoak lumatzeko makina salgai.** Interesa duenak dei dezala 606-77 90 96 telefono zenbakira.

**Pixoihalendako edukiontzia** salgai. Ia berria. 40 euro. Deitu 672 25 74 24 telefonora.

**Umeendako aulkia.** Hiru erroberakoa. 0 taldekoa. Kapazoa eta aulkia. Poltsa, eguzkitakoa, aterkia jartzekoa eta hiru zaku salgai. Dena egoena onean. 400 euro. Deitu 686 11 67 02 telefono zenbakira.

### 802. EROSI

**Akordeoi bat erosi nahi dut.** 8-10 urteko ume batentzako akordeoi kromatiko murriztu bat erosi nahi dut. Deitu 665-73 33 56 telefono zenbakira.

**Inesca Dakota** edo antzerako karro-denda erosiko nuke. 696 40 82 19.

**Lursaila erosiko nuke** Bergara inguruan. Deitu 669 17 09 51 telefono zenbakira.

### 803. EMAN

**Pyrenaica,** Integral, Kezka eta Bike aldizkari zaharrak ematen dira. Deitu 678 56 50 44 telefono zenbakira.

### 806. GALDU

**Automobileko giltza galdu dut.** Renault Megane autokoa da. Deitu telefono zenbaki honetara: 680-60 94 74

**Betaurrekoak Aretxabaletan.** Graduatutako betaurrekoak galdu nituen irailaren 28an, arratsaldez, Aretxabaletako Araba ibilbidean. Aurkitu badituzu, deitu mesedez. Sarituko da. 943 53 26 16.

**Kartera Altsasun.** Festetan kartera bat aurkitu zen. Galdu duenak 609-26 93 88 telefonora hots egin dezake, arratsaldeko 18:00etatik aurrera.

**Patinetea** galdu da Aretxabaletako Eguzki tabernako plazan. Aurkitu baduzu, deitu zenbaki hauetara, mesedez: 943 79 58 98 edo 618 49 28 56.

**Patinetea.** Irailaren 21ean Arkupetik 19:00ak eta 20:00ak bitartean nire patinetea hartu zuenak bere lekura buelta dezala, mesedez. Gogoratu Arkupen kamerak daudela. 688 60 26 59.

**Poltsa beltza** galdu nuen irailaren 14an Elorregiko biribilgunean (San Prudentzio). Aurkitu baduzu, deitu zenbaki honetara, mesedez. Eskertuko da. 699 40 73 35.

## 9/ HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Donostia Alde Zaharreko Joaldunak.** Zuk ere joaldun izan nahi duzu? Etorri gure entseguetara eta proba egin! Edo zure herriko jai edo ikuskizunetan gu han egotea nahi baduzu ere bai. Harremanetarako idatzi mezu bat *aldezaharrekojoaldunak@gmail.com* e-postara.

**Euskara-frantsesa.** Hizkuntza elkartrukea egingo nuke. Nik frantsesez moldatzen irakatsiko nizuke eta trukean euskara ikasi nahi nuke. Harremanetarak deitu 602-12 03 47 telefono zenbakira.

**Zarautzera lanegunetan.** Tolosaldetik edota Goierritik Zarautzera autoz joateko jende bila. Irten, 07:00etatik 08:00etarako tartean; handik, bueltan, 15:00etatik 16etara. Deitu telefono zenbaki honetara: 688-60 67 15.

Ikolan lanaldi
ALDIBATEKO LANA • TRABAJO TEMPORAL
ALDIBATEKO LANA
Senpere,7 (zentru komertziala) • BEASAIN
943-16 20 48
Ikusi lan eskaintzak:
www.ikolanaldi.com

LAZKAO INMOBILIARIA

AZKEN PISUAK SALGAI
Bi logela eta duplexak
Irailean eskrituratzen dira
Jose Lasa, 4-behea - 20210 Lazkao • 943-88 37 39
www.lamylazkao.com

SALBIDE
Higiezinen zerbitzuak
Bizkaia kalea, 6 • 20800 Zarautz
Telef.: 943-01 07 00 • Mug.: 665- 71 85 96
www.inmosalbide.com

**Aizarnazabal.** 3 logelako etxebizitza. 10 metro koadroko trastelekuarekin. Oso prezio onean. 33.000.000 pezeta.

**Aizarnazabal.** AUKERA ONA. Etxebizitza eraiki berria. 2 logela. 30.000.000 pezeta.

**Zarautz.** Itxasmendi. 3 logela eta 2 bainugelako etxebizitza. Altua eta egoera onean. 51.000.000 pezeta.

**Zarautz.** Vista Alegren. 2 logela ditu. Terraza handia. Eguzkitsua. 49.500.000 pezeta.

**Zestoa.** Arroa behea. 2 logelako etxebizitza. 28.000.000 pezeta.

**Getaria.** Herrerieta kalea. 3 logela eta 2 bainugelako etxebizitza. Trastelekuarekin. Egoera onean. Prezio onean: 42.500.000 pezeta.

**Aia.** Eraikuntza berria. 3 logela, 2 bainugela eta 127m2ko terraza. 46.588.000 pezeta.

**Aia.** Santio auzoa. AUKERA BIKAINA. 92 m2ko 3 logelako etxebizitza. 15m2ko tratelekuarekin. Erreforma behar du. 25.885.000 pezeta.

## gazte zerbitzua

**AISIA**

**> Izan boluntario 2012ko Joko Olinpikoetan.** Londresen ospatuko diren 2012ko Joko Olinpikoetarako boluntarioak behar dituzte. Hiru egunetan prestakuntza jaso eta beste 10 egunez lan egiteko aukera duzu, primerako giroan! Izena eman urriaren 27a baino lehen! http://*www.london2012.com*.

**> Kultur Zirkuitua.** Kutxa. Gipuzkoako gazte sortzaileen lanak ezagutu nahi? Donostian izango da Kutxa Kultur zirkuitua. Urriaren 8,9,10,11 eta 12an.< Erakusketak, kontzertuak, DJak zuzenean, moda pasarelak...

**LANA**

**> Huheziren lan poltsa berria.** Lizentziatua izatea. Doktore izatea baloratuko da, Kudeaketarako gaitasuna izatea, giza harremanetan nahiz talde lanean trebea eta euskara eta gaztelera menderatzea. Ingelesa eta portugesa baloratuko dira. Lanki ikertegian aritzeko lan poltsa da: kooperatibagintzan eta autoerakotaren formazio eta ikerketa eremuetan, erakundeen interbentzio eta parte-hartzean, garapeneko lankidetza eta ekonomian aritzeko. Epea: urriak 10.

**> Ekonomia/finantza arduraduna.** Pasaiako Udala. Pasaiako portuko agintaritzaren ekonomia finantza arduradun lanpostu bat betetzeko deialdia. Gutxienez 18 urte izatea. Ekonomia eta enpresa zientzien Lizentziatura edo Enpresen administrazioa. Epea: urriaren 8a.

**IKASTAROAK**

**> Sorosle eta sorospen.** DYA. Zarautzen sorosle eta lehen sorospen ikastaroa emango da. Epea: urriaren 13a.

**> Elikagaien manipulazioa.** Elkolab S.Coop. Elikagaien Manipulazio Ikastaroa urriaren 6 eta 7an Zarautzen.

gazte informazioa

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**
Biteri etorbidea 3 • 943 25 20 65.
*gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net*

**BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Kultura etxea • 943 77 91 57
*gzerbitzua@euskalnet.net*

**OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
*gazteinformazioa@oinati.net*

## astea GOITBn

### Astelehena, 4



**> Oñatiko San Migel jaietan batutakoa ikusgai**
**19:45**

Zapatuko Herri Egunean eta asteleheneko Errosaixo Bixamon egunean Oñatin jasotakoak izango ditugu hizpide *Magazinea*-n.

- **13:15** Marrazki bizidunak.
- **13:45** Kantari.
- **14:15** Eltze beroa.
- **14:45** Berriak.
- **15:15** Erloklip.
- **15:45** Ikusmira.
- **16:15** 28 Klip.
- **16:45** Berriak.
- **17:15** Marrazki bizidunak.
- **17:45** 28 Klik.
- **18:15** Marrazki bizidunak.
- **18:45** Berriak.
- **19:15** Kantari.
- **19:45** Goiena Magazinea.
- **20:45** Harmailatik.
- **21:30** Goiena Magazinea.
- **22:30** Harmailatik.
- **23:00** Gipuzkoakultura.
- **23:30** Goiena Magazinea.
- **00:30** Emisio amaiera.

### Martitzena, 5



**> Joseba Egibarrekin solasaldia**
**19:45**

Joseba Egibar GBBko burua eta EAJko bozeramailea solasean izango da Eneko Azkaraterekin eta Arritxu Barrusorekin.

- **13:15** Marrazki bizidunak.
- **13:45** Kantari.
- **14:15** Onein.
- **14:45** Berriak.
- **15:10** Harmailatik.
- **15:50** Sukalki Gernika.
- **16:20** Erloklip.
- **16:45** Berriak.
- **17:10** Marrazki bizidunak.
- **17:35** Herriz-herri: Elgorriaga.
- **18:15** Marrazki bizidunak.
- **18:45** Berriak.
- **19:15** Kantari.
- **19:45** Goiena Magazinea.
- **20:45** Harmailatik.
- **21:30** Goiena Magazinea.
- **22:30** Iragana gogoratuz.
- **23:00** 28 Klip.
- **23:30** Goiena Magazinea.
- **00:30** Emisio amaiera.

### Eguaztena, 6



**> Zinemaren gaineko tertuliaren estreinaldia**
**22:15**

Film estreinaldiei buruz hitz egingo dute Edu Mendibil, Imanol Gallego eta Iñaki Igartuak, Txomin Madinaren gidaritzapean.

- **13:15** Marrazki bizidunak.
- **13:45** Kantari.
- **14:15** Eltze beroa.
- **14:45** Berriak.
- **15:10** Iragana gogoratuz.
- **15:50** Onein.
- **16:20** 28 klip.
- **16:45** Berriak.
- **17:15** Marrazki bizidunak.
- **17:35** Harmailatik.
- **18:15** Marrazki bizidunak.
- **18:45** Berriak.
- **19:15** Marrazki bizidunak.
- **19:45** Goiena Magazinea.
- **20:45** Iragana gogoratuz.
- **21:15** Goiena Magazinea.
- **22:15** Goiena Magazinea tertulia.
- **23:15** Goiena Magazinea
- **00:15** Jazz jaialdia.
- **00:45** Emisio amaiera.

### Eguena, 7



**> Joseba Tapiaren disko berriaz erreportajea**
**22:15**

Tapiak lan berria aurkeztu du eta horren gaineko erreportajea izango da, besteak beste, *Gipuzkoakultura* saioan.

- **13:15** Marrazki bizidunak.
- **13:45** Kantari.
- **14:15** Eltze beroa.
- **14:45** Berriak.
- **15:15** Gipuzkoa kultura.
- **15:45** Goiena Magazinea, tertulia.
- **16:45** Berriak.
- **17:15** Marrazki bizidunak.
- **17:45** Onein.
- **18:15** Marrazkibizidunak.
- **18:45** Berriak.
- **19:15** Kantari.
- **19:45** Goiena Magazinea.
- **20:45** Ipupomamua.
- **21:15** Goiena Magazinea.
- **22:15** Gipuzkoakultura.
- **22:45** Esatea libre.
- **23:45** Goiena Magazinea.
- **00:45** Emisio amaiera.

### Egubakoitza, 8



**> 'Ipupomamua' haurrentzako saio berria**
**18:00**

Eguenean estreinatu zen etxeko txikienendako saio aproposa eskainiko dute arratsaldean. Ipuin kontaketa bat izango du.

- **13:15** Marrazki bizidunak.
- **13:45** Kantari.
- **14:15** Onein.
- **14:45** Berriak.
- **15:15** Ur eta lur.
- **15:45** Erloklip.
- **16:15** Herriz-herri
- **16:45** Berriak.
- **17:15** Marrazki bizidunak.
- **18:00** Ipupomamua.
- **18:45** Berriak.
- **19:15** Kantari.
- **19:45** Goiena Magazinea.
- **20:45** Gipuzkoa kultura.
- **21:15** Goiena Magazinea.
- **22:15** Ikusmira.
- **22:45** Erreportajea: Imaz memoriala.
- **23:45** Goiena Magazinea.
- **00:45** Emisio amaiera.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**> Neguko programazioarekin itzuliko da Arrasate Irratia, gaurtik aurrera**
**10:00**

*Igo autobusera* irratsaioa garajetik aterako da astelehenean bertan. Beraz, Arrasate Irratia neguko programazioarekin itzuliko da. Hala ere, ohi bezala, entzule finendako opariak zozketatzen jarraituko dute. Aste honetan, besteak beste, Danbakako materiala banatuko dute.

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.
Amaia Doyague arraunlaria; Igor Elordui AEKko Komunikazio arduraduna; Ibili munduan geltokian, Iñaki Araiz; Manu Romano Golden Apple Quartet taldeko kidea; lorategiaren geltokian kaktusen gainen egingo dute berba...

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ibili Munduan geltokia
Elkarrizketak
Lorategiaren gelltokia
Zozketak
Zorion agurrak
(parte hartzeko: 943 71 17 31)
**12:05** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**12:20** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**17:15** Zorion agurren tartea (errep.)

## telealbisteak

**GOIENA TELEBISTA** > GAZTETXOENDAKO SAIOAK

# Haur eta gaztetxoendako saio berriak eskainiko dituzte urritik aurrera

Marrazki bizidun berriak eta 'Ipupomamua' saioa eskainiko dituzte, 'Kantari'-z gain, etxeko txikienendako

**AMAIA TXINTXURRETA** > ARRASATE

Goiena Telebistak haur eta gaztetxoendako programazio eskaintza zabaldu egingo du urritik aurrera. *Kantari* karaoke ikuskizunaz gain, marrazki bizidun berriak emango ditu: *Patruila 03*, besteak beste. Gainera, ipuinak entzun, ikusi, bizi eta gozatzeko saio berri bat ematen ere hasiko da: *Ipupomamua*.

**'IPUPOMAMUA'**

Ipuina, poema, marrazkia eta mamua biltzen ditu hitz bakarrean Bernardo Atxagak asmatutako hitzak: ipupomamuak. Eguenean 20:45ean estreinatuko da eta astean zehar errepikapenak ere emango dira.

Nagore Aranburu aurkezlea herririk herri ibiliko da liburutegietan, kultura etxeetan eta zinema aretoetan, besteak beste.

Astero, elkarrizketa bat eskainiko du ipuingintzaren edo ilustrazioen inguruan, iritziak bilduko ditu, zinemarekiko loturak aztertuko ditu Andres Gostin kazetari eta irakaslearekin... Saio bakoitzean etxeko txikienendako ipuin kontaketa bat ere izango da eta ipuintxoa aktoreek, jende ezagunak, idazleek eta beste askok kontatuko dute.

**ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA**

**MUSEO BAT BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO...**

**PLANETARIUM-EKO SAIOAK**

**Urriak 5:**
17:30 (eusk.) Kartoizko Suziriaren sekretua
18:15 (gazt.) Infinity Express

**Urriak 6:**
17:30 (eusk.) Infinity Express
18:00 (gazt.) Kaluoka'hina

**Urriak 7:**
17:30 (eusk.) Kaluoka'hina
18:15 (gazt.) Donostiatik zerura begira

**Urriak 8:**
17:30 (eusk.) Donostiatik zerura begira
18:15 (gazt.) Biziaren jatorria





Informazio gehiago: *www.miramon.org* edota 943 01 24 78

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
*www.miramon.org*
**Ordutegia**
Astelehenetan itxita.
Asterartetik ostiralera 10:00-19:00.
Asteburu eta jai-egunetan 11:00-19:00

kutxa | www.kutxasocial.net

## zorion agurrak



ARAMAIO
**Leire Vilches Beitia**
Irailaren 24an, 9 urte. Zorionak, printzesa, eta muxu handia etxekoen partetik!



OÑATI
**Ibai Urcelay Zabala**
Irailaren 24an, urtebetetzea. Zorionak, Ibai. Ondo pasatu zure urtebetetze egunian eta muxu handi bat. Oinatz.



ARAMAIO
**Eki Balantzategi**
Irailaren 27an, 7 urte. Zorionak, bihotza! Zela siñistu gure printzesa txikiñak 7 urte bete dittuela! Ixa konturatu barik, neskatilla edarra bihurtu zara. Patxo handi bat. Etxekuok.



ESKORIATZA
**Maren Markaide Alegria**
Irailaren 27an, 8 urte. Zorionak, maittia, etxekoen partetik! Ondo pasatu eguna, potxola! Muxu pila!



OÑATI
**Olaia Otero Aiastui**
Irailaren 27an, 15 urte. Zorionak, Olaia. Belarri tirakada pilla eta muxu handi bat, aita eta amaren partetik. Ondo pasatu Oñatiko jaixetan (ta gutxi gastau).



ARAMAIO
**Irene Txurruka**
Irailaren 28an, 44 urte. Zorionak, maittia! Hastera zoiezen urtia aurrekua baiño hobia izengo da, seguru! Egin gogor, zuk ahal dozu-eta. Ikeragarri gure dotsut, ez ahaztu. Nuria.



OÑATI
**Bego Gomez**
Irailaren 28an, 41 urte. Zorionak, tia Bego! Patxo handi bat. Aitor eta Unai.



OÑATI
**Ane Pelayo**
Irailaren 28an, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxeko danon partetik eta ondo pasatu eguna!



OÑATI
**Julen Otero Aiastui**
Irailaren 28an, 10 urte. Zorionak, Julen, belarri tirakada pila eta muxu handi bat, aita eta amaren partetik. Ondo pasatu Oñatiko jaixetan (eta kromo asko ez erosi urtebetetze-sariarekin).



ARRASATE
**Beñat Hernandez Iturbe**
Irailaren 29an, urtebete. Zorionak, politte urtebete dagoeneko! Gizontxo bat! Ondo pasatu egun berezi hau familia guztiarekin. Marrubizko mila muxu aitatxo, amatxo eta Iratiren partetik.



ARETXABALETA
**Jokin Larrinaga**
Irailaren 30ean, 7 urte. Zorionak, Jokin pirata! Ondo-ondo pasatu zure zazpigarren urtebetetze egunean eta patxo pila bat danon partetik.



OÑATI
**Amets Bikuña Malbadi**
Urriaren 1ean, 4 urte. Zorionak, Amets! Behingoz iritsi da zure eguna, eta jada 4 urte! Mundial pasatu eguna. Mila muxu etxekoen partetik. Muak.



ARRASATE
**Olaia Calvo Altuna**
Urriaren 1ean, 8 urte. Zorionak, marimatraka, etxeko guztion partetik. Tori merezi dituzun zortzi pa handi. Pa! (Zortzi aldiz).



ARRASATE
**Aritz Tornay Belategi**
Urriaren 2an, 3 urte. Zorionak eta patxoak etxeko guztien partetik!



ARETXABALETA
**Iker Urtaza Urzelai**
Urriaren 2an, 5 urte. Zorionak etxekoen partetik eta bereziki Naroaren partetik. Aupa txapeldun!



OÑATI
**Saioa Sanz**
Urriaren 3an, 8 urte. Zorionak! Eta ondo pasatu zure eguna eta San Miguel jaixak. Muxu handi bat etxekuon partetik.



OÑATI
**Ainhoa Igartua**
Urriaren 3an, 13 urte. Zorionak eta urte askotarako! Ondo pasatu zure egunian eta jaixetan. Patxo bat. Familixian partetik.



ARRASATE
**Gari Martin Izurrategi**
Urriaren 5ean, 5 urte. Zorionak, Gari! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Muxu handi bat Luken, amatxo eta aitatxoren partetik.



ESKORIATZA
**Ibai Sanz Eraña**
Urriaren 8an, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu eguna eta muxu handi bat etxeko guztien partetik, bereziki, June eta Manexen aldetik.



ARRASATE
**Roman Lopez Rubio**
Urriaren 9an, 75 urte. Zorionak, aitaita! Benidormen ondo, *morenazo*? Ederto pasau eguna, txokomarrubizko muxu asko, etxekoen eta bereziki iloba Beñat, Uxue, Maren eta Aurkenen partetik. Patxoak.



BERGARA
**Hugo Cachafiro Rodriguez**
Urriaren 10ean, 7 urte. Zorionak, *guapeton*! Oso ongi pasatu eguna. Muxu potolo handi bat etxeko guztien partetik. Maite zaitugu!



ARRASATE
**Uxue Iturbe Lopez**
Urriaren 10ean, 6 urte. Sei urte betettuzu! Zelako haundi iñ zarien! Oñatiko eta Arrasateko familixa eta lagunen partetik, mila kilo zorion eta muxu!

### ZORIONAK!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak Asteleheneko Goienkariaren bidez!
Hiru bide dituzu zorion agurrak jartzeko:

**Internet bidez**
Goiena.net atariko Zorion agurren tartean sartu.
Aukeratu zein herritan gehitu nahi duzun eta eskatzen diren datuak bete.

**e-postaz**
Mezu bat bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera.
Honako datuak emanez: Izen abizenak, herria, urteak noiz eta zenbat betetzen dituen, eta nahi duzun mezua.

**Edo etor zaitez Goienako ordezkaritza batera.**

Egubakoitz 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## asteburuko albuma

**Jolasleku ibiltaria.** Bergarako Jardun euskara elkarteak antolatuta, herriko neska-mutikoek hainbat jolas eta kantu ikasteko aukera izan zuten bariku arratsaldean. Udazkeneko jolasleku ibiltariarekin hasiak dira Jarduneko hezitzaileak eta egubakoitz arratsaldean Simon Arrieta plazan egin zuten ekintza hori 3-12 urte bitarteko gaztetxoendako.

Euskal dantzak, kantuak eta jolasak izan ziren ekintza horretan protagonista. Hurrengo saioa hilaren 15ean egingo dute Martinez de Irala kalean.





## jaiotakoak



**Arkaitz Kortabarria Zhong**
Oñati > 3,120 kilo. Irailaren 25ean. Gurasoak: Cuifen (Oñati) eta Iker (Oñati). Argazkian, Arkaitz jaioberria, amarekin.



**Aitana Mendiaratz Paya**
Bergara > 3,400 kilo. Irailaren 24an. Gurasoak: Aida (Alacant) eta Gorka (Bergara). Argazkian, Aitana jaioberria, esna.



**Hodei Caballero Rodriguez**
Aretxabaleta > 3,200 kilo. irailaren 24an. Gurasoak: Sonia (Arrasate) eta Oskar (Arrasate). Argazkian, Hodei jaioberria, Soledad amamarekin.



**Oñatz Diedhiou Beloki**
Oñati > 2,980 kilo. Irailaren 26an. Gurasoak: Amaia (Oñati) eta Afana (Oñati). Argazkian, Oñatz jaioberria, esna.



**Ane Zubizarreta Zabala**
Eskoriatza > 3,710 kilo. Irailaren 24an. Gurasoak: Meñaka (Arrasate) eta Ion (Eskoriatza). Argazkian, Ane jaioberria, amarekin.



**David Nicula**
Arrasate > 2,470 kilo. Irailaren 24an. Gurasoak: Dora (Arrasate) eta Emil (Arrasate). Argazkian, David jaioberria, gurasoekin.



**Naroa Cabezas Jorge**
Arrasate > 3,040 kilo. Irailaren 28an. Gurasoak: Paqui (Arrasate) eta Miguel (Eskoriatza). Argazkian, Naroa jaioberria, amarekin.



**Elaia Akizu Arenaza**
Aretxabaleta > 3,590 kilo. Irailaren 27an. Gurasoak: Aitziber (Aretxabaleta) eta Jon (Aretxabaleta). Argazkian, Elaia jaioberria, sehaskan lo.



**Ioritz Blazquez Aldai**
Bergara > 3,400 kilo. Irailaren 27an. Gurasoak: Ainhoa (Bergara) eta Gorka (Bergara). Argazkian, Ioritz jaioberria, esna.



**Xiker Blazquez Aldai**
Bergara > 2,600 kilo. Irailaren 27an. Gurasoak: Ainhoa (Bergara) eta Gorka (Bergara). Argazkian, Xiker jaioberria, esna.



**Uxue Oñederra Manchon**
Aretxabaleta > 3,980 kilo. Irailaren 29an. Gurasoak: Bego (Elorrio) eta Xabi (Aretxabaleta). Argazkian, Uxue jaioberria, aitarekin.



**Hodei Ruiz Martin**
Oñati > 2,860 kilo. Irailaren 29an. Gurasoak: Fatima (Oñati) eta Mikel (Oñati). Argazkian, Hodei jaioberria, amarekin.



**Nora Rodriguez Rodriguez**
Arrasate > 4,150 kilo. Urriaren 1ean. Gurasoak: Estibaliz (Arrasate) eta Ramses (Arrasate). Argazkian, Nora jaioberria, sehaskan lo.



**Unai Souto Barquero**
Arrasate > 3,200 kilo. Urriaren 1ean. Gurasoak: Ana (Arrasate) eta Hermo (Arrasate). Argazkian, Unai jaioberria, izeko Mariarekin.



**Naia Reguero Osinaga**
Aramaio > 3,200 kilo. Irailaren 29an. Gurasoak: Igone (Aretxabaleta) eta Jabi (Arrasate). Argazkian, Naia jaioberria, sehaskan lo.

BABESLEA



IKUSI MAKUSI
Umeen paradisua

Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32



# UDAKO ARGAZKIEN VI. GOIENA LEHIAKETA



**Argazki guztiak fotoblog honetan: *www.goiena.net/blogak/argazkiak***

# Hauek dira irabazleak!

1



**ISPILUAREN AURREAN**/ Lara Gonzalez (Arrasate).
Arantza da argazkiko neska, ikasgelako lagun bat. Halako baten, udako eguzkiarekin berotuta, urarekin busti da eta freskatu du erabat adatsa.

2



**DUOMO PLAZA** / Idoia Iturralde (Aretxabaleta).
Ekainaren 26an Milango Duomo plaza ezagunean atera genuen argazki artistiko hau. Solstiziotik hurbil, argiak, gerizpeak, disdirak eta haizeak oso une berezia lortu zuten, erraz ahazten ez den horietakoa; bizikletak ere bere kabuz ibiltzen ziren energia hori guztia batuta.

### 128 LEHIAKIDE

Udako argazki lehiaketan 128 lagunek hartu dute parte aurten. Iazkoan baino 9 lagun gutxiago dira, baina ibarrean ondo errotutako lehiaketa dela erakutsi duzue beste behin. Azkeneko egunean bertan hainbat lagunek bidali zizkiguten erretratuak. Argazki hauen guztiaren aukeraketa egitea gustura egindako lana izan da, baina ez duzue batere erraztasunik eman; asko dira-eta saria merezi dutenak. Batzuk freskoak direlako, besteak barrea eragiten dutelako; teknika aldetik zainduta daudenak jaso ditugu, eta baita erretratua ateratzean ederto zebiltzatela erakusten dutenak ere. Argazki horiek guztiek dute gurean lekua; horrenbestez, datorren urtean ere animatu!

### EPAIMAHAIA

Goienako eta Bergarako Kb Photoestudio argazki dendako kideek osatu dute epaimahaia. Arrasateko Lara Gonzalezek, Aretxabaletako Idoia Iturraldek eta Arrasateko Miguel de Ganeshak asteon jasoko duzue saria; eta gainontzeko irakurleok Egubakoitzeko Goienkaria-n izango duzue irabazleok ezagutzeko aukera, beraiekin egongo gara-eta.

Epaimahaiaren esanetan, *Ispiluaren aurrean* argazki freskoa da, uda, gazteak eta modernotasuna irudikatzen duena; *Duomo plaza* teknikoki oso ona da, angulo ikuspegi oso onarekin; eta *Artea*-k, nahiz eta irudi ohikoa izan, originaltasun puntu interesgarria dauka.

3



**ARTEA** / Miguel de Ganesha (Arrasate).
Nork bere mundua margotzeko ideia: koloreztatu eta bizitza sortu. Hain zuzen ere, askotan natura da berak eta guk geuk gizakiok daukagun ahalmena gogorarazi eta erakusten diguna.

## Sariak



**1. saria: Canon EOS 1000D** argazki kamera digitala eta KB photoestudiok emango dituen ikastaroetako batean %50eko deskontu bonoa.



- **2. saria:** Cantabriako Treceño herriko Hotel Palacio de Guevara-n astebukaera bateko egonaldia bi lagunendako. Gosaria eta larunbateko afari berezia barne. Arrasate Bidaiak-en eskutik.



- **3. saria:** bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

BABESLEA: gizarte kutxa

Laguntzaileak: Arrasate Bidaiak, Gure Ametsa Jatetxea, Canon, kb photoestudio www.kbphotoestudio.com, Goienkaria Debagoieneko Astekaria, Goienkaria astelehenean, aste bukaera osoa, Goiena.net, Goitb Goiena Telebista, Arrasate Irratia



# UDAKO ARGAZKIEN

Argazki guztiak fotoblog honetan:



**MISOL-HA.** Misol-Ha izeneko ur-jauzia ikusi daiteke argazkian. Irudi honek ur-jauziaren alde izkutu bat irudikatzen du, leku paradisiako eta aldi berean misteriotsua. Nondik dator ura? Leku ederra benetan. /Argazkia: Judit Manias /Oñati



**HAURRAK ARROKETAN.** Asilah-ko haur batzuk, olatuen zartaden arriskuaz ohartu gabe, arroketan bainatzen. Haurrak beti haur, eta udan are eta gehiago, gainera. /Argazkia: Olatz Heriz /Debagoiena



**LASAITASUNA.** Venezuelan, Canaimako oihanean, lainoak paisaia ezkutatzen du, ikusi ala ez ikusi hor dago eta horretan datza jokoak. Dena dela, oporretan askotan lasaitasun bila jotzen dugu eta Venezuelako txoko horretan horixe aurkitu genuen, izugarrizko patxada. /Argazkia: Maialen Madariaga /Bergara



**SILUETA.** Halako hiri moderno eta basatietan erainkuntza batzuek besteak jaten dituztela dirudi askotan. Gizakiak ere jango gaitutze? /Argazkia: Maite Anaya /Aretxabaleta



**KEREPAKUPAI.** Venezuelan dago Salto del angel deritzon ur-jauzi ikaragarria, munduko altuena; urrunetik ere ederto ikusten dena. Naturako halako fenomenoen aurrean, gure txikitasuna hobeto ikusten dugu. /Argazkia: Maite Aristegi /Bergara



**MALTA.** Irla bitxia da Malta. Askok kolonizatutakoa, bisitari eta jabe asko izan dituena, baina oraindik ere xarma oso-oso berezia daukana. Txoko bakoitzak badu zerbait. /Argazkia: Joane Garcia /Debagoiena

# VI. GOIENA LEHIAKETA



www.goiena.net/blogak/argazkiak



**GOIKOAK BAINO GORAGO.** Hegazkinetik ateratako erretratua da honako hau. Europako zentroa zeharkatzen dute Alpeek. Bertan ikusten den tontor garaiena Mont Blanc aski ezaguna da, 4.810 metroko altuerarekin. /Argazkia: Xabier Mondragon /Arrasate



**HABANAN.** Topikoak topiko, iraultza gainbeheran bada ere, oraindik ere sexua barra-barra dago Habanan. /Argazkia: Zulai Plazaola /Oñati



**RORAIMA.** Roraima-ko gailurrera iritsi berri, Nuok gidaren laguntzarekin. Brasil, Guayana eta Venezuela elkartzen diren "Besaide"ko gailurrera hiru eguneko mendi igoera egin genuen, baina botatako izerdiak eta egindako ahaleginak erabat merezi izan zuten. /Argazkia: Itziar Egiruren /Oñati



**PALAFITOA.** Venezuelan, Los Roques-eko familia hau urez inguratutako etxean bizi da. Akaso bakardadea somatuko dute, baina ziurrenik ez dute bizilagunenganako kexarik izango eta lasaitasuna barra-barra izango dute. /Argazkia: Miren Berraondo /Bergara



**ALTXORRAK.** San Vicente de la Barquerako ur lasaietan, gizonezko bat kanoan. Askotan kanpora jotzen dugu altxorren bila, baina Euskal Herrian bertan eta hemendik hurbil ere badira. /Argazkia: Mikel Aranzabal /Aramaio



**GUSTURA.** Uda honetan Asturiasen, nire lehengusina Andrearekin, egun batzuk batera pasa genituen, eta nahiz eta hotz pixka bat pasatu (bera Australian bizi delako), izugarri disfrutatu zuen. /Argazkia: Maite Jauregi /Bergara

ASTELEHENEKO **Goienkaria**
**EGOITZA NAGUSIA**
Ibarra kalea 6, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
**Harpidetza:** 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2010-10-04

**Idoia Etxeberria** > Harrijasotzailea

# "Astakeriatan nabilela esan izan didate kaletik"

JON BEREZIBAR > BERGARA

**Markak: 17 urte, 138,5 kilo harria, bost aldiz jasoa eta neska da. Emakumezkoak oraindik orain hiru besterik ez dira harrijasotzaileen artean, baina kemenean ez daude batere atzera. Etxeberriak goiko errekor hori aurreko domekan ezarri zuen Iruran (Gipuzkoa).**

**Nola hasi zen guztia?**

Inbidia izan zen. 30 urteko neska bat egur bat jasotzen ikusi eta probatzeko gogoa piztu zitzaidan. Aitari aipatu, entrenatzaileari esan eta berehala hasi nintzen.

**Burutik jota ote zeunden galdetuko zizuten.**

Aitari ondo iruditu zitzaion, baina ama arduratuta ibiltzen da eta oraindik ere gaizki pasatzen du erakustaldietan.

**20 urte betetzerako ziatikak leher eginda ikusiko zaitu-eta.**

Gerritik oso izorratuta amaitzen duten harrijasotzaileak egon badaude ere, nik ezagutzen ditut 65 urterekin oraindik jardunean daudenak.

**Adin horrekin ikusten zara zu ere harriak jasotzen?**

Ezta pentsatu ere!, baina osasunak eutsi artean honekin jarraituko dut.

**Kirol bakarti samarra ere bada.**

Batez ere entrenamenduetan sumatzen da hori, faltan botatzen dut beste bat alboan xaxatzen. Plazetan beste kontu bat da, jendeak askok animatzen nau. Badago, bestalde, jendea kaletik esaten didana astakeriak egiten ditudala, kirola uzteko eta gaizki bukatuko dudala. Kirol guztiek dauzkate ondorioak. Garrantzitsuena disfrutatzea da.

**Ikuskizuna, gainera, emakumeetan egongo da, marka gehiago baitago hausteko.**

Gizonetan jada ia ezinezkoa da errekorra egitea.

**Diru apustuak ere hor daude.**

Oraingoz ez dut uste inork dirurik jarriko duenik niregatik. Gutxiegi gara emakumeak. Egunen baten jendea niregatik jokatzen hasten bada, poztu egingo naiz!

**Animatu ba neskak probatzera.**

Hori bai dela ia ezinezkoa eta, gainera, gizonezkoen mundua bezala ikusten da. Kirola eta indarra gustatzen zaizkienak animatuko nituzke. Kirol izugarria da eta pertsona moduan asko ikasten da.

SOSLAIA

## Berak, harria

Futboleko baloia harri astunengatik aldatzeko erabakia birritan pentsatzeke hartu zuen. Familian herri kirolean jardundakorik ez daukate. Hala ere, Orion taldea sortu eta nebak trontza eta berak harria aukeratu zuten.

Orain astean bitan entrenatzen du, Saizar anaiekin. Haren ezohiko indarra eta teknika nabarmentzen dute adituek. Gertutik dabilkio Miren Urkiola bolibardarra eta etorkizunean haien artean egongo da dema kimu berriak agertu artean.



Idoia Etxeberria. KARKARA

## ai, ene!



### Ezkertiak eskuin

Irudiko makina ezkertiak eskumarekin iaio bilkatzen ei ditu. 33 lagunekin proba egin eta ia guztiek lortu dute eskuin esku abilagoa. Imanetan oinarritzen den teknika bat da, mediku talde batek asmatu berri duena.

nopuedocreer.com

## biharamuna

Iñigo Biain

### Pailazokerien mozorro festa

Ni bizi naizen herria erabat mozorrotuko da gaur jaiei amaiera emateko. Badirudi eguraldiak ez duela gehiegi lagunduko, baina ez dut uste inor etxean geldituko denik. Ez behintzat Frantziatik kanporatutako ijitoz mozorrotu den ikaslea, ezta inguruмenaz arduratzen hasi den **Osama Bin Laden** bezala jantzi den albaitaria ere. Herri Eskolako andereino batek amerikarrentzat harribitxiak bilatzen bizitza galdu zuen mutil gaztearen ama aukeratu du bere disfraz gisa, eta gaua ogia egiten pasatu duen okina bere koadrilarekin batera ikus daiteke patera batean Oñatiko kale batetik beste batera heldu nahian. Beste koadrila bat trikornioekin ageri da, berdez jantzita goitik behera, eta hauek ez daukate su-eten aupegirik, zezenketak debekatu dizkioten toreroak bezalaxe. Nire herrian gaur ez da suhiltzailerik falta, ezta jeke arabiarrik ere. Grebalariak eta piketeak ikus daitezke, eta baita urtebete beranduago berriz askatu duten **Alakrana** itsasontzia ere. Eta nola ez, pailazoak ageri dira nonahi. Balorea behar da urte osoa pailazoarena egiten pasa ondoren, beste edozer izan zaitezkeen egun bakarrean ere pailazoz janzteko!



## eguraldia



| MAXIMOA | MINIMOA |
|---|---|
| +19 | +15 |

Goizean ipar-mendebaldeko norabidea hartuko du haizeak eta zaparradak ekarriko ditu, batez ere kantauri isurialdera.

www.euskalmet.net

